



BIZIAN GORA

# JESUSEKIN TOPO



JESUSEKIN TOPO

A. Martzel Andrinua



6



BIZIAN GORA

19896

Euskal Biblioteka Labayru



1017384  
RELIGIÓN / N. 671

# Jesusekin topo

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du.*

© Ibaizabal argitaletxea, 1999  
ISBN: 84-8325-287-2  
Legezko gordailua: BI-2038-99  
Inprimategia: R. G. M.

**A. Martzel Andrinua**

---

# **Jesusekin topo**

---

Azaleko diseinua: *Hilario Urkia*  
*Juan Carlos Landa*

Azaleko irudia: *Juan Sanchez*

Barruko irudia: *Javier Erostarbe*

## MAITEMINA

Haragiz jantzi zinen Jainkoa  
 gure antzeko egina,  
 gu egin nabirik zure antzeko,  
 o Jesus maitale fina!  
 Zuk piztu duzu gure artean  
 neurribako maitemina,  
 ez jan-edanez, ez beste gauzez  
 hauxe da ase ezina!

Ni ez naiz gauza, Zeuk egin nauzu  
 Zu maitatzeko adina.  
 Zuregan dut nik atsegina,  
 goza Zuk nire samina.  
 Zuk ahal duzu ta, Zuk asebate  
 nigan sortu duzun grina;  
 orain erdizka, gero betean  
 elkar topako bagina!

A. Martzel



## TOPAKETA

*Gizakia, jaiotzatik heriotzara arte, gelditzeke ibili dabil bila. Gorputza geldi eta gaixorik dagoenean ere, gogoa beti bila. Bila ibili bai, baina zer topa? Egia esan, ibili dabilenak beti izaten du topaketaren bat: batzuetan nahi duena, beste askotan nahi ez duena, edo nahi ez lukena. Beharbada, uste zuena baino hobe. Topaketa-mundu honetan ezusteko handiak izan obi dira, bai pozgarrizkoetan, bai mingarrizkoetan.*

*Ikusten? Bizitza osoa bidea da, bide bat egitea; gu kristauontzat, hasiera jakin batetik helburu jakin batera: Jainkoarengan hasi eta Jainkoarengan amaitu. Jainko Semea gure artera jaitsi zen, Emmanuel izenez deitzen dio profetak:*

“Jainkoa gurekin”. Behin baragi egin zenak, orain gu bakoitzarengan baragi hartzea nahi du, gu bakoitzarekin bat-bat eginez. Horixe da topo egitea. Berarentzat egin gintuenak, Berarekin topo egitean egingo gaitu zoriontsu. Eta bidean goazen artean, ezin dugu topaketarik egin, gure zorion-iturri den Jesusekin? Begiz begi ez, bihotzez bihotz baino, sinesmen-argitan.

Gure bizitzari gehien eragiten dietenak topaketak dira: bai giza bizitzan, bai fede-bizitzan. Zorionez bietan dira maitasunezko topaketak. Horrelako topaketa batek liburu askok baino indar gehiago du guregan; burura ez, baina bihotzera doazelako zuzenean. Eta gure gogobihotza non, gure zankoa han. Gaurko kristauok dotrina gehiegi dugu eta esperientzia gutxiegi sinesmen-bidean. Jesusekin topo egin duten kristauak behar ditugu gaur. Horiexek dira Eliz-bizitzaren oinarri.

Topaketarik ez da izaten inork esanda-koaz, edo inon ikusitakoaz; norberak

bizi izan duenarekin lortzen da bakkarik. Topaketatik dator bizikizuna. Topaketa izan duena ez da bizi kanpotik barrura, baizik eta barrutik kanpora; ez dago begira besteak zer egingo edo zer esango; etxeko egin zaion Jaunaren maitasunak eraginda bizi da. Geuregandik kanpo dagoen zerbait edo norbait izango da bitarteko, baina norberak egosi behar barruan. Topaketa noiz eta nola gertatzen den? Badira mila aukera eta bide horretarako; baina beti ere ikusi, entzun eta irakurtzen dena zentzunetatik barreneko gunetaraino sartzen denean gertatzen da. Bitartekotan ez dago sekreturik, barruko erdigunean Espirituak isilean bizi arazten digunean baino. Orduan, behingo topaketa batekin ez zara nabikotuko; beste topaketa sakonago batzuen bila joango gara. Topaketa izan duenari laster nabaritzen zaio; horra ezaugarri batzuk: adorea, umorea, bizi-poza, itxaropena, zabalkortasuna, elkarlaguntza, otoitz-zaletasuna, bakea, eskerrona, uste osoa...

*Eta zer ote da Jesus Berarekin topaketa bat izatea? Ez azken orduan; oraintxe bizitzako bidean goazela baizik. Asmo honexekin, eta ispilutzat izan ditza-zun, Ebanjelioan agertzen diren hainbat topaketa ipintzen dizkizut aurrean. Ebanjelioa ez da jakituriazko liburua, dotrinaz eta jakituriaz beterik; Jesusekin topo egin zuten pertsona batzuen bizikizunak ekartzen dituen liburua da. Horregatik esan dezakegu, Ebanjelioa —topaketa-bidean— ez dagoela bukatuta; zeurea eta neurea falta zaizkio; hori gabe, hutsune handia izango luke. Ziur egon, kristau guztiok gaude topaketa-ezteira deituak.*

*Topaketa hau egiteko, ez daukagu urrun joan beharrik; geure "etxean" bizi zaigunarekin geuregan egin behar dugu topo; eta hor egiten ez bada, ez da beste inon egiten. Hauxe egizu: Mateo, lapur ona, Zakeo, Madalena... izen horrek kendu eta ezarri zeurea eta otoitz-giroan zeuganatu topaketa osoa, jar zaituz Jesusekin harremanetan. Zeureago egiteko, aldatu zertzelada batzuk eta ezarri zeu-*

*reak. Eta jardun elkarrizketan, Ebanjelioko topaketa lagun duzula. Topaketa baten beharrezkoena ez da sentipen gozoak izatea, ezta bertan momentuan zerbait arraroa sentitzea. Hori utzi Jesusen esku eta zuk jarraitu, Berak daki noiz, zer eta nola izango den. Zorioneko eguna, topaketa-eguna! Agur bakar-dadea, agur ibili-ezinak, agur noraez larriak! Orduan sentituko duzu zeure barrutik Norbaitek aldatu zaituela.*

*Aproba ezazu, ba, topaketa-bide hau; ez duzu ezer ikasi beharrik, ez ezer ordaindu, ez inora joan. Haur-bihotzez kristau-lagunarte on bat bila ezazu eta sar zaituz fede-itsasoan eta murgildu barruraino. Zeuk zeuregandik jakingo duzu zer den hori. Topaketa horrek zeu aldatuko zaitu, eta beste bat izango zara Jainkoarentzat eta hurkoarentzat. Ez abaztu, ba, honako lau pauso hauek: bilaketa, topaketa, ospaketa eta aldaketa. Eta azken fruitu gozotzat uzten dizut hau: orduan izango zara aurkitu duzun Jesusen testigurik ziurrena, bizkeraz baino gebiago bizikeraz.*



Besterik gabe, bihotz-bihotzez opa dizut: bila zabiltzen Horrekin topo egin dezazula eta kristau izatearen ederra dasta dezazula. On egin!

A. Martzel

## Topaketa-biderako argibide batzuk

“Jesusekin topo” egitea ez da antzinako zer batzuen *kontakizun* hutsa; batez ere, *gaur* eta *hemen* Jesus eta gure arteko *gertakizuna* da; fede- eta maite-giroko *bizikizuna*. Hau da beharrezko helburua. Hau gabe, beste dena hutsa eta hotza da; burua bete bai, baina bihotz-hondoa hotz uzten du.

### HARTU HORRETARAKO LAGUNGARRI BATZUK

1. Irakurtzen hasi aurretik, otoitz-leku, ordu eta giro egokiak bila itzazu.
2. Patxada onean eser zaitez, eta *Jaunaren aurrean* sartu, *Aitare*n poliki eginez. Buruz dakizun otoitz edo abesti egokiren batekin giro ezazu zeure barrua.
3. **ALDI HARTAN** datozen sarrerako bi atalek lagunduko dizute *topaketa* bakoi-tzaren harian sartzen: giza esperientziak gogoratuz edo fede-bideko alderdi batzuk argituz. Edozeinentzat den hau, zeuk zeuregan ezazu, zeure bizitzaz osatuz.

4. **Ebanjelio-atala** hitzez hitz eta poliki-poliki irakur ezazu: *lehenengoz*, dagoena dagoen moduan; eta *bigarrenez*, bertan ageri diren *izenen* ordezkari *zeuk zeure izena* ezarriz. Orduko topaketa-gunean irudimenez eta bihotzez zeuk parte har ezazu.
5. **GAUR ETA HEMEN** atalean, zeure errotan irindu behar dituzun *galburuak* daukazu, hausnarketa bidez eta fede-argi eta beroan zeure bizi bihurtuz. Orduan gertatzen da *egi* Jesusek zioena: “*Lur onak bezala hartzen duena hauxe da: mezua entzun eta ulertzen duena; bonek fruitua ematen du: bateko ebun edo birurogei edo hogeita hamar*” (Mateo 13, 23).
6. Hauxe da *Jesusekin topo* egiteko gunea; zeu eta Bera, elkarren aurrez aurre: elkarri entzun, hitz egin, isilean begira egon, eskerrak eman, eskari beroak egin... Une hauxe da topaketaren *ardatza*, zaude bertan ahal duzunik eta luzaroen. Zerbaitek bihotz-erdian ikutzen bazaitu, egon geldi bertan, Jesusekin egonean.

Bigarren saileko bi ataltxok *lagungarri* dira; ziur asko, ez duzu beraien premiarik izango. Espiritu Santuak gidatuko zaitu, jarraitu Berari.

7. **OTOITZA:** behin eta berriz egin dezakezu bihotz osoz. Bihotzak eskatzen dizunez, zeuk gaineratu *Jesusekin topo* egitean sortzen zaizuna.
8. **BERTSOAK:** gai bakoitzak zenbait bertso, daramatza gehigarritzat. Nahi izanez gero, abes iezaizkiozu Jesus Berari goxo-goxo eta astiro. Topaketa bakoitzaren laburpen-txoa duzu, bertso kantuz osatua; horrek zirrada berezi bat sortzen digu barren-barrenean guri euskaldunoi. Eta Jesus Maixuari ez ala?

#### OHARRAK:

Ez dago *topaketa* bakoitza otoitzaldi bakar baten amaitu beharrik; maitasun-topaketa bukatu ezinekoa. Baliteke topaketa guztien artean batek edo bestek berarizko *ukitu* bat egitea; errepika ezazu behin eta birritan.

Bizitzarako lagungarri lizaizuke hurrengo hau: topaketa-aldian zeuregan gertatu zaizuna *koadernotxo* baten jaso, eta egunean zehar hausnartzen joan; edota *sikete-aldian* errepikatzekeo baliogarri izango zaizu.

**Ez ahaztu:** *Jesusekin topo* egiterik ez dagoela Espiritu Santua gabe; Huraxek zuzen zaitzala topaketa-bidean eta erakuts dezazula zeuregan zain daukazun Jesus Jaun Berpiztuaren aurpegia.

# 1

## JESUS ETA MARIA

### ALDI HARTAN

Aldiak aldi, mundu-bola hau badabil jira-biraka. Eta mundutarrok, mundu-bola barruan, ez nora, ez zertarako. Eta gelditu, non eta zertan geldituko ote da mundua? Eta gu mundutarrok? Ba ote dugu helburu ziurrik? Jainkoaren eskutik gabilzala diogu guk kristauok. Jainkoari ardura diola gure joan-etorriak, Berak sortuak gara eta.

Nazaret zeritzan herritxo baten Maria izeneko neskatila bat bizi zen; itxura batean, ez zen besteak baino gehiago ezertan ere. Bere gurasoengandik osoro eta gozoro jaso zuen asaba zaharren sinesmena eta bizi-giroa. Hori bai gero! Txikitatik, Jerusalemgo eliza inguruan zen, ikastetxeren baten egona zela ere, uste dute batzuk. Hauxe da, ba, Jainkoak gure alde egitekorik harri-garriena burutzeko aukeratu zuena. Ez, Jainkoa ez dago gutaz ahaztuta. Isilean eta ezertariko ikusgarriarik gabe dator esanda Liburuan:

“Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Dabiden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen. Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion: «Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin».

Hitz hauek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdeztzen zion bere buruari.

Aingeruak esan zion: «Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Dabiden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango». [...]

Orduan esan zuen Mariak: «Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala».

Eta aingeruak utzi egin zuen.”

(Lukas 1, 26-33.38)

## **GAUR ETA HEMEN**

Jainkoaren Espirituak ez du inor txikia-gotzen, handiagotzen baino. Mariak bai topaketa harrigarria Jesusekin! Maria bera sortu duen Jainkoa, Mariak sortu du bere erraietan. Horrelakorik! Egon ere, ez dago ezer ezinezkorik Jainkoarentzat. Mariak egin zuen Jainkoa hain txiki eta Jainkoak Maria hain handi. Topaketak, maitasunezkoak direnez, maiteminduak berdindu egiten ditu. Jaunak gugan ere lekua eskatzen du, gure bizitzan hezur-mamindu nahi du. Bai gauza ederra, ezta? Bataiotik geuregan dago; isildu, gelditu eta egizu hitz Hurarekin.

Mariak bere buruari begiratuta, ezin du baietzik eman: bera hain da ezereza eta Jainkoaren asmoak hain harrigarriak! Espirituaren laguntza izango duela gogoratzean, baietz biribila ematen dio Jaunari. Mariak bai sinesmena eta bihotz zabaltasuna! Bere erakutsia ondo dator guretzat ere. Guk ere baditugu Jesusekin topo egiteko aukerak eta bideak; baina baietz esanda, ibili egin behar. Norberarengan ez baina, maite gaituen Harengan jarri behar begiak.

## **OTOITZA**

*Handia zara, Aita! Harrigarriak dira gure alde egin dituzunak! Guk ulertu eta neurtu ezinezkoak egin dituzu eta egiten diharduzu gugan. Harrituta eta eskerronez beterik gurtzen zaitugu, eta garena osorik eskaintzen dizugu. Egizu guregan Zeuk nahi duzuna; gu garen apurrean prest gauzkazu zeure esanetara. Zeure eskuetan jartzen gara, Aita.*

## **BERTSOAK**

1

Zorionekoa  
Maria Birjina,  
Jainkoa da zugan  
gizaki egina (bir).

2

Semea Amakin  
bat eginik dago,  
Jainkoaz aparte  
ezin bi batago (bir).

3

Batasun honetan  
Ama da mirabe,  
sortu den Semea  
da Amaren jabe (bir).

4

Jainkoa zain dago  
Amaren baietza,  
Mariak bete du  
Jesusen ametsa (bir).

5

Zuregan badugu  
Ama, zer ikasi;  
emaiguzu, arren,  
betetzeko grazi (bir).

6

Zorion berdina  
bateoz daukagu,  
bat izan gaitezen  
Jesus, Zu eta gu (bir).

2

## JESUS ETA JOSE

### *ALDI HARTAN*

Asko dakitenak eta asko daukatenak dira nagusi munduan. Beraiek darabilte munduko joan-etorria: behin aurrera, behin atzera. Beraiek agintzeko daude, zer eta nola egin behar den esateko. Ezer ez dakienak, ezer ez daukatenak ezer ez dira, esandakoa egiteko baizik.

Jainkoaren jokabidea bestelakoa da. Begiratu Nazareteko Jose: herri txiki bateko harotza, auzotar zintzoa, jainkozale fina. Maria izeneko neskatilarekin ezkontzeko hitza emanda zegoen. Gutxien uste zuen batean, Mariarengan halako zeozer sumatzen du. Haren harrimena, Mariak dena den bezala kontatzen dionean! Batetik Maria zintzotzat dauka; bestetik ezin ulertu zer gerta zitekeen. Ametsetan-edo Jainkoak ulertzero ematen dio, Espiritu Santua sartu dela bitartean.

“Jesus Mesiasen sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen; eta, elkarrekin bizitzen hasi aurretik, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Jose, Mariaren senarra, gizon zuzena zen; ez zuen hura salatu nahi, eta isilean uztea erabaki zuen. Asmo horrekin zebilela, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Dabiden ondorengo, ez izan beldurrik Maria zeure emaztetzat hartzeko, harengan sortua Espiritu Santuarengandik baitator. Semea izango du, eta zuk Jesus ezarriko diozu izena, berak askatuko baitu bere herria pekatuetatik». [...]

Esnatzean, Jaunaren aingeruak agindua egin zuen Josek, eta Maria emaztetzat hartu zuen. Eta ez zuten ezkontza-harremanik izan, Mariak semea izan zuen arte, eta Josek Jesus izena ipini zion.”

(Mateo 1, 18-21.24-25)

## GAUR ETA HEMEN

Zintzoa ala leloa? Jainkoaren eritziz zintzoa, munduaren eritziz leloa. Noski, Jose ez du menderatzen ez odolak, ez sentimenduak; Jainkoarengana oso-osoan zabaldu den gizona da. Mariak dion maitasunean sinesten du. Eta, Mariaren antzera, *baietza* ematen du. Topaketa neketsua Jose dohatsuak Mariaren sabelean agertu zaion Jesusekin egindakoa! Askoz gozoagoa besoetan hartu eta hainbeste urtez zaindu zuenean, hirurak batera otoitzean aritzen zirenean, aita-semeak haroztegian elkarren ondoan eguneroko izerdiz ogia irabaztean...

Munduan egin diren egitekorik harrigarrienak marka bat eta bera daramate: Jainkoak zuzenean esku hartzean eta gizon-emakumeak *baietza* ematerakoan, munduan bizi berria sortzen da, gizonak bere esku hutsez egin ezin-ahalakoak. Jaunak estutu bai, baina ez du inor itotzen. Eta buruz ez ulertu arren, baina bihotz osoz emandako baietzak, gizakia ez du kaxkartzen, gorengo mailetaraino jaso baizik. Topaketa neketsuak, baina onuratsuak benetan, Jesusekin egiten direnak! Sinesmen-indarra behar, ezta?

## OTOITZA

*Jesusen Aita Jainkoa! Zure Semea mundura bidaltzerakoan, Maria eta Jose eman zenizkion aita-amatzat, zure aita-amatasuna beraien eskuetan utziz. Zure seme-alaba gara, eta Zuk gugatik duzun ardura beste batzuen bidez iritsi zaigu. Eskerrak halako guraso, apaiz, katekista, irakasle eta lagun zintzoak jarri dizkiguzulako ondoan! Egizu, Aita, orain geu izan gaitzela beste batzuentzat zure ordezko aita-amak, batez ere gaixo eta txikientzat.*

## BERTSOAK

1

Jose Nazaretarra,  
Mariaren senarra;  
Jainko Semeak aitatzat dauka,  
bera da bakarra.

2

Jose Nazareteko,  
Aitaren ordeko;  
Jainkoak bere Semearentzat  
aita izateko.

3

Jose gora ta behera,  
batetik bestera;  
zoaz ta zatoz, jeiki ta zaude,  
gertu dago bera.

4

Bere senarra baita,  
Mariak du maita;  
Jainko Semeak, gizon eginda,  
deitzen dio aita.

5

Patriarken hazia,  
santuen grazia;  
Aita San Josek irabazi du  
betiko plazia.

6

Bizilagun leiala,  
langile apala;  
etxe ta auzo beti izan zen  
Jose zerbitzala.

7

Gizona irakasle,  
Jainkoa ikasle;  
Jesus ta Jose gertatu ziren  
biak irabazle.

8

Jarri Josen onduan,  
Jesusen moduan;  
ikas dezagun onak izaten,  
geu gauden lekuan.

### 3

## JESUS ETA ELISABET

### ALDI HARTAN

Behin bazioen gizon batek: "Hemen noiz jaten da?". Erantzun: "Aberatsak nahi duenean eta pobreak ahal duenean". Bakoitza bereari begira eta, ahal bada, "nirea neuretzat eta zurea biontzat". Zenbat eta gehiago eduki, gizon handiagotzat edo. Eta daukanak ez daukanari gainerik begiratu, hor konpon egin.

Ez beti, ez denak. Beti izan dira besteen onari begira arduraz jokatu dutenak. Elisabet eta Zakarias senar-emazteak atso-aguretuta zeunden, haurrik izan gabe. Maria, jakin zuenerako, dena utzi eta Elisabet zerbitzatzera doa. Etxera hurbildu bezain laster, Elisabet, sabeleko sein eta guzti, pozez goraka hasten da. Mariak zekarren poza bere erraietako Haurrarena zen. Topaketa berezia. Astiro irakurri eta hausnartzekoa da:

"Handik egun batzuetara, Maria etxetik atera eta Judeako mendialdeko hiri batera joan zen arin-arin, eta, Zakariasen etxera sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun bezain laster, Elisabeti punpaka hasi zitzaion haurra sabelean. Une berean, Espiritu Santuaz beterik gelditu zen Elisabet, eta goraki esan zuen: «Bedeinkatua zu emakume guztien artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua! Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, pozez punpaka hasi zait haurra sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»."

(Lukas 1, 39-45)



**GAUR ETA HEMEN**

Elisabeten poza ez zen zahartzaroan lortu zuen haurra; batez ere, Mariarengan zeterren Jesusekin topo egitean, ama-emeak biak pozez brinko egin zuten. Eta hau zeure bitartez ere egiten jarraitu nahi du Jesusek. Zeuk Hurarekin izan duzun topaketaren pozaren zati bat besteei opatuz, zerbitzari eginez. Horrela balitz, zenbat zahar eta gaxori brinko eragingo zenizkion! Ederragorik!

Zer den norberarengan Jesusen presentzia haratona eramatea! Horretarako Espirituaren bidez norberarengan izan behar topaketa horren esperientzia. Daukanak daukanetik ematen du. Norberaren buruaz ahaztuta, besteen zerbitzari izateak dakarren topaketa berezia: norberarengan dagoen eta behar-tsuarengan dagoen Jesus Berbera izanik, bata eta bestea biak pozez goraka. Topaketa bitzuak dira osagarri: Jesusen topaketarik gabe, ez da erraz behar-tsuengan Jesusekin topo egitea; ezta alderantziz ere. Konta iezadazu antzeko gertaeraren bat.

**OTOITZA**

*Gureganako maitasunez hain txiki egin zaren Aita! Orduan eta handiagoa zara. Mariaren sabeleko ezkututik zabaltzen hasi zara bizi berriaren poza. Maria apalaren bidez bidali diguzu Jesus guregana. Harrezkero Ama honek hamaika bihotz biziberritu du Jesusen presentziaz! Elisabet eta bere sabeleko haurra pozez gainezka jarri zituen, Jesus dugu gure pozgarri. Bidal iezaguzu zure Espiritua, Berak eraman gaitzan zure testigu izatera, behartsuen artean maitasunezko eta borondatezko zerbitzuak eginez. Emaiguzu Maria gure amaren prestasuna, geu ere geure inguruan zure testigu eta berriemaile izan gaitzen.*

**BERTSOAK**

1

“Agur, Elisabet  
ene lehengusina!”

“Agur, nire Jaunaren  
Ama Erregina!”

“Zu bedeinkatzea du  
Jaunak atsegina.”

“Pozez saltoka daukat  
sabelean seinu.”

2

“Aingeruak esanda  
nator laguntzera.”

“Nor-ta nire Jaunaren  
Ama gaur gurera?”

“Biok jarri gaitzen  
Haren esanera.”

“Zoriona heldu zait  
zurekin batera.”

3

Gora dezagun Jauna  
pozez ta kantari.

Eskerrik beroenak  
emanez Berari.

Hara zer egin didan  
mirabe hutsari!

Sinetsi duzulako  
maite zaitu, Mari.

4

Txikiak maite ditu  
ta beti goraldtu.

Harroak baztertu ta  
eskutsik bialdu.

Apalak jaso eta  
handikiak galdu.

Jaunaren mirariak  
ditzagun zabaldu.

4

## JESUS ETA ARTZAINAK

### ALDI HARTAN

Artzain eta baserrietako jendeak beti izan du *astronomo* ukitua. Liburu eta ipuin zaharretan ageri denez, goi-agerpenetan ere lehenengoetarikoak izan ohi dira. Gure artean askok *ertzaina* esan beharrean, *artzaina* esaten dute. Antza denez, artzainak herria zaintzeko ere balio dute. Hala aukeratuak izan dira askotan, ageri denez.

Belengo artzainak ditugu lekuko: Mesiasen jaiotzaren berri jasotzen, beraiek izan dira lehenak, aingeruak esanda gainera. Albistea hartu eta albistea zabaldu, hartutako prezioetan. Jesusen lehenengo apostoluak. Hor doaz bildots, gazta eta guzti.

“Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauez kanpoan artaldea txandaka zaintzen. Jaunaren aingerua aurkeztu zitzairen eta Jaunaren aintzak argiz inguratu zituen; haiek beldur-ikaraz gelditu ziren, eta aingeruak esan zien: «Ez beldurtu! Hara, berrion pozgarria dakarkizuet, bai zuentzat, bai herri osoarentzat ere: Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna, jaio zaizue gaur Dabiden herrian. Eta hona seinalea: jaioberri bat aurkituko duzue oihaletan bildua eta askan etzana». Bapatean, zeruko aingeru-talde handi bat azaldu zen aingeruaren inguruan, Jainkoa goretsiz: «Aintza zeru gorenean Jainkoari eta bakea lurrean berak hain maite dituen gizon-emakumeei!».

Aingeruek zerura aldegin zutenean, artzainek ziotsaten elkarri: «Goazen Belenera Jaunak adierazi digun gertakari hori ikustera». Joan ziren lasterka eta han aurkitu zituzten Maria, Jose eta jaioberria askan etzana. Ikusi zutenean, haurtxo hartza esan zitzaiena kontatu zuten. Artzainek esandakoa entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren. Mariak, berriz, gertakari gutziok gogoan hartzen zituen, bere barruan hausnartuz. Artzainak, entzun eta ikusi zutenarengatik Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, dena aingeruak esan bezala gertatu baitzitzairen.”

(Lukas 2, 8-20)

## GAUR ETA HEMEN

Orduko gizartean alboratuta, gutxitzat jota, zeunden artzainak, ganadu-jendea zelako edo. Beraiek aukeratu ditu Jainkoak, Jesus jaioberriaren lehenengo lagunak izateko; eta, ondoren bere jaiotzaren berri zabaltzeko lekukotzat. Beraien ximpletasunean, halako topaketa gozoa izan zuten Jesusekin. Sartu gaitezen, beraiek egin zutena egitera.

Betiko kontua: jakitunek, —jakin ere asko dakite eta— ezin berez eta erraz sinestu horrelako gauzarik. Beti ere, artzain txikien arteko egin behar, Jesus jaio den estalpetxoan sartu ahal izateko. Nongo Belenen aurkitu genezake gaur Jesus, Berarekin antzeko topaketa bat egiteko? Ziur egon, topaketa honen ondorena zera izango da: geu bake-pozez bete eta Berri onaren testigu umoretsu bihurtzea.

## OTOITZA

*Txikian handia zaren Aita! Zapi-oihaletan batuta Mesias ezagutzeko argia eman zenien artzainei. Zure betiko jokabideaz hasi duzu Itun Berria: zahartxoan zimurren azpian, ezinduen zapi zaharretan... aurkitu daitekeela zure Semea. Argitu gaitzazu, Aita, kendu gure harrokeriatxoak, eta beheratua izan den Jesusekin topo egin dezagun behar-tsuen zerbitzuan. Haragizko begientzat zapi zaharrak direnen barnean zure seme-alaba maite bat aurkitu eta lagun dezagun.*

## BERTSOAK

1

Mila aingeru kantari:  
"Aintza goietan Jaunari  
eta bakea lurrean gogo  
oneko denari".  
Zer zorion ta pozkari,  
aingeruak albistari:  
Jesus jaio den berri emanez  
artzain taldeari.

2

Zoazte bai Belenera  
azkar guztiok batera,  
jaioberri den Ume polita  
pozik ikustera.  
Jo txabola estalpera,  
asto-idien artera;  
zapi zuritan bilduta dago  
Mesias berbera.

3

Artzain misiolariak  
gaueko albistariak,  
pozik eskaintzen baitizkiote  
beren opariak.  
Belengo gertakariak  
Jainkoaren mirariak,  
ezer ezin dute ulertu  
Josek ta Mariak.

4

Ederrak dira dotrinak,  
aurrerapenak bikainak;  
baina mundu hau ez du onduko  
ahaltsuen makinak.  
Ez erronka ta mitinak,  
bai txikien ahaleginak;  
hau erakusten digu Belenen  
gizaki eginak.

## 5

## JESUS, SIMEON ETA ANA

## ALDI HARTAN

Pertsona zaharra, adintsua, lehenago norbait beneragarria zen: asaben sinesmen eta bizimolde osoaren erakusle eta euskarri suertatzen zen. Herriak, nahaste-aldietan, zaharregana jotzen zuen, beraien eritzi eta aholkuen bila.

Zahartasuna ez da beti berdin baloratu. Gaur egun bestelakorik ikusten da gure artean. Tresnak eta badira, zenbat eta zaharagoak, hobe; pertsona bada, zaharago eta bazterrerago. Hala ere, Jainkoak zaharrak eta agorrek haurdun jartzen ditu, beraiengandik herriari martxa berria ezarriz. Entzun zer gertatu zen behin Jerusalemenean, Simeon eta Ana zaharren kontura.

“Moisesen legean agindutako garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaientean, gurasoek Jesus Jerusalemenera eramane zuten Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela agintzen du Jaunaren legeak: *Lehenseme guztiak Jaunari sagaratuko zaizkio*. Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini zuten: *bi usapal edo bi usakume*.

Bazen Jerusalemenean Simeon izeneko bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunak bidalitako Mesias ikusi gabe. Espirituak eraginik, tenplura joan zen eta, Jesusen gurasoak legeak agintzen duena betetzeko asmoz tenpluan sartzerakoan, haurra besoetan hartu eta Jainkoa goretzi zuen esanez: «Orain bai, Jauna, zeuk hitzeman bezala, utz diezaiokezu zeure morroi honi bakean hiltzen! Ikusi dute nire begiok zure Salbatzailea, herri guztien aurrean zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argi eta zure herri Israelen ospe». [...]

Bazen profetesa bat ere, Ana, Fanuel-en alaba, Aser-en leinukoa. Urteetan oso aurreratua zen: gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Ez zen tenplutik ateratzen, eta gau eta egun Jainkoa zerbitzatzen zuen bertan, barau eta otoiz. Une hartan aurkezturik, Jainkoari eskerrak ematen hasi zen, eta haurrari buruz hitzegiten Jerusalemenean askapena espero zuten guztiei.”

(Lukas 2, 22-32.36-38)

## **GAUR ETA HEMEN**

Simeon agureak bai sekulako loterial! Jesus haurtxoa besoetan hartuta, haren esan-beharrak! Hiltzeak ere ez zion axola. Anak, berriz, bere 84 urte eta guzti, beste hainbeste: bere bizitzaren ardatza aurkitu zuen. Zahartzarora arte bila eta bila, itxaropen biziz Mesiaz noiz etorriko. Aurkitu zuten bai, eta egundoko pozez bete ziren biak. Topaketa honen ondoren, a zelako testigantza eman zuten herritarren artean!

Ageri denez, zahar zein gazte, Jesusekin topo egin daiteke; berdin jakitun zein ezjakin izan. Kontua zera da: Espirituak argi eginda bizi behar, beti bila eta bila, begi eta bihotz zabalik. Ez litzaiguke gaizki etorriko horrelako topaketa bat Jesusekin. Bera beti dago prest, geu prestatu behar. Bideak eta aukerak baditugu, ezta?

## **OTOITZA**

*Beti gure onaren bila zabiltzan Aita maitagarria! Espirituaren argiz, Jesusekin topo egitera eraman zenituen Simeon eta Ana. Bai zoriontsu egin zenituela! Espiritu bera emaguzu, geuk ere geure bizitzan Jesusekin topo egin dezagun, Zuk guretzat ere bidali zenuen eta. Topaketa sakon gozo baten ondoren, zeure eta zerorren Semearen berriemaile adoretzu izan gaitezen. Laguniezaguzu edonolako aitzakiak azpiratu eta jarri gaitezen bizi eta bide berri bila.*

## **BERTSOAK**

1

Simeon eta Ana alargunak  
laurogei urtetik gora,  
Mesias hori noiz ikusiko  
begira hainbat denbora.  
Horren ustetan ezin aldendu  
Jerusalendik inora,  
herri osoak itxaropenez  
entzuten zien gustora.

2

Halako egun batez tenpluan  
 Jesus amaren besotan,  
 hainbeste ume ez zen ikusi  
 batera sarri askotan.  
 Gure Simeon argi bizitan  
 jarri zen zorabiotan,  
 eta Umea besotan hartu  
 eta hasi zen bertsotan:

3

Ene Jainkoa, gaur jarri duzu  
 nire arima aserik,  
 hau ikusita nik zer gehiago  
 espero daiket besterik?  
 Nire amets ta itxaropenak  
 hona gaur bete-beterik,  
 orain Zuk, Jauna, nahi duzunean,  
 eraman ni bakerik.

4

Laino-arteko eguzki-brintzak  
 egiten du brista-brista,  
 guri kondairan Jaunak berdintsu  
 mila eratako zizta.  
 Espirituak argi biezaigu  
 gure bihotzeko bista,  
 gaur munduari eman ez bere  
 presentziaren albista.

6

## JESUS ETA BERE GURASOAK

### ALDI HARTAN

Zein erraza den jai-egunari eta aparteko ospakizunari balio handia ematea! Eguneroko bizitza, ostera, motela eta astuna suertatzen zaigu. Jainkoa ere jai-egunetan eta egunerokotik kanpo bilatzen dugu. Jainkoa eta santuak ere jai-egunetarako bakarrik?

Hala eta guztiz ere, bada *Familia Santua* deitzen diogun bat: Nazareteko Jose, Maria eta Jesusen familia. Han ere, beste edozein familian bezala, eguneroko bizimodu arrunta, ez miraririk ez gauza arrarorik. Beste auzoko edozein familiak beste arazo eta ordu ilun eta gozo; baina sinesmen-bizitza sendo eta elkar-maitasun bero bat bai! Entzun:

“Jesusen gurasoak Jerusalenera joaten ohi ziren urtero erromes Pazko-Jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, jaietara joan ziren, ohi bezala. Jaiak amaiturik gurasoak etxera abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalem-en gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zelakoan egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren ahaide eta ezagunen artean. Eta, aurkitzen ez zutelarik, Jerusalenera itzuli ziren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, lege-maisuen erdian eseria, entzun eta galde; entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik.

Ikusi zutenean, harrituta gelditu ziren gurasoak, eta amak esan zion: «Seme, zergatik egin diguzu hori? Ikusi zeinen larri genbiltzan aita eta biok zure bila!».

Hark erantzun zien: «Zergatik zenbiltzaten nire bila? Ez al zenekiten nik neure Aitaren gauzetan ihardun behar dudala?».

Baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zuen. Jesus beraiekin Nazaretera jaitsi eta beraien mende bizi izan zen. Amak gogoan hartzen zituen gertakari guztiok. Jesus haziz zihoan, bai jakinduriaz, bai gorputzez, eta Jainkoak eta gizakiek gero eta gogokoago zuten.”

(Lukas 2, 41-52)

## GAUR ETA HEMEN

Egia esan, inon ere ez dago zorion beterik, Nazareteko familian ere ez. Gozo-garratzak nahastean bizi izan zituzten. Baina hori bai, eta horregatik da Familia Santua: elkar onartuz, elkar lagunduz, otoitz eginez, *ulergaitzak* bihotzean gordez eta hausnartuz. Nazareteko bizitza bai topaketa gozoa Jesusekin, eguneroko bizitzaren barruan!

Eta zer? Guk ere badugu familia, arazo, auzo, herri, eguneroko lan eta neke eta guzti. Hor bizitza-bidean zehar egin behar dugu Jesusekin topo. *Galtzen* denean ere bizkortu egiten du gure bilaketa, topaketa berri sakonago bat izan arte. Noizean behingo santu edozein da; eguneroko santutasunera jo behar dugu, eta hortxe egin topo Jesusekin.



## OTOITZA

Arduraz eta errukiz beteriko Aita! Jose eta Mariaren ondoan zure Semea hazi, hezi eta bizitzea nahi izan duzu. Geu ere kristau familia baten jaiotzea nahi izan duzu. Emaiguzu zure Espirituaren argia eta indarra, Familia Santuaren erakutsia jaso dezagun. Horretarako, eraman gaitzazu Jesus gure bizilaguntzat ezagutu eta hartzera; Berari jarraituz zure gogoko izan gakizkizun.

## BERTSOAK

1

Jesusen gurasoak  
betiko antzera,  
Jesus ta guzti doaz  
Jerusalenera.  
Jainkoaren Legea  
fedez betetzera  
pozik ospatzen zuten  
urteko aukera.

2

Eginbeharrak egin  
eskari ta esker,  
etxerako bidea  
hartu zuten laister.  
Gurasoak ez zuten  
usmau txarrik ezer,  
Jesusek hori egin...  
Ez baitzen hain oker!

3

Elizara joanda  
erregu isila:  
"Arren, Jauna, semea  
agertu dadila".  
Bazterrak arakatu  
semearen bila,  
eta maixu artean  
horra non mutila!

4

"Ene seme, zergatik  
hau egin diguzu?  
Aita ta biok bila  
ibili gaituzu."  
"Ez zenekian, ama,  
biok ni eta zu  
Aitak behar gaitula  
berean jo ta su?"

## 7

**JESUS ETA ERREGE SANTUAK****ALDI HARTAN**

Gaurko uste ustel askoren artean, bada honako hau ere: fedea, kontzientzia eta eliz-arazo horiek jende gizarajo eta atzeratuen kontuak direla. Jendeak, liburutik ikasi-ahala, beste gauzak burutik bota egiten ditu. Ezjakinek gauzak erraz sinesten dituzte; jakitunek, beraien buru-neurrian sartzen direnak bakarrik onartzen dituzte; beraien gainetik dagoenik ez da ezer ere.

Ez da hori ere egia osoa. Beti izan dira jakitun-handikiak egiazko santutasunera heldu direnak. Egiaren eta argiaren bila dabil-tzan jakitun apalak dira, dakienarekin osoro fidatzen ez direnak. Horrelakoak Jesusen aurrez aurre ahozpepten dira eta dituzten oparirik baliotsuenak eskaintzen dizkiote. Hor dituzu Errege Santuak: haurrak zapatak prestatzen dizkie; guk nagusiok, begi zoliak eta bihotz irekiak.

“Jesus Judeako Belen herrian jaio zen, Herodes erregearen garaian. Jesus jaio ondoren, sortaldeko jakintsu batzuk azaldu ziren Jerusalemenean, galdezka: «Non da juduen errege jaioberria? Haren izarra ikusi dugu sortaldean eta gurtzera gatoz».

Berri honekin larritu egin zen Herodes erregea, baita Jerusalem hiri osoa ere. Orduan, herriko apaizburu eta lege-maisu guztiak bildu eta Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiiek erantzun zioten: «Judeako Belenen, honela idatzi baitzuen profetak». [...]

Orduan, Herodesek, jakintsuak isilean deiturik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz. Gero, Belenera bidali zituen, esanez: «Zoazte eta jakin xuxen haurraren berri eta, aurkitu ondoren, adierazi niri, neu ere gurtzera joan nadin». Erregearen hitz hauek entzunik, abiatu egin ziren. Bidean, sortaldean ikusitako izarra agertu zitzaien eta biziki poztu ziren. Izarra aurretik joan zitzaien, haurra zegoen toki gainean gelditu arte. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten Maria bere amarekin eta, ahozpezturik, gurtu; ondoren, beren kutxatila zabalduz, eskuerakutsiak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra.

Gero, Herodesengana ez itzultzeko oharra ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren beren herrialdera.”

(Mateo 2, 1-5.7-12)

## **GAUR ETA HEMEN**

Izarra, bidea, lagunak, biblia, opariak... Jesusengana heltzeko bideko lagungarriak dituzu. Azala polita, barruko mamia ederra: *Jesusekin topo* egitea. Merezi du bide luze eta latza egiteak. Hori egiten dutenak beste bide batetik doaz aurrerantzean.

Beti izan dira, eta gaur ere bai, Jesusen bila dabilen jendea. Uste den baino gehiago. Gaur eta hemen ere bai. Eta Berarekin topo egitea lortu dutenak ere bai. Gazte nahiz nagusi izan, horrelakoei entzuten zaie: "Orduan hasi nintzen ni kristau izaten", "Harrezkero nik Jesus egunero neure ondoan daukat", "Ordutik urlia beste bat da"... Zer ote da hori? Geu ere goazen bila: taldean, biblia eskuan dugula, otoitz-giroan. Berak ipini gaitu bidean, Bera aterako zaigu bidera.

## **OTOITZA**

*Zure Espiritua da, Aita, Jesusen bila bidera ateratzen gaituena, eta bideko ilunaldietan argi egiten diguna. Zeuk ezarri diguzu Jesusen egarria. Eskerrak bihotzez, Aita! Ez gaitezen aspertu bilaketa honetan, Jesusi jarraituz, Zugan betiko atsedena hartu arte.*

## **BERTSOAK**

1

Belenerako bidean datoz  
sortzaldetik hiru Mago,  
gamelu eta izar kontuan  
ni neu hain ziur ez nago.  
Azal dotorez ongi jantzita  
egia handi bat hor dago,  
azala baino egia bera  
da guretzat ederrago.

2

Fede-bidea, bide luzea  
Belenera daramana,  
bizitzak berak dirauen arte  
inoiz amaitzen ez dena.  
"Ez ote dena amets hutsa ta  
alperrikako afana?"  
Hamaika aldiz damu ere bai  
bidean hasi izana.

3

Belen-bidean nahastean datoz  
argia eta iluna,  
hortxe agertzen da bakoitzaren  
neurri ta zintzotasuna.  
Eta Bibliak eskaintzen die  
behar den laguntasuna,  
bila doazen Jesus Bera da  
beren bideko laguna.

4

Laino montorrak uxatu eta  
berriro zero urdina,  
izarra dizdiz beren aurretik,  
bai gidari atsegina!  
Ez da alperrik izan bidean  
jarri duten ahalegina,  
aska baten aurkitu dute  
Mesias haurtxo egina.

5

Bere ondoan pozez zorutzen  
Jose ta Ama Maria,  
inguruetan aintza-goraka  
aingerutxo kantaria.  
Magoak ahozpeza opa diote  
kutxetako oparia,  
baina Jesusek eskaini die  
ederrago den saria.

8

## JESUS ETA JOAN BATAIATZAILEA

### ALDI HARTAN

Gizonaren betiko tentaldia da: Jainkoa bera ere norberaren erara erabili nahia. Hagatik sarri entzuten da: "Jainkoak entzuten ote dit?". Jainkoak egin diezagula geuk ezin duguna eta nahi duguna; bestela ez du ezertarako balio eta kanpora. A zelako *Aita Gurea* irtengo litzatekeen, *Zu* ordez *Ni* ipiniz gero!

Profetek bestetara jokutzen dute: dei eta dei herriari, bide okerretatik Jainkoaren bideetara bihur daitezen, benetako zoriona eta bakea izateko. Herodes erregeak eta fariseuak nekez onartuko dute Joanen deia. Joan hori, dagoen bizi-ordena nahastera dator; ez da bide onekoa; logurea kentzen du. Nola edo hala garbitu egin behar da.

“Joanek gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko, eta matxinsaltoak eta baseztia zituen janari.

Jerusalen hiriko, Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen, eta, beren pekatuak aitortzen zituztela, Joanek bataiatu egiten zituen Jordan ibaian. [...]

Nik urez bataiatzen zaituztet bihotz-berri zaitetzen; baina nire ondoren datorrena ni baino ahaltsuagoa da, eta ni ez naiz inor Hari oinetakoak erantzeko ere; Horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. [...]

Jesus Galileatik Jordanera etorri zen, Joanengana, honek bataia zezan. Joanek ez zion utzi nahi eta esan zion: «Neu naiz Zuk bataiatu beharrekoa, eta Zu zatoz niregana?». Baina Jesusek erantzun zion: «Uztazu orain, honela bete behar baitugu osoki Jainkoaren nahia». Orduan, amore eman zuen Joanek.

Bataiatu eta berehala, Jesus uretatik irten zen. Hortan, zerua zabaldu zen, eta Jainkoaren Espiritua ikusi zuen Jesusen uso-tankeran jaisten eta beregana etortzen. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Hau da nire Semea, nire Maitea; Berau dut atsegin».”

(Mateo 3, 4-6.11.13-17)

## GAUR ETA HEMEN

Joan basamortuan hezitako gizona da, gamelu-narruz jantzita, ahaleginetan zebilen Jesusi bideak prestatzen. Jesus burumakur, pekatarien ilaran azaltzen zaionean, haren zirrada pozgarria bihotzean! Mesias hark bataiatu! Eta Aitaren hitza entzun eta Espiritua ikusi! A zer esperientzia sakona! Jesusekin izandako topaketak esperientzia aberatsa ekarri zion. Hark bete zuen bere zeregina. Mesiasen aldia hasi da, berak baztertu beharra du: umiltasuna, zintzotasuna, betetasuna. Baina aurretiaz testigantza garbia emanaz.

Jesusekin topo egiten dutenek beraien lekua zaintzen dute umiltasunez eta maitasunez. Jesusen irabazteaz poztu egiten dira, bere zerbitzari sentitzen baitira. Horretarako, bere bideko egitekoa ondo bete behar du, hantxe sentitzen da Jesusen aurrelari, testigu. *Topaketa-bidea, bokazio-bidea*. Jesus bide orotan dago. Zorionekoa Jesusen bidegile bihurtzen direnak!

## OTOITZA

Aita maitekor eta maitagarri hori! Gizon-  
-emakume guztiak Jesusengan batu eta guztie-  
kin zure familia osatzen aritzen zara. Eta Espi-  
rituaren bidez dei egiten diguzu, elkarrentzat  
bide-erakusle izan gaitezen. Laguniezaguzu  
bakoitzaren bizibidean Jesusekin topo egiten,  
Harekin batera guk ere entzun dezagun: "Zu  
zara nire seme-alaba maitea".

## BERTSOAK

1

Jordan ertzean agertu zen behin  
oihuz Joan Bataialaria:  
"Gure artean dago Mesias,  
neu bere mezularia.  
Bide onera zuzendu bedi  
lehen bait lehen pekataria;  
Mesias hori datorrenean  
emango dio saria".

2

Guztitariko andre ta gizon  
zetozkiola arduraz,  
Mesias hori etortzerako  
bihotzak prestatu guraz.  
Joanek onartu ta bataiatzen  
zituen Jordango uraz,  
biziberritan sentitzen ziren  
espirituzko freskuraz.

3

Behin baten Jesus han agertu zen  
pekatarien erroldan,  
Joanek laister igerri zion  
nazaretar hori nor dan.  
Ardiekin bat eginda sartu  
nahi du Aitaren eskortan,  
baina lehenago igaro behar  
Kalbarioa ta Jordan.

4

"Zu Mesias ta, nik ezin zaitut  
Zeuk behar nauzu bataia."  
"Zaude isilik ta bete zangun  
zeruko Aitaren nahia."  
Horra Jesusek bedeinkatuta  
betiko Jordan ibaia,  
hortxe Mesias egiten zaigu  
gizon guztion anaia.

5

Ibaitik irten eta bertantxe  
zeru goitik zaratea:  
"Hauxe da nire Aukeratua,  
hau nire seme maitea.  
Beragan daukat nire poza ta  
nire atsegin betea;  
berari entzun ta jarraitzea  
da nire borondatea".

## 9

## JESUS ETA LEHENENGO IKASLEAK

### ALDI HARTAN

Gizakiak berez dauka bere barruan itsatsita goiko *zer* baten sineskera; eta *zer* horren adiskide izateko, opariak eskaini eta promesak egin beharra sortzen zaio. Horrelakoarentzat *goiko zer* hori urrunekoa da, zorrotza eta beldurgarria. Gehien baten handikien alde ageri da, eta ez du gizonen ardura handirik.

Bestelako *AITA* Jainkoa azaldu digu Jesusek! Jainkoa *AITA* dela esanez azaldu zitzaigun. Harrezkero, Beragan azaltzen zitzaigun Aita, gu denok salbatzeko egin ahalak egiten ari dena da, ez du nahi inor kondenatzerik. Gure antzeko gizaki egin da Jainko Semea, Aitak bidalita; gu Semearekin bat eginda, Aitarenera heldu gaitezen. Zer esan ote zien Jesusek gau hartan bi ikasleei.

“Hurrengo egunean, berriro ere bertan zegoen Joan bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzutean, Jesusi jarraitu zioten. Jesusek, atzera begiratu eta ondoren zetozkiola ikusirik, galdetu zien: «Zeren bila zabiltzate?». Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?». (Rabbi «Maisu» esan nahi du.) Jesusek esan zien: «Etorri eta ikusi». Joan, non bizi zen ikusi eta Berarekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak aldea zen.

Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten biatariko bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Lehenik, bere anaia Simonekin egin zuen topo, eta esan zion: «Mesias aurkitu diagu». (Mesiasek «Kristo» —hau da, Gantzutua— esan nahi du.) Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarririk, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea, baina aurretzean Kefas deituko zara». (Kefasek «Pedro» —hau da, Harkaitz— esan nahi du.)”

(Joan 1, 35-42)

## GAUR ETA HEMEN

Ez da harritzekoa bi ikasleon harridura eta gozamina! Mesiasekin gau osoan! Egundaino horrelako topaketa gozorik ez dute izan bizitzan. Ezta amesetan ere! Etxera joanda, bakoitza anaia batekin bihurtu ziren Jesusengana. Jesusen Jainkoa beste bat da. Hau bai dela benetakoa *Berri ona!* Jainkoa gizonaren laguna, gizona zoriontsu egitearren, dena jokatzen duena.

Hori lehenago bai, baina gaur? Gaur ere bai. Ikusten ez duguna, gurekin bizi da, gurekin dago; eta orduan baizen hurbil-hurbileko egiten zaigu. Bere adiskidetasuna eskaintzen daukagu, gu noiz kontura etorriko. Gure artean daude Jesusekin topaketa egin dutenak. Begira zenbat gogartetxe, zenbat kristau-elkarte, otoitz-talde. Entzun beraiei: Hitzez ezin azaldu barrenean bizi dutena. Entzutea ez da nahiko, uretan sartu egin behar da, igeri egitearen gozamina hartzeko.

## OTOITZA

*Aita-Ama batera zaitugun Jainkoa! Jesus berpiztu ondoren, Berarengan denok besarkatzen gaituzu. Bidaliezaguzu Espiritu Santua, gugan dagoen Jesus sentiarazi diezagun. Jesusekin batera zure bihotz-gainera besarkatzen gaituzula nabar dezagun, Espirituarengan diotsugula: Aitatxo!*

## BERTSOAK

### 1

Basamortutik irtenda Jesus  
jeitsi zen Jordan ertzera,  
zeruko Aitak agindu zion  
erreinua zabaltzera.  
Joan handiak ikusi zuen  
ta eman zion antzera:  
“Horra Mesias etorri zaigu  
pekatutik salbatzera;  
ea gazteok, joan zaitzte  
Harekin gaurtik aurrera”.



2

Santiago ta Joan gazteak  
dena bertan behera utzi  
eta pozetan jarrai zioten  
aurrera doan Jesusi.

Bere atzetik zetozkiola  
Jesus kontuan zen jausi:  
“Gazteok, noren bila zabilteze?”.

“Non bizi zara, Nagusi?”  
Eta Jesusek pozik erantzun:  
“Etorri eta ikusi”.

3

Hau topaketa zoragarria,  
hau benetako gaupasa!  
Honen ondoren azal hutsa da  
mundu guztiko jolasa.  
Eta gazteok etxera joanda,  
ezin harturik arnasa.  
Mesias hau ta, Mesias hori,  
ha izan dela demasa...  
anai ta guzti Jesusengana  
laurak doaz beren kasa.

10

## JESUS ETA KANANGO EZKONBERRIAK

### ALDI HARTAN

Gizakia sarri aurkitzen da harri eta zurtz  
eginik, munduko eta bizitzako olatuak azpi-  
ratuta, ezinean. Orduan berez jotzen du Jain-  
koarengana edo santuren batengana laguntza  
eske. Ez dakit zenbateko sinesmenez, baina  
*miraritxoak* eskatzeko eta hartzeko ere gai  
gara. Ea zulo horretatik ateratzen bagaituzte.

Gaur egun, gero eta gutxiagok sinesten  
du *mirari* kontuetan. Ez gero, fede-  
-hoztasunagatik bakarrik; fededun zintzo  
asko dira *mirari* edo antzeko horiek zalan-  
tzan jartzen dituztenak, gehienak behintzat.  
Dena den, norberak ere parte handia du  
arazo honetan, eta ez jakin non hasten den  
eta non amaitzen den *miraria* delako hori.  
Irakurri poliki-poliki gaurko ataltxo hau, eta  
zeuk atera kontuak zenbatek parte hartzen  
duten *miraria* egiten.

“Hiru egunera, ezteiak izan ziren Galileako Kanan, eta han zen Jesusen Ama. Jesus eta beronen ikasleak ere gonbidatu zituzten ezteietara. Eta ardoa amaitu baitzen, esan zion Amak Jesusi: «Ez dute ardorik». Jesusek erantzun zion: «Utz nazazu bakean, emakume. Oraino ez da etorri nire ordua». Jesusen Amak honela esan zien zerbitzariei: «Egin horrek esango dizuen».

Baziren han harrizko sei urontzi, juduek beren garbikuntzetarako erabili ohi zituztenak, ehunen bat litrokoa bakoitza. Jesusek esan zien zerbitzariei: «Bete ontziak urez». Haiek goraino bete zituzten. Orduan esan zien: «Atera pixka bat eta eramán mahai-zainari». Hala egin zuten haiek.

Mahai-zainak ardo bihurtutako ura dastatu zuen, nongoa zen jakin gabe; zerbitzariak, bai, bazekiten, beraiek atera baitzuten ura. Ardo berria dastatu zueneko, senarrari dei egin eta esan zion: «Jende guztiak ardorik onena atera ohi du lehenik eta, jendea aski edanda dagoenean, arruntagoa; zuk, berriz, orain arte gorde duzu ardorik onena».

Bere lehen mirarizko seinale hau Galileako Kanan egin zuen Jesusek; honela, bere Jainko-aintza agertu zuen, eta ikasleek sinetsi egin zuten Harengan.”

(Joan 2, 1-11)

## GAUR ETA HEMEN

Hainbeste lagun izendatzen zaizkigu: Jesus, Maria, ikasleak, zerbitzariak, mahai-zaina eta ezkonberriak... Kontuak atera: denak geldi egon balira, egingo ote zen miraria? Jesusek ez zeukan orduan gogo handirik. Bakoitzak bere partetxoa betetzen duenean, *miraria* berez dator: parte hartu ahala. Askoren indarrak besteen onerako elkartzea, hori bai dela *miraria!* Ura ardo bihurtzea bestekoa. Agerian agertzen hasi zen Jesusekin lehenengo topaketa harrigarria baizen mesedegarria. Ikasleen sinesmena gehitu egin zela, denak harrituta gelditu zirela.

Gaur eta hemen ere gure artean *antzeko mirariren* batzuk behar ditugu, bada: lana, bakea, batasuna eta abar. Bakoitzak geure partetxoa beteko bagenu, zenbat *mirari!* Geure eskuan dagoena geuk egin behar dugu, Jaunaren bedeinkapenak ez digu huts egingo. Elkarlanean Jesusekin topo egitea, zer nahi duzu sari hoberik? Gorrotoa maitasun, utzikeria solidaritza, bakarkeria elkarte bihurtzea... ez al da ura ardo bihurtzea besteko *miraria?* Elkarlanean behartsuen zerbitzari izatea baino topaketa onuragarriagorik, zer?

## OTOITZA

Aita Jainkoa, gu zorientsu izatea zure aintzarik handiena da. Isuriezaguzu Espiritu Santua, denon buru-bihotzak argitu eta elkarlanera jo dezagun. Desberdintasun guztien gainetik, batasunean bizi gaitezen. Gure esku utzi dizkiguzu denetariko ondasunak, denen onerako. Elkarbana ditzagun denen probetxurako. Mahai bateko anaia-arreba gaitezen, Zeu Aita, mahaiburu zaitugula: Hori bai eztei gozoa!

## BERTSOAK

1

Nork ez du entzun Kanan  
eta zer gertatu zen han?  
Jesusek ura ardo bihurtu,  
bazegon zer edan.  
Bildu zen bai nahiko nork jan,  
ez zen izan inor bajan;  
mirariz edo, denak asetzen  
bazeukan nahiko lan.

2

Denak jan ta edanean  
Maria aldamenean,  
ardorik ezaz konturatu da  
amaitu heinean.  
Jesus jarri jakinean  
gertatuaren gainean;  
eta morroiak prestatzen ditu  
bere esanean.

3

Morroiak ura prestatu  
ta Jesusek bedeinkatu,  
mahaira orduko uraren orde  
ardo zen gertatu.  
Ardo berria txastatu,  
zaharraz ezin konparatu;  
harri ta horma eginda ziren  
guztiak geratu.

4

Jaunak sortuak mundura  
deitu gaitu ezteguna,  
gu zorientsu gaitezen badu  
hainbeste ardura.  
Ardo ona ala ura  
ta gainera zenbat gura:  
Jainkoa lagun, elkarlanean  
daukagu eskura.

# 11

## JESUS ETA IKASLE ARRANTZALEAK

### ALDI HARTAN

Begiz ikusi edo buruz ulertzen ez denik sinestu ezina, gizakiarentzat tentaldirik kaltegarriena da. Bestalde, Jainko-bidean dena argi eta garbi ikusi eta jakitea ez omen da gauza ona. Hori, ezina denez, harrokeriarako eta ateismorako bidea da. Kontuz, gero, han edo hemen beste mundukorik azaltzen bazaizu!

Ikasleek beraiek ere fede-bidea egin behar izan zuten; kolpe baten ez zuten benetako Jesus ezagutu. Argi-ilunez beteriko fede-bidea burutu zuten, Espirituak egi osora eramanez. Eta hori, gau eta egun Jesus Berarekin bizi izan zirela! Noizean behin nolako zalantza-balantzak! Jesus ala mamua, zer ote da? Ikusi:

“Berehala, Jesusek ikasleak txalupan sarrarazi eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendeari agur egin ondoren, mendira igo zen, bakardadean otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik.

Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, uhinek astindua, haizea kontra baitzuen. Goiz aldera, ikasleengana joan zen Jesus, ur gainean oinez. Lakuan ibiltzen ikusi zutenean, ikasleak izutu egin ziren, mamuren bat zelakoan; eta beldurraren beldurrez oihuka hasi ziren. Baina Jesusek berehala hitzegizien eta esan: «Lasai! Neu naiz. Ez beldurtu!». Orduan, Pedrok esan zion: «Jauna, benetan Zeu bazara, agindu iezadazu ur gainean Zerugana joateko». Jesusen erantzun: «Zatoz».

Pedro untzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion, eta, hondoratzen hasi zelarik, deiadar egin zuen: «Jauna, salba nazazu». Jesusek eskua eman eta heldu egin zion, esanez: «Sinesmen gutxiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?».

Txalupara igo zirenean, haizea baretu egin zen. Eta untzian zeudenak Jesusen aurrean ahozpe jarri ziren, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara zu!».

(Mateo 14, 22-33)

## GAUR ETA HEMEN

Itsasoko hau bizikizun gogorra, baina baita mesedegarria ere. Begira nolako pausoa eman zuten Jesusekin topaketa honetan: *mamutik* hasi eta Jesus Jainko Semearengana iritsi. Topaketa erakusgarria guretzat ere. Eta aurretiaz beste mirari batzuk ikusita egon zirela. Jesus ondora joan eta haizea baretu, bihotzak poztu... Topaketa baten ondorenak. Topaketarik gozoenak izanda ere, beste berri batzuen bila jo behar da; eta gero eta gero ere, Jainkoa beti da *beste bat*.

Gure txalupatxoa ere berdin ari da uretan eta lehorrean; izan ere, geu gabiltza bizitzako itsas gainean: bateko olatuak, besteko kontrako haizeak. Erraz *mamu* bihurtzen zaigu dena, Jainkoa bera ere bai. Baina zintzoki jokatzuz gero, hurrengo barealdia topaketa gozoagoa, sakonagoa gertatzen da. Jesusekin topo egitea ez dago gozo-garratzean, *jarraipenean* baizik. Jauna Bera ez dabil bizitzako olatuak harrotzen, baina harrotuak baretzen laguntzen digu bere Presentziak. "*Nire bizitzako kolperik gogorrena biburtu zait Jesusekin topaketarik ederrena*" zioen jubilatuko batek.

## OTOITZA

*Erruki hutsa zaren Aita Jainkoa! Nola behar den bezala eskerrak eman Zuri, Jesus gure itsas nahastetsu honetara bidali duzulako? Kalbarioko iluntasunean eutsi iezaguzu Espirituaren sendotasunez, Jesus Berpiztuaren argiz bete gaitzan arte. Zure maitasunak ezarri diezagula behar dugun ziurtasuna aurrera egiteko. Gure bizitzako itsas-portuan gu noiz iritsiko zain zauden Aita ona, Jesusen izenean onartu gaitzazu zure ondoan.*

## BERTSOAK

1

Halako baten Jesus joan zen  
ohi zuen bakardadera,  
Aitatxorekin egon beharra  
otoitzean asetzera.  
Apostoluak joanak ziren  
arrantzurako lanera,  
batera eta bestera.  
Goizaldia zen, hirurak-edo,  
norbait zetorren aurrera,  
isilik eta laino artean  
oinez ibiltzen gainera.

2

Batek oihua: "Ene, mamua,  
oraintxe galduak gara!".

Baina Jesusek hurbildu eta:

"Ez izan beldur ikara,  
ez naiz mamua, zuen Jesus naiz,  
ondo begiratu, hara".

Oi, nolako poz zirrara!

Hurbilago ta ezagunago:

"Ene, bai, Jesus Bera da!".

Beren artean gehituzten doa  
poz ta zorion algar.

3

Jesusek: "Neu naiz" esan orduko  
Pedrori bihotza ahora:

"Zu Zeu bazara, esan zaidazu  
joateko zure ondora".

"Zatoz, bai, Pedro" Jaunak esan ta  
Pedrok zapart itsasora,  
baina ez dabil gustora.

Bidea luze, indarrak urri  
eta badoa hondora:

"O ene Maixu, salba nazazu,  
zatoz, atera ni gora".

12

## JESUS ETA APOSTOLUAK TABOR MENDIAN

### ALDI HARTAN

Pertsona heldua ez da bizkar gainean urte asko dituen, besterik gabe; ongi egindako esperientzia asko daukana baizik. Horrek bai dakiela zer nola den, eta ez liburutik edo inork esanda. Gozo-garratzean, argi-ilunean bere buruari eta emandako hitzari eusten dakiena, bere senetik eta bidetik irten gabe. Hori da heldua, gazte nahiz sasoiko izan.

Berdin fede-bizitzan ere: ez da nork meza gehiago entzun, nork gehiago otoitz egin, nor santu gehiagoren debotoa izan. Ikasleak ere ez ziren hain erraz sartu *Jesusen jarraipene*ko bidean. Sarri jasotzen zituzten Maixuaren zuzenketa zorrotzak. Beti zeunden prest, dena eurrez eta errez ematen zien Jaunari jarraitzeko. Baina burua ukatze hori, gurutzea hartu eta jarraitze hori...

“Hitzaldi honetatik zortziren bat egunera, Pedro, Joan eta Santiago Berekin hartu eta mendira igo zen Jesus, otoitzera. Eta, otointzean ari zela, aurpegiko itxura aldatu egin zitzaion, eta jantziak zuri distiratsu bihurtu. Hartan, bi gizon azaldu ziren, aintzaz distiratsu: Moises eta Elias, eta Jesusekin mintzo ziren Jerusalem gertatzekoa zen honen heriotzaz. Pedro eta lagunak logaleak jota zeuden; baina esnatu ziren eta Jesusen aintza eta Harekin zeuden bi gizonak ikusi zituzten.

Hauek urruntzean, Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, zein ederki gauden hemen! Zergatik ez egin hiru etxola: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasentzat?».

Ez zekien zer esaten zuen ere. Eta, hori zioela, hodei batek estali zituen, eta beldurtu egin ziren hodeipean sartzean. Mintzo hau izan zen hodeitik: «Hauxe dut neure Semea, nik hautatua. Entzun berari!». Mintzoaren ondoren, Jesus bakarrik ageri zen. Ikasleek isilik gorde zuten eta, ordukoz, ez zioten inori esan ikusitakorik ezer.”

(Lukas 9, 28-36)

## GAUR ETA HEMEN

Tabor mendikoa izan zen Jesusen bizitzan bizikizunik betegarriena. Eta Harekin batera, ikasleentzat ere bai. Pozaren pozez gainez eginik, Pedro prest dago txabolaginen hasteko. Hantxe ikusi dute beraien Maixua dizdiz, Aitaren Seme kutun bezala goraldua, aintzaz beterik. Pozak erraz zora-biatzen gaitu; baita atsekabeak lur joarazi ere. Pedro eta lagunentzat errazagoa zen Taborreko Jesusi jarraitzea, Kalbariokoari baino. Eta bietan bat bera, bietakoarekin egin behar topaketa osoa. Orduan da benetak jarraitzailea.

Zaparrada askoren artean ailegaturiko fruitua dugu gizakia. Baita graziazko eurizaparradaz barrua igurtzi eta sendotutakoa ere. Eta hori ez da egun bateko topaketa batekin lortzen; otoitzaldietan eta bizitzako ekitaldietan iritsi behar du. Jaunak esandakoa: *Galgaraua usteldu beharra da, fruitu ugari emango badu*. Ez ahaztu *Taborraldiak* ez direla *tanborraldiak*, kitarra eta guzti burutzen diren ospakizun luze eta zarata-tsua. Anaiarteko topaketak beharrezko zaizkigu, baina bizitzako nekaldian *Jesusen jarraitzaile* izaten laguntzeko.

## OTOITZA

Jesusen eta gure Aita zaitugun Jainkoa! Jesusen bitartez eskaintzen diguzu zure maitasuna. Hauxe bai dela ezerekin ordaindu ezin dugun ondasuna. Eskerrik beroenak Zuri, zure Seme Jesusengana bildu baikaituzu, Berarengan gu ere seme maitetzat hartzen gaituzulako. Bai, entzun nahi diogu Jesus zure Semeari, eta zintzoro jarraitu. Horixe da zure gogoa eta gure zorion betea.

## BERTSOAK

1

Hau zorion-egarria,  
bihotz-hondoko larria,  
non ote da iturria?  
Tabor mendiko bizikizuna  
benetan da pozgarria;  
horra nolako barria  
zeru goitik etorria,  
erne jarri belarria:

2

“Zu zaitut, ene Semea  
Zu bihotzeko maitea,  
nire atsegin betea!  
Entzun berari, jarrai berari,  
hau nire borondatea:  
Berarengana joatea  
ta denontzat izatea  
salbameneko atea.”

3

Pedro irtenda senetik  
ta zorabioz beterik  
hasi da hitzez lurretik:  
“O ene Maixu, hiru txabola  
ez al du nahi egiterik?  
Ez da leku bat hoberik,  
ez jairik ta ez besterik;  
ez daigun alde hemendik”.

4

Basamortua da gogor  
Kalbarioa ere hor,  
ta bidean zeinbat zoztor...  
Jesusentzat lez guretzat ere  
holako bat ongi dator,  
jokatu ahal daigun jator;  
ona da azukre-koxkor,  
beharrezko zaigu Tabor.



# 13

## JESUS ETA BERE SENIDEAK

### ALDI HARTAN

Zenbat bider entzun eta esaten dugun gure artean: *"Euskaldun fededun"*. Euskaldun jaioz gero, besterik gabe, nahiko delakoan, bataiatu eta eliztar izateko... Euskaldun asko dira erdaldun sentitzen eta agertzen direnak, eta erdaldun asko euskaldun, hitzez eta egitez. Odola eta izen-abizen bereziak ez dira nahiko.

Eta hori, gutxiago onartu behar dugu kristau-bizitzan. Hau ez dago gure esku, ezta kristau jator izan diren gurasoen esku ere. Jainkoaren dohaia da. Guk dohai hori eskerrez hartu eta berari dagokionez bizitzen ahalegindu behar dugu. Jesusen senide gehienak ez zuten onartu bere erakutsia eta jokabidea. Gehienak aurka jarri zitzaizkion. Jesusek beste senitarte berri bat sortu zuen, ederragoa eta zabalagoa, *Aitatzat* Jainkoa aitortzen dutenak eta Jesus Aitak bidalitako Salbatzailatzat.

"Joan zitzaizkio Jesusi bere ama eta anaia-arrebak, baina jendearen jendez ezin iritsi ziren berarenganaino. Eta jakinarazi zioten: «Ama eta anaia-arrebak dituzu kanpoan, zu ikusi nahian». Jesusek, berriz, erantzun zien: «Hauek ditut nik ama eta anaia-arreba: Jainkoaren Hitza entzun eta betetzen dutenak!»."

(Lukas 8, 19-21)

"Jesusek gauza hauek esaten ziharduela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zion: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!». Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren Hitza entzun eta betetzen dutenak!»."

(Lukas 11, 27-28)

## GAUR ETA HEMEN

Senitarte honetan ere Maria dugu lehen tokian, eta ez Jesusi bularra eman ziolako edo sabelean sortu zuelako; batez ere, Jainkoaren Hitzza entzun eta bete zuelako baizik. Eta gizaldietan zehar zenbat milioika izan diren, *senitarte* berri honetan benetako senide egin direnak! Orduan jakingo genuke *bihotzez* zer den Aita baten seme-alaba izatea eta gure artean anaia-arreba. Jesusengan osatzen doan *senitarte*!

Orain gure txanda eta aukerea da. Gaur eta hemen ere badira *elkarte txiki*etan bilduta, Jaunaren Hitzza gidaritzat dutela, senidetasun eder honen esperientzia jasotzen dutenak. Kristau-elkartean Jesusekin topo egiten dutenak. Orduan bigarren mailara jaisten dira gazte-zahar izatea, jakitun-ezjakin izatea, zuri-beltz izatea. Dena da, Hitzari toki emanaz eta Jesusen bidez, Aitarekin topo egin dutelako. Penagarria litza-teke zuk eta nik, gaur eta hemen, *txanda-pasa* egitea! Zer egin?

## OTOITZA

*Zeru-lurrak beteko Aita handi baizen ona zaitugun Jainkoa! Zer poza Zuri "Abba-Aitatxo" deitzea, Jesusek erakutsi zigunez. Mila bider eskerrik beroenak, guk merezi gabe eta pekatari ginela, Zuk zure Semea bidali diguzulako! Berak eman zigun zure berri, Berak bildu gaitu senitarte berrian. Eta Jesusen jarrai, Espiritua lagun, Zugana goaz, betiko senitarte osatzera. Eskerrik asko, Aita!*

## BERTSOAK

1

Badugu bizi berria  
Jesus Jaunak ekarria,  
Bataioan ezarria.  
Bizi berriak Jesus Bera du  
iturri ta oinarria;  
o bihotz asegarria,  
entzun nire dei larria:  
ase nire egarria.

2

Jesus Maixu Jaun abila,  
behin irakasten dabila  
ta entzuten jende pila.  
Bere ama ta senide batzuk  
datozkio bere bila  
eta bialtzen mutila,  
emanez ohar isila:  
Berengana joan dadila.

3

Hau entzunez bat-batera  
begiratuaz aurrera,  
jarraitzaileen aldera:  
“Hauetxek dira nire ama ta  
nire senide antzera:  
Hitza entzunez gainera  
betetzen dutenak bera,  
Aitatxoren esanera”.

4

Hau beste egun batean  
Maixuari entzutean,  
bihotza bete-betean:  
“Zorioneko ama zurea,  
sortu zinduen sabelean  
eta ase bularrean!  
Ba ote da ederrean  
ederragorik lurean?”.

14

## JESUS, MARTA ETA MARIA

### ALDI HARTAN

Gizakia ez da *tresna* bat, ez da *makina* bat: “*jan-lan-lo-jai*” ka baten jira eta bira dabilen kontsumoko errota bat. Horrela balitz, artogariaren aleak ez baina, norberaren burua hautsiko genuke. Itxura batean, mardul, gordin, eder; baina noizko heldu gizatasunez? Bakoitzairen ardura eta zeregina da norberaren burua landu eta gizatasunez garatzen joatea, *jubilatzeko*.

Sarritan alde batera bakarrik jotzeko tentaldian erortzen gara: *espiritualkeria* hutsera, edo *materialkeria* hotzera. Bietara garatzea da gure eginbeharra. Gizakia ez da ogi hutsez bizi, Jainkoarengandik datorren Hitzari ere toki eman behar zaio. Jaso dezagun Jesusen erakutsia.

“Bidean zihoazela, Jesus herriska batean sartu zen, eta Marta zeritzan emakume batek etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan jarrita, honen hitza entzuten zegoen.

Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Jesusengana joan eta esan zion: «Jauna, ongi ikusten al duzu nire ahizpak etxeko lan guztiak nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko». Jaunak, ordea, erantzun zion: Marta, Marta, gauza askorengatik zabiltza kezkaz eta larri; baina bat bakarra da beharrezko. Alderik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko.”

(Lukas 10, 38-42)

## GAUR ETA HEMEN

Nor eta Jesus gurera ostatu-eske? Martaren ardura zer-nola prestatuko afaritarako! Maria-rena, zer entzungo Jesusi eta nola ezagutuko bere bide berria. Martaren zalapartak ez zeukan azkenik; bitartean Maria Jesusen oinetan entzuten eta ahogozatzen. Entzutekoa Martaren *erremuskada!* “Mariak hartu dizu zatirik onena”, Jesusen erantzuna. Hori gainera! Izan ere, zeinek egin zuen benetako Jesusekin topo? Jesus mahaizalea zen; baina Bera ere beste mahai bateko janaria eskaintzera joan zen.

Pasarte hau ez da erraz eta egoki ulertzekoa. Ez *ekin* hutsean, ez *egon* hutsean, bietara jokatu behar dela, gorputz eta arimaz asetzeraz. Jesusek bere eritzia azaltzen digu: Mariak entzuten egonaz atsegin gehiago ematen diola, Martak arnasestuka prestatu dion afariak baino. Gurera etorrita, zenbat denbora ematen diogu bizitzako zalapartari eta zenbat Jesusekin egoteari? Zalapartaka bagabiltza, ezin Jesusekin topo egin. Egoten, entzuten, gogoz hausnartzen egon egin behar. Egia esan, asko eta asko gehiago nekatzen eta aspertzen dira Jesusekin egoten, zalaparta artean baino. Zer deritzazu?

## OTOITZA

Gure artean deika zaitugun Aita ona! Zuk zenbat gauza guri esateko, eta guk astirik ez Zurekin egoteko! Emaiguzu Jesusen Espiritua, Hura bezala, Zurekin bakardadean egoteko egarria gugan sor dezan. Ez zaitetz aspertu gure zain egoten. Erakutsi iezazkiguzu benetakako ondasunak, behar den beste asti har dezagun beraien bila. Zure gauzak onak dira, baina Zu hobea!

## BERTSOAK

1

Jesus Betaniara  
joan zen batean,  
jo zuen adiskide  
batzuen atean.  
Martak eta Mariak  
Jesus ikustean,  
berekin hartu zuten  
poztasun betean.

2

Lagun-giroan Jesus  
agurtu ta gero,  
biak beren lanean  
hasi ziren bero.  
Maria adi dago  
Jesusen bezero,  
lanpetutako Martak  
ez zuen espero.

3

“Zer deritzazu, Jauna,  
hau al da itxura?  
Ni hola ikusteak  
ez al dizu ardura?  
Bidal zazu Maria  
behar den lekura,  
ni hemen lanpetuta,  
bera hor olgura!”

4

“Ikusten zaitut presaz  
zabiltzala Marta,  
arnasestuka eta  
mila zalaparta.  
Beharrezkoena bat  
bakarrik behar da:  
Mariak du zatirik  
onena aparta.”

5

Gogoan har dezagun  
Jesusen eskola:  
gure betetasuna  
Beragan dagola.  
Lanaren lanez Jesus  
ez utzi inola;  
sinesten duenari  
on egin deiola.

# 15

## JESUS ETA NAINGO ALARGUNA

### ALDI HARTAN

Negarra, sufrimendua, gaixotasuna, zahar-tzaroa, heriotza... Izenik asko dauzka, giza sufrimenduak gudan sentiarazten dizkigun eztenkadak haina. Orduan egiten ditugu galderarik larrienak: *"Zergatik hau niri?"*. Eta errudun bila hasteko arriskua: hurkoa ez bada, Jainkoa Bera. Dena den, sufrimendua-ren buztarrian lotuta ematen dugu bakoitzak gure maila eta neurria.

Jainkoari axola dio gure sufrimenduak, eta ez gutxi ere. Hala azaltzen digu Jesusek: batzuetan sendatuz, bestean ondoan egonez. Gurutzea kendu ez, baina Berari jarraitzea deitzen digu gurutze eta guzti. Topaketa eragigarria gaurkoa. Naingo alargunak eta Jesusek: Biziak eta heriotzak aurrez aurre.

"Ondoren, Nain izeneko herri batera joan zen Jesus, bere ikasleak eta jende asko lagun zituela. Herriko sarrerara hurbildu zenean, hildako bat, ama alargun baten seme bakarra, zeramaten lur ematera. Herriko jende asko zihoan amarekin.

Hau ikustean, errukitu egin zitzaion Jauna eta esan zion: «Ez egin negarrik». Aurreraturik, hilkutxa ukitu zuen, eta zeramatenak gelditu egin ziren. Orduan, esan zuen: «Gazte, zuri diotsut: Jaiki!». Jaiki zen hildakoa eta hizketan hasi, eta Jesusek amari bihurtu zion.

Denak beldurrak hartu zituen, eta Jainkoa goresten zuten, esanez: «Profeta handi bat sortu da gure artean». Baita ere: «Jainkoa bere herria salbatzera etorri da». Judea eta inguruko lurralde guztian zabaldu zen gertaera honen berri."

(Lukas 7, 11-17)

## **GAUR ETA HEMEN**

Hil zena piztu eta piztu zena berriro ere hil. Jesusek ekarri diguna ez da hemen betiko bizitza, Berarekin bizi eta betiko piztuera baizik. *"Ez egin negarrik"*, hitz kontsolagarriak Jesusen bihotzetik irtenda. Inoren negarrak Berari ere negar eragiten zion. Hildakoaren amak eta lagunek Jesu-sengan Jainko Aita errukitsuarekin egin zuten topo. Gaztea lurreko bizitzara bihurtu zen eta ama eta lagunak betiko bizi berrira. Eta bizi berri hauxe zen Jesusek zabaltzen zuena, hitzez eta mirariak eginez.

Bizitzako olatu harropuztuak ez gaitzaten bakarrik harrapatu. Sufrimendu-bidean Jesusekin egin dezagun topaketa sakona, askok eta askok egin dutenez. Ez duzu ezagutu gaixoaldian bakez bizi izan denen bat, heriotzaren aurrean itxaropen gozoz agertzen denen bat? Sufritzen dugunean Jesusekin topaketa on bat behar dugu, alperrik eta modu txarrean sufritu ez dezagun. Ezin da Jesusekin benetako topaketarik egin, Berarekin batera sufritzen ez bada. Zer deritzazu?

## **OTOITZA**

*Maitasunez geure ondoan beti zaitugun Aita arduratsua! Zuk ez duzu nahi guk sufritzerik; eta sufritzen dugunean, ez gaituzu bakarrik uzten. Gure ondoan zaude gurekin batera sufritzen eta laguntzen, Jesusekin gurutzean bezala. Ahal bada, arindu edo gozatu gure gurutzea; baina ezin bada, egin bedi zure nahia, eta haretarako eman zure grazia-indarra. Eutsi diezagula Espiritu Santuak, Jesusekin sufrimenduan topo egiten.*

## **BERTSOAK**

1

Nor osatuko hor dabil beti  
Profeta Nazaretarra,  
berezkoa du errukia ta  
nonahi on egin beharra.  
Batez ere, bat gaixoa bada,  
elbarria edo zaharra,  
bihotz-erdira sartzan zaiola  
minez diranen negarra.

2

Herririk herri, auzorik auzo  
 zebilen egun batean,  
 ze ikuskizun penagarria  
 Nain herriko atean!  
 Alargun baten seme bakarra  
 zeramaten atautean;  
 Jesusen bihotz errukitsuak  
 ze pena, hau ikustean!

3

“Geldi guztiok ta jeitsi kutxa,  
 ama, ez egin negarrik!  
 Sines ezazu, Jainkoak badu  
 hau piztutzeko indarrik.  
 Zu, gazte, jeiki ta jarri zutik”  
 hauxe esanez bakarrik,  
 hil-berria zen gaztea horra  
 irribarrez ta itzarrik.

4

“Profeta handi miragarria  
 Jaunak biali diguna,  
 Jesusengan gaur agertu digu  
 errukizko maitasuna.”  
 Ama-semeak besarkatuta  
 jendearen poztasuna!  
 “Gaur bisitatu ditu Jainkoak  
 semea ta alarguna.”

16

## JESUS ETA NIKODEMO

### ALDI HARTAN

“*Sekula santan ez da borrelakorik gertatu, ezta gertatuko ere*”, esan ohi da sarri. Kontuz! Pronostiku askok huts egin dute historian; sasiprofeta askok porrota jaso dute. Gero eta aurrerago doa zientzia-bidea, eta hau pozgarria da. Gaizki dagoena, zientzialariak beraien burua jainko egitea: hortxe jotzen dute bazterra eta hor sortzen dira “jainkotxo” arteko borrokak.

“*Jainkoa haina*” izan nahia betikoa du gizakiak, Adanengandik hasita. Are gehiago: Jainkoa Bera kontrolatu eta norberaren esanera hezi nahia. Antzeko jokabidea da, erlijio-gaietan, Jainkoa lege edo errito artean katigatzea, horma sendoen barruan preso eduki nahia. “*Utzi diezagula guri gureak egiten; guk esango diogu noiz eta zer egin behar duen.*” Nikodemo jakintsuari ere horrelakoren bat suertatu ote zitzaion?



“Nikodemo zeritzan gizon batek, fariseuen taldekoa eta juduen buruetakoa bera, gauez Jesusengana etorri eta esan zion: «Maisu, ziur gaude Jainkoak guri irakasteko bidali zaituena, inork ez baititzake egin zuk egiten dituzun mirarizko seinaleak, Jainkoa berekin ez badu».

Jesusek erantzun zion: «Bene-benetan diotsut: Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada».

Nikodemok galdetu: «Nola jaio daiteke norbait, jadanik zaharra izanik? Sar ote daiteke amaren sabelean eta berriro jaio?».

Jesusek erantzun: «Bene-benetan diotsut: Ezingo da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada. Giza-kiagandik berez jaioa gizaki da, Espiritutik jaioa espiritu».”

(Joan 3, 1-6)

## GAUR ETA HEMEN

Agure bat *birjaiotzea*... ez zion makala bota Jesusek Nikodemori! Topaketa sakona Jesus eta Nikodemoren artekoa! Munduko argitara jaio den hauraren antzeko egin beharra. Argi dago: Espirituak lagundu ezik, ez dago aldaketa hau egiterik, ezta Jesusekin benetan topo egiterik. Jainko-bizitzaren itsasoan Espirituaren arnas eta guzti sartu behar da, bestela ito egiten da.

Buru-bihotzen era bateko aldaketa hau Jesusekin topo egiteak dakar. Berarekin mundu berri bat aurkitzen da, bertatik dena beste era batera ikusten da. Gure jakituriaren kalkulu eta kontrolak albora utzi behar dira, eta *biluzik* eta *ortozik* sartu bere aurrera. Zein maitagarriak eta maitekorrak diren Espirituz birjaiotako gizon-emakumeak! Sar gaitezen bizi berrirako prozesuan, badira han-hemen horretarako kristau-elkartetxo egokiak. Zuretzat da *loteria*, zuk jokatu behar duzu.

## OTOITZA

Zeure antzeko semetzat sortu gaituzun Aita samurra! Ematekoak eman dizkiguzu, Jesus ematerakoan. Eskerrik asko, Aita, zeureak gaituzu osorik. Guregan bizi nahi genuke, "Zu guregan eta gu Zuregan" bizi izatearen zoragarritasuna. Egarri hau guregan sortu duzun Horrek, ase ezazu Espirituaren bidez zure Seme eta gure Salbatzaile Jesusengan.

## BERTSOAK

1

Jakintsua ta agintaria  
Nikodemo agurea,  
Bazeukan Jesus nor zen ikusi  
ta ezagutu gurea.  
Hain jainkozale zena  
doa Jesusengana,  
horra bere ardurea:  
"Zu al zaitugu etortzekoa  
den Salbatzaile gurea?"

2

"Bai, pozgarria da, Nikodemo,  
gaurko zure jakin-mina,  
baina bizira birjaio ezik  
hori bai dela ezina!  
Gizona naiz aurpegiz,  
Jainko Semea egiz,  
berdina den desberdina...  
Hau ulertuko zenuke egiz  
ai, birjaioko bazina!"

3

"Bat jaiotzatik hasita gora  
hiltzen doa egunero,  
nola daiteke berriro jaio  
behin aguretu ezkeror?  
Amaren sabelera  
joan behar atzera,  
eta handik jaio gero?  
Norentzat dira Zuk dakarzkizun  
erreinu eta jenero?"

4

"Nire Erreinuan sartzea ez da  
gizonaren meritua,  
hori iristeko behar da egon  
bihotzetik berritua.  
Gizonak bai ikusi,  
baina Aitak erakutsi  
Nigan dagoen sekretua.  
Berak nahi duen harek hartzen du  
Aitaren Espiritua."

# 17

## JESUS ETA HAMAR LEGENARDUNAK

### ALDI HARTAN

Gaixoa, zaharra, ezindua, behartsua ahale-ginez baztertu egiten da gizarteko martxatik; bizimoduko martxan atzera-aurrera dabilzantzat traba dira. Eta hori, gaixoaren eskubide eta guzti. Gainera, zer jango, zer irabaziko, nola atseginez aseko dabilzanei zer pentsatu eta zer egin asko sortzen zaizkie. Gure artean aspaldion *aurrerapen* handiak egin dira, gaixo eta zaharren zerbitzurako: botika hobeak, ospitale egokituak; eta erresidentzia batzuk bai! Baina, ahal dela, etxetik kanpo.

Jesusen aldian, legenardunak eta antzeko gaixoak pekatarizat zituzten. Jainkoak zigortuztat, beraien edo beraien gurasoen pekatuengatik. Zer egin? *Jainkoaren izenean* mendietara baztertu, eta han, Jainkoaren eta gizonen eskutik utzita, zoritxarpean azkenari begira egon. Gaurko hamar legenardunak bai ondo ezagutu zutela Jesus! Jesusek iragartzen zuen Jainkoa ez zen horrelakoa:

“Jerusalenera bidean, Samaria eta Galilean barrena zihoan Jesus. Herri batean sartzera-koan, hamar legendun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!». Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren.

Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainko deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahozpe erori zen, eskerrak emanez; samariarra zen bera.

Jesusek esan zuen: «Ez ote dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziak? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?». Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu.»

(Lukas 17, 11-19)

## GAUR ETA HEMEN

"Jesus maixu, erruki zakizkigu!" Jesusen bihotzarentzat dei dardaragarria! Eta, besterik gabe, osasun-bidean ipini zituen. Gaixoa laguntza-premian dagoela jakitea nahiko da, bere ahalmen guztia maitasunez eta errukiz agertzeko. Zer lege eta zer ohitura, premian dagoena pertsona bat da, Aitaren semea, alaba. Bestelako Jainkoarekin topo egin zuten Jesusengan hamar legenardunok! Ez gorputzez bakarrik, gogo-bihotzez ere sendaturik gelditu ziren.

Jesus Hurak gaur ere "*sendagile*" jarraitu nahi du, eta hamaika *senda-gozatu* ditu, batez ere buru eta bihotz! Egon, nor ez dago gaixo eta makal arazo astun askoren aurrean? Barru eta kanpo sendaturik dagoenak daki bakarrik Jesus nor eta nolakoa den. Jesusekin aurretiaz topo egindakoak dira bakarrik "*sendagile*", "*salbagile*" Jesusen izenean. Zeinbat lepradun gaur "*sendagile*" zain gure artean! Jesusekin topo eginaren *ezaugarri* horixe da: Bere antzera "*sendagile*" izatea beste askorentzat.

## OTOITZA

Jesusen bitartez hain errukitsu eta maitakor azaldu zakizkigun Aita ona! Erruki zakizkigu guri ere! Senti dezagun Jesus guretzat ere "*sendagile*" dela, zure seme-alaba bati dago-kion erara bizitzeko ditugun "gaitzetik" atera gaitzan. Zure Semearen antzera, besteren gaixo-gaitzak gudan hartu eta bizi ditzagun. Zure "Aita-aurpegi" eta "bihotza" ezagutu dezatela beharrizanean daudenak. Gure egitada onak ikusita, goraldu zaitzatela Zu Aita.

## BERTSOAK

1

Elkarrekin zebiltzen  
hamar legenardun,  
gizartetik botata  
mendietan urrun.  
Jesus bazetorrela  
pozik dute entzun,  
eta Berari deika  
gogor dute jardun.

2

“Ene Jesus Maixua,  
errukiz betea,  
legenak jota gaude  
erruki zaitea!  
Alperrik da eskean  
inora joatea,  
izan gutaz erruki  
ta borondatea.”

3

Bidean zijoaztela  
a zer zoramena!  
Garbitzen joan zaie  
zeharo legena.  
Ikusirik lortuta  
eskatzen zutena,  
beren bidetik doaz,  
hauxe da txarrena.

4

Hamarretik bakarra  
dator eskerronez,  
“Ta besteak non dira?”  
Jesusek dionez.  
Mesedeak hartuta  
eskerrik eman ez?  
“Zoaz, fedea osa  
zaitu zorionez.”

18

## JESUS ETA PERLESIADUNA

### ALDI HARTAN

Bai, betiko aldietan! Gizaki erdikinak ugari, oso-osokoak urri. Azal-itxurak zaintzen ardua asko, barruak garbi zaintzen gutxi. Beti ere, aberats handikiek ahalbide gehiago dute, azal-itxurak eder eta egoki zaintzeko, behartsuak baino. Txikiak ez dauka nola disimulatu; arra-noa goiko harkaitzetan seguru.

Pekatu ere, norik egiten du pekatu? Gehienetan behartsuak; handi-mandiak beraiek jartzten dituzte, nahi duten erara, txarraren eta onaren neurri eta mugak. Jainkoaren aurretiko beste kontu bat da. Aita Jainkoa Jesusengan gizakiz jantzita azaldu zenean, pekatari azaldu zen, pekatariekin nahasten baitzen, eta pekatari bezala gurutzera kondenatua izan zen. Jesusek gizakia osorik sendatu nahi du, “*santukeriak*” alde batera utzita.

“Jesus, txalupara igo, lakuaz bestaldera igaro eta bere herrira etorri zen. Elbarri bat ekarri zioten, ohatilan etzana. Jesusek, lagun haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Izan bihotz, seme! Barkatuak dituzu pekatuak».

Orduan, lege-maisu batzuek hau zioten berekiko: «Biraoka ari duk Hau».

Haien gogoetak igarririk, Jesusek esan zien: «Zergatik dituzue gogoeta gaizto horiek zeuen baitan? Zer da errazago: “Barkatuak dituzu pekatuak” esatea ala “Jaiki eta zabiltza” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan pekatuak barkatzeko ahalmena».

Eta esan zion elbarriari: «Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera».

Hura jaiki eta etxera joan zen. Hau ikustean, beldurrak jota gelditu zen jendea eta Jainkoa goresten zuten, gizakiei horrenbesteko ahalmena eman zielako.”

(Mateo 9, 1-8)

## GAUR ETA HEMEN

Harrera gozoa, maitekorra Jesusek gaixoari egiten diona: “*Izan bihotz, seme! Barkatzen zaizkizu zure pekatuak*”. Horretarako aurrez beraien sinesmen sendoa ikusi zuen. Gaixoak, behartsuak errazago hartzen du barkamena, makal sentitzen baita. “*Barkatzea*”, ontzat hartzea, errukitsu izatea, gutxiren jarrera da; Jainkoarena eta bere Espirituak eraginda dabilzanena. Besteentzat *biraoa* da. Betikoa: gauza berdina ikus-entzun, eta txikiek Jainkoa goratzen dute, “*santu*” eta handikiak birao-laritzat hartzen.

Orduan eta gaur, beti dira *perlesiadunak*, osasun eta maitasun bila dabiltzanak. Jesusek badu, ba, errukia eta ahalmena! Baina “*kamileruak*” behar ditu gaixoak eta behartsuak Berarengana hurbiltzeko, bitarteko errukiorrak. *Kamilerurik* ez bada, ezin sendatu gaixogaitzik. Bai bokazio ederra “*kristau kamileru*” egitea! Jesusekin topo egin duenak behingoa hasten da *kamileru*, inork esan gabe. Jesusekin topo egiteak gaixoarekin topo egitera darama.

## OTOITZA

Hondorik gabeko errukizko itsaso zaitugun Aita!  
Benetan, zenbat maite gaituzun bageneki,  
zorionaren zorionez hil egingo ginateke. Zuri  
"Gure Aita" deitzean, guztiei anaia-arreba dei-  
tzea nahi nuke, batez ere gaixo eta behartsuei.  
Emaiguzu zure Espirituaren dohaia, Zuk Jesu-  
sengan agertu diguzun erruki eta maitasunaren  
ugaritasuna anaia-arreba gaixoen artean bana-  
tzeko. Bihur nazazu "kristau kamileru", zure eta  
beste askoren arteko bidea erakutsiz eta egiten  
lagunduz. Nirekin egin duzuna beste askorekin  
ere egin dezazula nahi dut.

## BERTSOAK

1

Egun batean Jesusengana  
dakarte perlesiaduna,  
ongi dakite Jesus benetan  
dela gaixoen laguna.  
Eta behingoan errukitu zen  
Jesusen bihotz biguna  
eta opatu zion arima  
ta gorputzeko osasuna.

2

"Sines ezazu eta barkatzen  
zaizkizu gaur pekatuak."  
Hango marmarra ta iskanbila  
fariseu garbi santuak:  
"Hau biraoa entzun duguna,  
hori bakarrik Jainkuak;  
dudarik gabe, gizon hau dago  
itsututa deabruak".

3

"Aitaren gauzak ezagutzeko  
hori da bihotz gogorra!  
Nik badudala eskubidea  
ikus dezazuten, horra:  
«Zuri diotsut: Jeiki ta zoaz!»."  
Harek bai salto bizkorra!  
Gorputz-arimaz biziberritan  
gizaki gaixo lehorra.

4

Hau ikusita, jende guztia  
bihotza pozez beterik:  
"Jainkoak Berak lagundu ezik,  
hau ez dago egiterik".  
Fariseuak lotsagorritan  
ez pozik ta ez bakerik;  
ikusi nahi ez duenak ez du  
ezer onik ikusterik!

## 19

## JESUS ETA ODOL-JARIODUNA

## ALDI HARTAN

Gizona gizon da, ez jainko. Baina hain da Jainkoaren antzeko, jainko izan nahia da bere betiko tentaldia. Eta erraz jan ohi du debekatutako *sagarren* bat, bere gizontasuna ere arriskuan jartzen duelarik. Aurrerapenak arrisku hau handiagotu egiten dio; ez luke horrela izan behar, benetako *aurrerapena* balitz. Eta handi izan nahi honek ondoren latzak ekarri ohi dizkio.

Jainkoa Jesusengan egin zaigu gure antzeko, pausoz pauso eta hurbil-hurbiletik erakusteko zer den *gizon-gizon* izatea. Noski, horretarako sinesmen-argia behar da, gure begi hutsez ikusi-ezineko mundua da. Sinesmen-argira, *handi* izatea beste gauza bat da; gehienetan dena kontrara; *bateko handi, besteko txiki*. Gaurko emakume gaixo, apal honek badu zer erakutsi.

“Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan odoljarioz zegoena. Hamaika sendagileren eskutan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrako zihoan. Jesusi buruz esaten zena entzunik, jendartean atzetik joan eta jantzia ukitu zion. Honela baitzioen berekiko: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odoljarioa gelditu egin zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean.

Berehala antzeman zion Jesusek bere baitatik halako indar bat atera zitzaiola eta, jendartean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?». Bere ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi eta nork ukitu zaituen galdetzen duzu?».

Baina Jesus ingurura begira zegoen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, belurrez dardar —ondo baitzekien zer gertatu zitzaion—, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Jesus honela mintzatu zitzaion: «Ene alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza».”

(Markos 5, 25-34)



## GAUR ETA HEMEN

Emakume errukarriak zituen guztiak eralgi zituen osagilez osagile. Jesusengana hurbiltzean, ez da diru-konturik azaltzen: "Soineko ertza behintzat ukitzen badiot...". Sinesmenaren indarra da dena. Jesusen inguruan ibili eta Berari ukitu, askok egiten eutsien, baina sinesmenez ukitu, batek bakarrik: ezkutuan, isilean, soineko ertzean, apaltasunean. Hitz kontsolagarriak Jesusek esan dizkionak!

*Egitada txikiak fede handiz*, hor dago sekretua. Zarataz, harrokeriaz eta plantaz ez dugu ezer aterako Jaunaren bihotzetik. Kristau-bidean, ikusten denez, andrak, alar-gunak, pobreak, gaixoak direla gehienak? Ez da harritzekoa, hori da Jaunaren aukera. *Handian* ez dio inork irabaziko, *txikian* jokatu behar. Badira gorengo mailatan jai eta ibilitakoak, baina *jaitsi* egin behar izan dute, Jesusekin topo egiteko. Aldaketa hori beti sortzen da bakardadean, isiltasunean, apaltasunean. Nola egin Jesusekin topo? Horra gaurko biderakusle apala.

## OTOITZA

Zure ahalizatez "Aita", baina guri diguzun errukiz "Ama" zaitugun Jainkoa! Gauza txikietan zara Zu handiena, errukian indartsuena. Gauza denak dira Zu estaltzen zaituen zapi-txoak: gaixotasuna, zahartzaroa, ezintasuna... Gehitu gure sinesmen-argia, estalkitxoaren bestaldean zauden Aita ona, Zu ezagutu, eta "pertsona" eta "egintza txikietan" Zu zerbitzatzeko.

## BERTSOAK

1

Andre baten kontua  
esatera noa:  
Hamabi urte luzez  
gaitz txar batek joa.  
Medikurik mediku  
ibilitakoa,  
etxe ta auzokoak  
gastatutakoa;  
eta ezin osatu  
odol-jarioa.

2

Hona non entzun duen  
Jesusen izena,  
eta Beragan piztu  
zaio sinesmena:  
“Ikutuko banio  
soineko barrena,  
osatuko nintzake  
ahal den azkarrena,  
Jesusek berez dauka  
behar den ahalmena”.

3

“Jakín nahi nuke zeinek  
nauen Ni ikutu.”  
“Ez al zaituzte, Jauna  
milakak estutu?”  
Graziz osatu dena  
nahi du ezagutu.  
Horra bere oinetan  
ahozpez eta mutu;  
osatu dena ez da  
eginez damutu.

20

## JESUS ETA IKASLEAK AURREZ AURRE

### *ALDI HARTAN*

Itxuraren jabe izatea ez da beti erraza: *itxurak egitea*, askoz ere errazago. Gorputzez edo izakeraz on-itxurak ez datoz sarri batera azalean eta sakonean. Batzuetan itxurak ematen duen baino hobeak gara; baina gehienetan, besterantza.

Azalez itxurak egitea ez da nahiko, zoriontsu izateko. Barruz bizi duguna azaltzen denean gauzatzen da egia. Zer esan, Jesus Gure Jaunari buruz? Ahalegindu zen, ba, barruz eta izatez nor zen azaltzen. Huraxe bai izan zela azalez baino gehiago barruz! Ez zitzaien erraz izan Hura nor den ezagutzea. Bi *ertzak* aipatzekotan: batzuentzat Jainko Semea, besteentzat deabru-kumea, iraultzailea, burutik jota zegoen ameslaria... Zenbat buru, hainbat aburu.

“Feliperen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien Jesusek bere ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?».

Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek galdetu zien: «Eta zuek, nor naizela diozue?».

Simon Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorioneko zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta Nik hau diotsut: Pedro zara zu, eta harkaitz horren gainean eraikiko dut nik neure Eliza; eta herioaren indarrak ere ez du menderatuko. Jainkoaren Erreinuko giltzak emango dizkizut; zuk mundu honetan lotua zeruan ere loturik geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua zeruan ere askaturik geldituko da».

Orduan, bera Mesias zela inori ez esateko agindu zien Jesusek ikasleei.”

(Mateo 16, 13-20)

## GAUR ETA HEMEN

Norbait ezagutzetik dator hari buruzko eritzia, jarrera eta jokabidea. Gauza berdina ikusi, entzun eta hala ere: honek harrika eta harek txaloka hartzen dute; bati pekatuak barkatzen zaizkio eta besteari bihotza gogortu. Eguzki berberak *buztina* gogortu eta *argizaia* bigundu. Jesus ezagutzea —bere sakonean— ez da inoiz gure esku egon: “*Aitak azaldu behar digu*”. Eta nori eta nola azaltzen dio Aitak bere Semea?

Jesus Bera haragiz ezagutu zutenen artean hainbeste eritzi zeunden; eta gaur? Gu kristauon artean zenbat eritzitako jendea ote gabiltza? Nolako eritzia, halako jarrerak eta harremanak bai Jainkoarekin eta bai elkarrekin. Halakoak sakramentuak, elizkizunak eta eliz-bizitzako joan-etorri guztiak. Jesusen gaurko galdera zuzenean datorkigu gaur guri: “*Eta zuek, nor nazela diozue?*”.

## OTOITZA

Zure Semea gu salbatzera bidali diguzun Aita Jainkoa! Emaiguzu ezagutzera Jesus Jauna. Zuk nahi duzu eta guk behar dugu. Bera ezagutuz, Zu ere ezagutuko zaitugu. Gure eritzi-meritzi guztien artean argitu eta zuzendu gaitzazu. Badakigu, Aita, ezagunago eta maiteago izango duguna; maiteago, eta bere antzekoago. Jesusen izenean eskatzen dizugu.

## BERTSOAK

1

Jesus bata ta bestea dela  
iritziak bala-bala,  
ez da erraza ezagutzea  
bere barren ta azala.  
Gaur gizon lez tatarrez,  
bihar jaingo-indarrez...  
Handia eta apala.  
Horra galdera: "Ea, jendeak  
zer dio: Ni nor naizala?"

2

"Honek Elias ote zarean,  
horrek Jeremias-edo;  
hark piztu den Joan Batailaria,  
profeta edo antzeko.  
«Eta zuen ustetan  
zer duzue pentsetan  
gaur egia esateko?»  
Zu Jainkoaren Mesias zara",  
Pedrok dio bat-bateko.

3

"Eta Nik zuri hauxe diotsut:  
Zu zara Kefas «Harria»,  
esan duzuna ez duzu esan  
odoletik ekarria.  
Aitatxok erakutsiz  
Espirituzko argiz  
bihotzean ezarria;  
giltz eta guzti, zu jartzen zaitut  
Elizaren oinarria."

4

Jainko Semea agertu zaigu  
giza jantziz pobreziaz,  
guztiahalduna gure antzeko  
ezinaren gabeziak.  
Jesus nor den guretzat  
jakiteko bide bat:  
goiko grazi bereziak.  
Gurutzean hil ta berpiztu dena,  
hori bai dela Mesias.

## 21

### JESUS ETA HAURRAK

#### ALDI HARTAN

Diotenez, ez dago txikirik *zoroen* artean; denak Napoleonetik gorakoak. Haurrek ere laster hartzen dituzte handi-plantak. Gaurkora begiratuta, denok ote gaude, ba, zoro? Agerrian edo isilean, eskuz edo bihotzez, denok *eskaileran* gora! Gaitzena, norberak gora egiteko, bestea behera bota behar.

Jesus ez da maixu txarra. Gu barru-barrutik ezagutzen gaitu. Berak ere handi izateko bidea erakutsi digu; baina *eredutzat haurra* aurrean ispilu bezala jarrita: "*baurrentzat eta antzekoentzat da zeruetako erreinua*". Hau da: gizona bere *tamainara* iristeko bidea. Jesus haur artean gozaten, eta ikasleak, haserretuta, haurrak uxatzen. Gaurko ataltxoak ispilu ederra, bere aurrean bihotz-zabalik, nondik nora gabilzan ikusteko.

"Beste batean, haurrak eraman zizkioten Jesusi, uki zitzan; ikasleek, berriz, haserre egiten zieten.

Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen, eta esan: «Utzi haurrei Niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko».

Eta haurtxoak magalean hartu eta bedeinkatu egiten zituen, eskuak ezarriz."

(Markos 10, 13-16)

## GAUR ETA HEMEN

Zeruko atea estua eta txikia omen da. *Egin duenak daki eta dio*. Sartu nahi dugunoi bere tamainan ibiltzea dagokigu. Gaur ere bai? Beti neurri berdina, beti eta denentzat. Haur baten tamainakoa izatea litzateke onena, baina *umekeriari* gabe. Umekeriak utzi eta *umetasunean* bizi. Buruz eta bihotzez garbi eta tolestura gabekoak izanik. Izan ere, gizonik handiena ere zer da bestek baino gehiago? *Edukitzea, jakitea* da bat, eta *izatea* beste bat. Jesus handia —*Jainko Semea*— txiki egin zen, gurutzeraino; eta Aitak zeru-lurren Jaun eta Jabe egin.

Egia esan, hau *filosofia xelebrea* da gaurko munduan. Hauxe bai dela zoro egitea! Bai, baina jakinaren gainera. Hori Jesusekin topo eginez lortzen den jakituria da. Kristau dela esan, eta haizeak nora hara ibiltzea, hori bai dela *zoroarena* egitea! Azaleko erlijiotasuna ez da nahiko, kristau-bide jator hau hartzeko; buruak *mundukerietatik* hustu eta Jesus ez bere ebanjelioz betetzea beharrezkoa da. Orduan bai, mundu harro eta azal hutsaren aurrean zoro azaltzea *seinale ona* da. Ez ala?

## OTOITZA

*Bihotz beteriko Aitarik Aitena! Haur egin zen Jesusengan gu ere zure haurtzat har gaitzazu. Ezin Zuri "Aitatxo" deitu, gu "haurtxo" izan eta sentitu gabe. Grinen eta inguruaren eraginen indarrez, sarri egiten dugu nahi ez duguna, eta ezin duguna bilatzen dugu. Garbitu gure bihotza, zuzendu gure grinen egarriak zure seme-alaba bezala bizi gaitezen. Gu zenbat eta haurrago, Zuk maiteago izango gaituzula jakinik, Espirituaren dohaiez zure gogoko haur bihurtu gaitzazu.*

## BERTSOAK

1

Umea eta usoa  
a ze bikote gozoa!  
Beren ispiluz, Jaunak damaigu  
bere eskola osoa:  
Ume antzeko diranentzako  
da goiko paradisoa.

2

Jaun handiago ezina,  
Belenen Ume egina:  
Zapi mantarrez bilduta dago  
ume txiki pospolina...  
Bera beste gu ginake ere  
goitik jeitsiko bagina.

3

“Nor ote da handiena?”  
Gizonen betiko tema.  
Jesusek beti neurri bat dauka:  
ume-jarrera ta sena;  
Jaungoikoari deitzen diona  
“ene Aitatxo” izena.

4

“Alde ume mukizua!”  
Pedroren haserre-sua.  
“Utzi umeei nireganatzen”  
berotu baitzen Maisua:  
“Berena baita nire Erreinua,  
jaso ongi abisua!”.

5

Gaurko irakaskizuna  
Jesusek eman diguna:  
Zertan dagoen gizonarentzat  
egizko handitasuna:  
gizonkeriak albora utzi  
eta hartu umetasuna.

6

Bateko astakeriak,  
besteko txakurkeriak...  
Holakoetan ibiltzen dira  
pizti eta aberiak;  
tokatzen ez den legez bagabiltz  
hortik datoz aberiak.

22

## JESUS ETA KAFARNAUNGO KAPITAINA

### *ALDI HARTAN*

Jainkoak bakarrik ezagutzen du gizonaren barrua, bakoitzak norbera baino hobeto. Guk erraz jartzen ditugu mugak eta hesiak, gizonak moltzoka banatuz: Kristau eta ez-kristauak, ezker eta eskuinekoak... Ez dago mugarik, ez adinik, ez besterik ezer Jainkoaren Espirituaren eragina kontrolatuko duenik. Denen gainetik eta denen barruan ari da bere bideak egiten.

Jesus Bera izan zen, gizartean sortzen diren hesiak eta mugak apurtzen aparta. Eta nolako zama astunak kendu ere askoren bizkar gainetik! Lege eta enparauak gizonari laguntzeko dira, ez traba eta kate izateko. Denak dira onak edo txarrak, gizonari on edo kalte egiten dien neurrian. Gaurko kasuan, horregatik, Hura ere harriturik azaltzen zaigu, erromatar kapitainaren sinesmena ikusita.

“Jesus Kafarnaun herrian sartu zenean, erromatar ehuntari bat hurbildu zitzaion erre-guka: «Jauna, elbarri eta oinaze gorritan dut morroia etxean».

Jesusek esan zion: «Neu joango naiz sendat-za».

Ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko; aski duzu hitz bat esatea, nire morroia sendatzeko. Neuk ere, mendekoa izanagatik, soldaduak ditut mendean, eta batari joateko agintzen badiot joan egiten da, besteari etortzeko agindu eta etorri, morroiari zerbait egiteko esan eta hala egiten du».

Hau entzutean, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkionei esan zien: «Benetan diotsuet: Israel guztian ez dut aurkitu horre-lako sinestedunik. Egia esan, asko etorriko dira sortalde eta sartaldetik, Abraham, Isaak eta Jakobekin Jainkoaren erreinuko mahai-kide izateko; erreinuaren oinordeko zirenak, berriz, kanpora, ilunbetara, botako ditu Jainkoak. Negarra eta hortz-karraska izan dira han».”

(Mateo 8, 5-12)

## GAUR ETA HEMEN

Praile baino lehen kristau; kristau baino lehen gizon. *Lebenen* hau eta *gero* hori, ala biak batera? Ahal da izan bata, bestea gabe? Kapitaina erromatar zapaltzaileen artekoa da, militarra; baina gizon ona eta ongilea, bere mendeko baten gaixotasunaz arduran, Jesusengana joan da. Bere giza esperientziatik hasita, Jesus Jainko Seme denez, askoz gehiago dela aitortzen du: Bat, ea bera nor den Jesus bere etxera joateko? Bi, ez daukala joan beharrik; bertatik aginduta ere nahiko dela.

Horra, Jesusen esanez, Israelgo fededunen artean ere hainbesteko sinesmenik ez du aurkitu. Kapitaina Espirituaren argiz lagundurik, orain Jesusekin topo eginik, ez da tengu txarra betiko kristau zaharrontzat. Gure kristautasuna, lehenengo eta bat, on egitean oinarritu behar dugula, errukizko egintzak direla biderik onenak Jesusengan sinesten dugula azaltzeko. Hori gabe ez dago Jesusekin benetan topo egiterik.



## OTOITZA

Gizaki guztien Aita zaitugun Jainkoa! Guk Zuri ere hesiak ezarri nahi izaten dizkizugu sarritan. Zu denen ondoan zaude, alduen daudenen ondoan ere bai. Bakarrik ibiltzen uzten diguzu, jausi-jagika sendotu gaitezen, gizaki heldu izatera iritsi arte. Beti argi egin eta eskua ematen dizkiguzu maitasun handiz. Zabaldu gure bihotz estuak, Aita, Zeuk bezala denak onartu ditzagun. Egizu, on eginez, denentzat Zuganako bide eta lagun izan gaitezen.

## BERTSOAK

1

Gaur dugu Kafarnaungo  
gizon kapitaina,  
bere zerbitzari bat  
gaixorik zeukana.  
Haren osasuna zen  
kezkutzen zuana,  
bere alde erreguz  
doa Jesusgana.

2

“Entzun eidazu, Maixu,  
nire eskaria,  
oso gaixorik daukat  
nik zerbitzaria.  
Bere alde eskatzen  
dizut miraria,  
horrela bada behintzat  
zure guraria.”

3

“Oraintxe bertan noa  
Neu zure etxera,  
zuk hain maite duzuna  
guztiz osatzera.”

“Nor naiz ni Zu etorri  
zaitezen gurera?  
Esaizu hitz bat eta  
nahikoa da bera.”

4

“Hori da sinesmena,  
kapitain jentila!  
Eta zure otoitza  
sendo ta umila.  
Eskatu duzun dena  
gertatu dedila,  
osatuta daukazu  
etxeko mutila.”

## 23

## JESUS ETA ZAKEO

## ALDI HARTAN

Gure bizitza misterioa da; ez gara gure eskuko; ekarri eta eraman egingo gaituzte. Eta munduan ere erabiliak gara sarri askotan. Eta gutxien uste denean, *ezustekoak* irtetzen digu biderdira. Gaur badakigu non gauden, eta ez jakin bihar-etzi non egongo garen. Mendia ez, baina gizona aldakorra da. Gaur olatu gailurrean bagabiltza, kontuz, beherantzakoa laster dator eta. Ez da inor onik, txarrera jo ezin daitekeanik; ezta alderantziz ere.

Aldaketa asko beraien bila ibili ondoren datoz, beste asko bila ibili gabe. Jaunaren Espiritua ere hor dabil, gutxien uste denean *brist* argi-izpia bihotz erdira. Bihotza aldatzean, gizakia ere aldatu. Lotan ere Jauna gure bila dabil; ilunetan ere bila. Gu iheska gabiltzan orduan ere, Hura gure bila. Azken orduan ere bila. Berak ez du inor galtzen, norbera galtzen da, okerrean gogortuz. Gaurko Zakeorena entzun ondoren, zer esanik izango dugu.

“Jesus Jerikon sartu eta herrian barrena zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-burua, oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen, baina ezin zuen jendearengatik, txikia baitzen. Lasterka aurrerago joan eta pikondo batera igo zen, Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen. Jesusek, hara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta».

Jaitsi zen, bada, berehala eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Pekatori baten etxera joan duk ostatur». Zakeok, berriz, zutiturik, Jaunari esan zion: «Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei ematen dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot».

Jesusek esan zion: «Gaur iritsi da salbamena etxe honetara, gizon hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».”

(Lukas 19, 1-10)

## GAUR ETA HEMEN

Zakeo *zergalaria* zen; bere aldikoentzat ageriko pekataria: hurarentzat ez zerurik, ez barkamenik. Jesusek, ikusiaz batera, bizi berri-rako atea irekitzen dizkio: "*Zakeo, jaitsi hortik; gaur gauez zure etxean hartu nahi dut ostatu*". Zer, orain arte erlijio-lekuetatik kanpo ibili den baten etxera Jesus? Jesusek bere etxean baino lehen, Espirituak tokia hartu zuen bere bihotzean. Nork lagundu zion, ba, piko gainera igotzen? Zakeok bai topaketa gozoa Jesusekin gau haretan!

Jesusekin topo egitean, bizi berria, martxa berria Zakeoren buru-bihotzetan. Handik aurrera diruak baino gehiago balio duten ondasun ederragoen bila hasi zen. Lehengo ondasunetatik erdiak eta gehiago banatzeko prest, Jesusek erakutsi zizkionekin jabetzearen. Zer entzun eta bizi izan ote zuen Zakeok Jesusen ondoan gau hartan? "*Gaur sartu da zoriona etxe honetan.*" Horixe da Jesusekin topo egitean datorren *loteria*. Aprobata dezagun.

## OTOITZA

*Beti gure zain zauden Aita errukitsua! Hauxe da aukera ederra Zurekin egoteko eskaintzen diguzuna! Zure isiltasuna bera ere niretzat grazia-iturri bihur ezazu. Badakit Zuk isilean ere hitz egiten dakizula. Erakutsi iezadazu isilik egotea ere maitasunez egiten duzula. Nahiz isilik egon, nahiz hitz egin, Zu beti zara Aita, eta dena geure onerako egiten duzu. Dena den, eskerrik asko Zuri, eta bedeinkatua Zu, Aita!*

## BERTSOAK

1

Bazen Jerikon gizona  
Zakeo zeritzaiona,  
txikia zen ta basapikora  
laisterka igona.  
Nor ote zen Jesus ona  
luzaro baten egona,  
pozez entzun du Jaunak berari  
esaten diona:

2

“Jeitsi zaitez hortik behera  
ta zoaz arin etxera,  
jakizu, gauez zugana noa  
ostatu hartzera.”

Hau pozgarrizko aukera,  
ustekabeen gainera!  
Gauez gurera dator ostaturuz  
nor-ta Jesus Bera.

3

“Ongi etorri nigana,  
zurea da daukadana.”  
Zakeok pozik Jesus Jaunari  
atean esana.

“Kaltetan egin dudana  
lautan ordaintzen dut dana,  
behartsuekin nahi dut guztia  
egin erdibana.”

4

“Zakeo, hau poztasuna,  
gaur zuk eman didazuna!  
Gaur heldu zaizu zure etxera  
zoriontasuna.

Hori da askatasuna,  
egiazko ondasuna;  
ez zaizu inoiz damu izango  
gaur egin duzuna.”

24

## JESUS ETA ZEBEDEOTARRAK

### ALDI HARTAN

Gizarteko bizitza berez eta beti da *barremanetakoa*. Baina zer harreman, gero? Hartu bai, eta eman zer? Dena *trukean*, salerosian: zuk horrenbeste, nik honenbeste. Zein zaila eta gutxiren jokoa den dohaintasunezko, maitasunezko, borondatezko harremana! Izan, horixe da gizatasun eta kristautasun helduaren ezaugarrietatik bat.

Jesus gure Jauna, bere izatean eta egiteetan, *besteentzako gizona* da oso-osoan; bizia emateraino, izan ere. Gu nola egiten gara kristau? *Bataioz*, ezta? Bai, baina ez! Bizikeraz erantzun ezik, zer? “*Mezako*” deitzen zaio *meza-truk* egiteari, hiletetan eta. Santu-santek zenbat horrelako ote dakite! Ea zer deritzazun ataltxo honi:

“Zebedeoren emaztea bere semeekin Jesusi hurbildu eta aurrean ahozpeztu zitzaion eskabide bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?».

Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, Zu errege izatean, bata zure eskuinean eta bestea ezkerrean jar daitezela».

Jesusek erantzun: «Ez dakizue zer eskatzen ari zareten. Gauza al zarete nik edan behar dudan edari saminetik edateko?».

«Bai, gauza gara» —esan zioten.

Jesusek, orduan: «Nire edari saminetik edan, bai, edango duzue; baina nire eskuin- ezkerretan eseri ahal izate hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, bi anaien aurka haserre jarri ziren. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Dakizuenez, herrietako buruzagiek mendean hartzen dituzte herriok, eta handi-mandiek beren agintea ezartzen diete. Zuen artean, ordea, ez du horrela izan behar. Zuen artean handien izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari. Eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi guztion morroi. Gizonaren Semea bezala: hura ez da etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik, bere bizia guztien alde ordainsaritzat ematera».”

(Mateo 20, 20-28)

## GAUR ETA HEMEN

Bi gazte horien amak bai bihotz zabala! Bai, baina altzoa zabalago: *Kolkotik bota eta altzora erori*. Eman, baita bi semeak ere; baina bere ondorengo lekurik onenak hartzekotan. Horrela balitz, orduan bai seminarioak beteta! Jesusek *kaliza* eskaintzen die: Hurarekin batera nekeminetan, eta Hurarekin batera geroko atseginetan. Topaketa asko behar dira, benetako Jesus ezagutu eta bere jarraitzaile bihurtzeko.

Hala ere, orduan eta gaur uste baino *borrondatezko ekintzaile* gehiago dago jendar-tean: zenbat laiko etxean, auzoan, ikastetxeetan, lantegietan jo eta su on egiten! Irautea da kontua, zailena. Horretarako Jesusekin topo egin behar eten gabe, gero eta sakonago. Huragan dagoen Espirituak garbitzen eta sendotzen du gizakia, eta denik eta indartsuena egiten. Kontaitzazu horrelakoren batzuk.

## OTOITZA

*Eskubetean hornidu gaituzu erregaluz eta dohaiz, Aita laztana! Eta egin duzun dena maitasun hutsez egin duzu gure alde; zeure Seme bakarra emateraino. Eta hutsean hartu duguna hutsean eman behar. Ez gaitzazu utzi Zuk emandakoekin "geu aberasten"; beraiekin baliatuz beste batzuk aberastu ditzagula egizu, beraiek zoriontsu eginez. Emaiguzu zure bihotz handiari darion erruki eta maitasunetik. Eta Zugandik hartu ahala bana dezagun inguruan, batez ere makalen eta behartsuen artean.*

## BERTSOAK

1

Santiago ta Joan anaiak  
ziran Zebedeotarrak,  
Jesusen alde gazterik daude  
prest emateko indarrak.  
Behin beren amak Jesus Jaunari  
haren eskatu-beharrak,  
ustez ez hain gauza txarrak!  
Zerbaiten eske bazetorrela  
igerri Jesus azkarrak,  
ongi aztertuz ama-semeen  
bihotz-hondoko baztarrak.

2

"Esaizu, ama, zer nahi duzu Nik  
zuri zerbait ematea?  
Eskuzabalez eman didazu  
seme gazte bikotea."  
"Hauxe da, Jesus, nire eskaria,  
amaren borondatea:  
Eman semeoi partea,  
zure Erreinuaren zure eskubian  
Zurekin bat egotea,  
bestea zure ezkerraldean  
bigarrena izatea."

3

"Entzun, lagunok, gauza al zarete  
hartzeko nire kaliza,  
Erreinuaren alde emateko  
Nire aldera bizitza?"  
"Bai, Maixu ona, gauza gara ta  
ematen dizugu hitza,  
hartu gaur gure eskaintza:  
Guk ez zaitugu inoiz utziko,  
nahizta jasan martiritza;  
zer zoriona gurea, Jesus,  
hola izango balitza!"

## 25

## JESUS ETA ANDRE PEKATARIA

## ALDI HARTAN

Orduan eta gaur ere berdin-berdin: begiak argi, inoren hutsegiteak ikusteko; eta biak itsu, norberarenak ikusteko. Zergatik ote da hau horrela? Zenbat eta santuago izan, orduan eta errukitsuago hurkoarekin; eta alderantziz ere berdin. Norberaren burua ezagutuago, eta besteekin bigunago. Besteak, pesteak...

Mila bider arriskutsuago da joko hau *Jainkoaren izenean* erabiltzen bada. Halako Jainko beldurgarri bihurtu dugu sarritan! Jesusek, ostera, bestelako Aita bat erakutsi zigun: Aita-Ama den Jainkoa, denok seme-alabatzat hartzen gaituena. Seme-alabok bai barkamenean eta bai elkarlaguntzan ikusi nahi gaituena. Begira:

“Jesus Oliamendira joan zen. Biharamunean, egunsentian, tenplura itzuli zen, eta herri guztia etorri zitzaion. Jesus, eseririk, irakasten hasi zen.

Orduan, lege-maisu eta fariseuek emakume bat, adulterioan harrapatua, ekarri zioten. Erdi-erdian ipiniz, esan zioten Jesusi: «Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek legean honelakoak harrika hiltzeko agindu zigun; Zuk zer diozu?».

Galdera azpikeriaz egin zioten, hura salatzeko aitzakiaren baten bila baitzebiltzan. Jesus, alabaina, makurturik, atzamarrez lurtean idazten hasi zen. Haiiek, ordea, galde eta galde ari baitzitzazkion, zutitu zen Jesus eta honela esan zien: «Zuetan pekaturik gabe dagoenak jaurtiki diezaiola lehen harria».

Eta berriro makurturik, lurtean idazten jarraitu zuen. Haiiek, ordea, hori entzutean, banan-banan aldegiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela.

Jesusek zutitu eta esan zion: «Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork ere gaitzetsi?».

Hark erantzun: «Inork ere ez, Jauna».

Orduan, Jesusek: «Nik ere ez zaitut gaitzes-ten; zoaz, eta ez egin berriro pekaturik».”

(Joan 8, 1-11)

## GAUR ETA HEMEN

Ez da berdin *topo* eta *topez* egitea; *sala-tariek* Jesusekin topez egiten dute aurrez aurre: inori botatzeko ekarri zituzten harriekin beraien buruak joka ipini zituen; eta lotsatuta ihesi egin behar. Eta emakume *pekatariak* bai egin zuela Jesusekin topo! Onartua, barkatua, maitatua, bihotz berritua sentitu zen. Hobeia izateko gogo bat bai!

Inoiz baino pekatu gutxiago eta inoiz baino salatari eta tribunal gehiago! Zer da hau? Horrelakorik! Gizonok —gehienok behintzat!— lagun errukitsu gehiago behar dugu, epailari zitalak baino. *Estalkiaren erdia* inoren pekatuak estaltzeko erabiliko bagenu, gure alderdi erdia agerian utziaz... Baina horretarako emakume pekatari harek bezala Jesusekin topo egin behar. Topaketa horren ezaugarrietako bat hauxe da, hain zuzen ere: *Errukitsua* izatea.

## OTOITZA

Guri diguzun errukia da, Aita, Zuk erakusten duzun makaltasun bakarra. Zure Semea bidali diguzu Zu nor eta nolakoa zaren azaltzeko. Eta bai ondotxo azaldu ere! Bai, Aitatxo, zure eskuetan gaude seguru, beste inoren eskuetan baino seguruago. Hainbeste maite gaituzu eta! Egizu Espirituaren bidez elkar barkatzen eta maitatzen bizi gaitzela.

## BERTSOAK

1

Halako egun baten  
eta desorduan,  
andre bat agertu zen  
Jesusen onduan.  
Eta gizon pila bat  
bere inguruan  
bere aurka salatzen  
hizkera beruan:

2

“Hau haragikerian  
geuk dugu aurkitu,  
eta mila harrikada  
legean zor ditu.  
Ez al du hortarako  
nahikoa meritu?  
Hau beste modu baten  
ezin errenditu.”



3

“Ea gizonok, entzun,  
erne belarria:  
Pekatori ez denak  
bota bai harria.”  
Nonbait ikusi dute  
estutxo neurria,  
ez andre ta ez harri,  
ze lotsagorria!

4

“Andrea, ez al zaitu  
inork kondenatu?”  
“Inork ere ez, Jauna,  
arren, Zuk barkatu!”  
“Ezta Nik ere, baina  
ez egin pekatu!  
Zoaz, bizi bakean  
ta garbi jokatu.”

5

Gutxi asko izanik  
denok pekatari,  
nola gara epaile  
eta salatari?  
Jaunak agertzen digu  
erruki ugari,  
berdin izan deiogun  
batak besteari.

26

## JESUS ETA BARTIMEO ITSUA

### ALDI HARTAN

Begietako gaitza: gauzak ikusi nahi eta ezin ikusi. Bihotzeko gaitza: gauzak diren bezala ikusi ahal izan, eta ikusi nahi ez. Bi gaitzotatik zein zailago sendatzen? Egia esan, gizaki onaren ezaugarria da gauzak diren bezala ikusi nahia; ez da egiaren beldur eta bere atzetik dabil. Bestelako gaitz hori sendatzeorik ez dago inor munduan; Jainkoarentzat ere zailena omen da.

Begietako gaitzen artean *gandua*rena da bat: gauzak erdizka baino ikusi ezina; *lasser* izpitxoaz gandua ebakita sendatzen da gaur egun. Fede-bizitzan Espirituaren izpitxoa da, gauzen azal-mazalak urratu eta gauzak diren bestekoak erakusten dizkiguna.

“Jerikora iritsi ziren. Eta Jesus bere ikasleekin eta jendetza handiarekin hiritik irteterakoan, Bartimeo itsua, Timeoren semea, eskean zegoen bide-ertzean eserita. Jesus Nazaretarra zela jakitean, oihuka hasi zen: «Dabiden Semea, Jesus, erruki zakizkit!». Askok gogor egiten zioten, isilarazteko; baina hark areago oihu: «Dabiden Semea, erruki zakizkit!».

Jesusek gelditu eta hari dei egiteko agindu zuen. Dei egin zioten itsuari, esanez: «Izan bihotz! Jaiki, deika ari zaik». Bere soingainekoa jaurtikiz, salto batean zutitu eta Jesusengana hoan zen.

Jesusek galdegin zion: «Zer nahi duzu niregandik?».

Itsua erantzun: «Berriro ikustea, Jauna».

Jesusek esan zion: «Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu».

Une berean ikusmena etorri zitzaion berriro, eta Jesusen ondoren zihoan bidean.”

(Markos 10, 46-52)

## GAUR ETA HEMEN

Bartimeok lehenago ikusten zuen, antza denez. Iluntasunaren esperientzia garratza-  
ren ondoren, Jesusekin topo eginik, berriz ere ikusten hasi zen. Berriro eta hobeto. “Zure sinesteak sendatu zaitu.” Sinesmen-argiak ekarri zion begietako argia ere. Zer ote da sinesmen-argia? Itsuak Gizon Hura-  
rangan Jainko Semea ezagutu zuen, eta begi argiekin zeundenak ezagutu ezin! Ez da harritzekoa Bartimeok Jesusi atzetik jarraitzea. Aргituta dagoenak jarraitzen du.

Gaur egun ere asko eta asko dira, behinola fede-argitan bizi izan zirenak, eta ilunaldi luze eta garratz baten ondoren, berriro ikusi nahian ari direnak, bila eta bila martxan jarri direnak bide berrietatik zehar: guraso-elkarte txikiak, kristau-mugimenduak, ospakizun eta otoitzaldi bereziak... Horra aukera berriak, Jesusekin topo egin eta begietako gandua urratzeko. Ondorengo ikusmena zorrotzagoa eta zabalagoa izan ohi da, aurrekoa baino. Bai esperientzia gozo eta pozgarriak entzuten direla: bizi-poza, itxaropena, testigantzarako adorea, otoitz-esperientzia berriak eta abar. Horra Jesusekin topo egiteko aukera berriak. Guretzat dira.

## OTOITZA

Zure Seme bakar Jesusengan denok seme-alabatzat hartzen gaituzun Aita Jainkoa! Nola eskertu, garen ezerezean, Zugandik hartutako mesede guztiak? Pekaturik handiena litzateke Zurekin eskerronekoak ez izatea. Seme-alaba egiten gaituen Espiritua hartu dugu eta, Espiritu beraren bidez, "Abba-Aita" deitzen dizugu. Bai, Aita, txoria aidean dago, arraina uretan, harria lurrean eta ni zure eskuetan. Hau fedeargiaren ederra! Eskerrik asko bihotzez.

## BERTSOAK

1

Bartimeo ta Jeriko  
gogoan dira betiko.  
Bide-ertzean dago itsua  
lagun bat noiz etorriko;  
"Nazaretoko Jesus baletor"  
fedez dio berekiko.

2

Urrutiko oihartzuna  
itsuak pozez entzuna:  
"Gora Dabiden semea, Jesus,  
salbatzen datorkiguna!".  
Horrekin hasi zaio argitzen  
bere barneko iluna.

3

"O Dabiden seme hori,  
erruki Bartimeori!"  
Jendeak gogor: "Hago isilik,  
ze erruki ta istori!"  
Baina errukiz betetzen zaio  
bihotza Jesukristori.

4

"Ze gaixo edo eskeko?  
Joan ta esan etortzeko!"  
"O Bartimeo, izan uste on,  
Jesussek dio joateko."  
Jeiki zen eta hasi sentitzen  
sinesmen edo antzeko.

5

"O Bartimeo maitea,  
zer nahi duzu egitea?"  
"O ene Maisu, ikusi nahi dut,  
baduzu borondatea."  
"Zoaz, osatu zaituena da  
Nigan duzun sinestea."

6

Pozez saltoka itsua,  
dena dago argitsua.  
Ez daki nola eskertu edo  
osatu duen Maisua;  
eta herria goraka baten  
Jaungoiko errukitsua.

## 27

## JESUS ETA BETZATAKO ELBARRIA

### ALDI HARTAN

Bideko *seinaleak* bidea erakusteko *lagungarri* dira; ez *apaingarri*, eta ez beraiei begira gelditzeko ikusgarri. Horrelako zerbait dira *arau*, *lege*, *obitura*, *agindu* eta abar. Gizakiok horrelakoak behar ditugu, bai gure buruaz eta bai besteekin zuzenak izaten laguntzeko. Ez du legea ondo betetzen, hark erakusten duen bidea egiten ez duenak.

*Legegabekeria* txarra da; eta *legekeria*? Kateak apurtzea da bata, eta katez lotuta bizi-tzea, bestea. Txarren-txarrena honako hau: Jainkoa Bera ere *katedun* bihurtzen dugula: "hau egin", "hori ez egin". Eta, ondoren, *kate-mailakin* neurtzen da pertsona, onago ala txarrago den epaitzeko. Jesus ez zen etorri legea apurtzera, betetzera baizik.

"Bazen han gizon bat, hogeita hemezortzi urtez gaixo zegoena. Jesusek, han etzanda ikusi eta gisa hartan denbora luzea zeramala jakinik, esan zion: «Nahi duzu sendatu?». Gaixoak erantzun zion: «Jauna, ez dut inor ura mugitzean uhaskara botako nauenik; ni iritsi orduko besteren batek aurrea hartzen dit». Jesusek esan zion: «Jaiki, hartu ohatila eta ibili». Une berean sendaturik gertatu zen gizona, ohatila hartu eta ibiltzen hasi zen.

Egun hura larunbata zen, atsedeen-eguna. Judu-agintariek, orduan, esan zioten sendatuari: «Larunbata da; ez duzu zilegi ohatila garraiatzea». Hark erantzun zien: «Sendatu nauenak berak esan dit: "Hartu ohatila eta ibili"». Haiak galdetu zioten: «Nor da ohatila hartu eta ibiltzeko esan dizun hori?». Baina sendatuak ez zekien nor zen, Jesus ezkutatu egin baitzen ingururan zegoen jendetza artean.

Geroxeago, Jesusek tenpluan topo egin zuen harekin eta esan zion: «Begira, sendaturik zaude; ez egin berriro pekaturik, okerragorik gerta ez dakizun». Joan zen gizona, eta agintariei adierazi zien Jesus zela sendatu zuena. Honengatik, hain zuzen, larunbatez halako gauzak egiten zituelako, agintariak Jesus pertsegitzen hasi ziren."

(Joan 5, 5-16)

**GAUR ETA HEMEN**

*Larunbata zen* —lege sakratua!— eta elbarri bat ezinean laguntza eske. Zer da behinena: larunbateko legea bete ala elbarria sendatu? Gaixoa sendatzea nola liteke izan legearen kontrakoa? Aita Jainkoari begira, zer ote da hobe? “*Sendatu nahi duzu?*” Hamaika legezalek 38 *urtetan* ikusi zuten jai eta astegun elbarria ur-ertzean, eta inortxok ere eskurik eman ez! Zer sentitu ote zuen Jesusekin topo egin zuenean?

Gaixoak esku-makila behar du; kotxe-gidari hasiberriak astiro ibili behar, arauak banan-banan betetzeko. Baina sendatu den gaixoak, zer makila behar du? Gidari onak ez dauka hasiberriak bezala legepean estularri ibili beharrik. Jesusekin topo egin duena *lege-buztarritik* askatua da; legea lagungarri zaio, ez zama astun. Maitasun-bidean sartu da: horretarako dira lege guztiak, bidean gero eta aurrerago joatea da helburua. Ez da legezale, Jainkozale baino, eta hurko maitale.

**OTOITZA**

*Dena geure onerako eta maite gaituzulako egin duzun Aita Jainkoa! Zuk badakizu guk maite zaituguna. Eta hau poza: guk ezin zaitugu maitatu, Zuk aurretik maite gaituzulako izan ezik. Jesusen bidez atera gaituzu lege-zamapetik maitasun-bidera. Aita zaitugunez, Zuk ondo ezagutzen eta onartzen gaituzu, gure txikikeria eta guzti. Gora gure Aitaren bihotz handia!*

**BERTSOAK**

1

Bezata urtegia  
dugu kantagarri,  
bertan behin gertatua  
gogora ekarri:  
Hogeita hemezortzi  
urtetan elbarri,  
ez zen izan bera nork  
uretan ezarri.

2

Halako baten Jesus  
han zen suertatu,  
eta berarengana  
apal hurreratu.  
Eta galdetu zion:  
“Nahi duzu osatu?”  
“Bai, baina ez da lehenen ni  
nork uretan sartu.”

3

“Jeiki zaitez ta zoaz  
agintzen dizut Nik”  
eta horra gaixoa  
jarri zen zutunik.  
Ez zuen ezagutzen  
holako lagunik,  
Jesus izena ere  
ez zeukan entzunik.

4

“Hori ez da zilegi,  
gaur da larunbata;  
Jaunaren egunez lan,  
haxe erremata!  
Gaur nork osatu zaitu,  
pekatari da ta?”  
Pariseuak gogor  
haserre zarata.

5

“Izan bihotz, aixkide,  
zer grazi daukazun!  
Jaungoikoak emanda  
baduzu osasun.  
Ez egin pekaturik,  
Jaungoikoa lagun,  
gorputz eta arimaz  
osasuna daizun.”

28

## JESUS ETA EMAKUME SAMARIARRA

### ALDI HARTAN

Izaki bakoitzak bere lekua dauka izadian, eta behar dituen dohai eta ahalmenak dauzka Jaunak emanak. Baita guk gizakiok ere. Txoria urrezko kaiolan ere ez da zoriotsu, ez da horretarako egina eta. Izaki bakoitza zertarako den egina, haretarako bizi denean da zoriotsu. Jakina, fede-ikuspegia duenarentzat da zorionbide hau.

Gauza guztiak dira onak, beraien neurrian eta legean erabiliz gero. Denen errege eta jabe gizona. Gauza bakoitza zor zaion moduan erabiltzea, hori da jabe izatea. Neurritz gain erabilia, izakiak beraiek bihurtzen dira jabe eta gizona morroi. Aldrebeskeria handigorik! Samariako emakumea testigu. “*Zazpi iturrietatik*” ari zen edaten, baina orduan eta egarriago. Baina orduan eta okerrago.

“Han zegoen Jakobena putzua delakoa. Jesus, bidez nekaturik, putzu-ertzean eseri zen. Eguerdia ingurua zen. Ikasleak hirira joan ziren janaria erostera. Hortan, Samariako emakume bat etorri zen putzura ur bila. Jesus esan zion: «Emadazu edaten». Orduan, emakume samariarrak esan zion: «Nola Zuk, judu izanik, eskatzen didazu edatekoa niri, samariar naizen honi?». Jesus erantzun zion: «Jainkoak ematen duena ezagutuko eta edatekoa nork eskatzen dizun jakingo bazenu, zeuk eskatuko zenioke berari, eta hark ur bizia emango lizuke». [...]

Jesusek ihardetsi zion: «Ur honetatik edaten duena berriro ere egarri izango da; Nik emango diodan uretik edango duena, ordea, ez da sekula egarri izango; zeren Nik emango diodan ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko baitzaio barruan». Orduan, emakumeak: «Jauna, emadazu ur horretatik, berriro egarri ez nadin, eta hona uretara etorri beharrik izan ez dezadan». [...]

Emakumeak esan zion: «Badakit Mesias, Kristo alegia, etortzekoa dela, eta Hark, etortzean, gauza guztiak agertuko dizkigula». Jesus esan zion: «Neu naiz, zurekin mintzo zaizen hau». [...]

Emakumeak suila utzi, hirira itzuli eta esan zion jendeari: «Zatozte egin dudana guztia esan didan gizon bat ikustera. Ez ote da bera Mesias?».”

(Joan 4, 6-10.13-15.25-26.28-29)

## GAUR ETA HEMEN

Ustekabean topo egin du Jesusekin; eguneroko zeregintxo bat betetzerakoan. Ez da hura bila joan, ezta otoitz-leku baten ere. Gizaseme ezezagun bat, judutarra hura, hurari ur eske hasi zaio: “*Emadazu edaten*”. Pixkanaka argituz eta zuzenduz joan da, hurak Jesusi eskari berdina egitera iritsi arte: “*Jauna, emadazu ur hori*”. Ikusten? Ez dago hain galdurik, ez aldenturik, Jainkoak maite ez duenik, onbideratzeko gai ez denik.

Gaur egun han-hemen zorion-iturri asko daude jarrita, *mana goxoa* dariola. Jesus berpiztuaren iturria agortu ote? Bai zera! Uste den baino gehiago dira —Samariako emakumearen antzera— eginak egin ondoren, Jesusekin topo egiten dutenak; eta uste gutxien den orduan eta tokian egin ere. Gure arduraren nagusia zera da: bide-ertzean zain dagoen Jesusekin elkarrizketan hastea. Nongo putzu-ertzean ote daukat nire zain? Zenbat gainditu dituzu? Berarekin topo egin ondoren, guk ere esan ahal izango dugu: “*Nik aurkitu dut, nik ikusi dut, nirekin hauxe eta hauxe egin du*”. Kristau-maixuak onak direla, testiguak hobe. Onena, biak batera.

### OTOITZA

Aita, naizena naizela, gu zure seme-alaba gaituzu. Sarri barkatu diguzu, Aita! Beti zain zaude bizitzako patin-ertz askotan. Edozein bide-ertzetan gurekin topo egin nahirik, egarriz zauden Aita zara. Gehitu gudan zure seme-alaba izatearen poza. Espiritua lagun, erakutsi nahi diet beste anaia-arreba askori Zuganako bidea. Baina lehenago argi itzazu gure bihotzak.

### BERTSOAK

1

Samariako emakume bat  
pekatari ezaguna,  
ur bila joanda, aurkitu zuen  
salbatu zuen Laguna.

2

Ontzi ta guzti hurreratu zen  
Jesus zegoan tokira,  
ta Honek ura eskatu zion  
egarri biziz begira.

3

“Egarri nauzu ta emaidazu  
asetuko nauen ura.”  
Emakumeak harri ta horma  
erantzun zion puntura:

4

“Zu judegua izanik eta  
ni, berriz, samariarra,  
nola eskatzen didazu ura?  
Bete daigun lege zaharra.”

5

“Ai, bazeneki nor daukazun gaur  
ura eskatzen aurrean,  
laister zeundeke Berari ura  
zeuk eskatu beharrean!”

6

“Zuk ez daukazu ontzirik eta  
putzua da hain sakona.”  
“Ai nire ura berezia da  
zeruraino dariona.”

7

“Emaidazu, ba, zure uretik  
izan ez nadin egarri.”  
“Zoaz ta ekar zure senarra  
eta eman nire barri.”

8

Zazpigarrenaz bizi zen baina  
ez senar eta ez gizon,  
bere bizia argi ta garbi  
aurrean agertu zion.



## 29

## JESUS ETA PEDRO

## ALDI HARTAN

Sarri esaten dugu: gizona da munduko errege, nagusi, jabe... Izan ere, izadiko indar eta ahalmenak ezagutu, erabili eta bere esku-mendera ekartzen ditu. Baina, gizakia, bestalde, makala eta hutsa da. Amets-gogoetan neurrigabekoa, baina bizitza oso mugatua dauka, sarri bere burua ezinetan aurkitzen du. Zintzoenak ere sarritan egiten du nahi ez duena, eta nahi duena ezin du egin.

Guk fede-argipean Jainkoa dugu Egile eta Jabe, gure sorburu eta helburu. Berak eza-gutzen gaitu ongien: Hurak eginak gara, eta Jesusen bidez giza esperientzia osoa egin du. Bere ikasle nagusi eta bere ordezkari jarri duen Pedro dugu erakuspide.

“«Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta nik hau diotsut: Pedro zara zu, eta harkaitz horren gainean eraikiko dut nik neure eliza; eta herioaren indarrak ere ez du menderatuko».”

(Mateo 16, 15-18)

“Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion: «Ez dezala Jainkoak nahi, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko». Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori: «Alde nire ondotik, Satanas! Oztopo haiz niretzat, hire asmoak ez baitituk Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».”

(Mateo 16, 22-23)

“Pedro kanpoan eseria zegoen, patioan; neskame batek ondoratu eta esan zion: «Hi ere Jesus galilearrarekin bizi hintzen». Baina hark guztien aurrean ukatu zuen: «Ez zekinat zertaz ari haizen». Ate ondora irten zen, eta beste neskame batek ikusi eta han zeudenei esan zien: «Jesus nazaretarrekin ibilia da hau». Pedrok berriro ukatu zuen, zin eginez: «Ez dut ezagutzen gizon hori».”

(Mateo 26, 69-72)

“Gosaldu zutenean, Jesusek esan zion Simon Pedrori: «Simon, Joanen semea, maiteago al nauzu hauek baino?». Hark esan zion: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana».”

(Joan 21, 15)

## GAUR ETA HEMEN

Jesusekin topo egiteko bidea bizitza bera baizen luzea da. Begira Pedrori: Gaur: "*Zu zara Harria*". Bihar: "*Ken bakit, Satanas!*". Hurrengoan: "*Nik ez dut ezagutzen*". Baina azkenean: "*Zuk badakizu maite zaitudana*". Santua, ona, Jainkoa bakarrik; besteok, gutxi asko, Haren santutasunetik hartzen dugu, Kristoren bidez. Behin Jesusekin topo egin duenak, hurrengoan gozoagoa, maitagarriagoa aurkitzen du.

Behin Jesusekin topo egin duenak *Jainko-arrastoa* hartzen du, eta toki guztietan Hurarekin topo egiten du. Ezagunago eta maiteago, maiteago eta lagunago bizitzako bidean. Hauexek dira jainko-gizon eta emakumeak. Pedroren antzera, Jesusen erruki eta maitasunaren testigu bizia: Jesus bizi dela, gurekin dagoela, Hurarekin bat egin gaituela betiko bizitzako herentzian. Zorionekoak "*gebiago*" horren bila aspertzen ez direnak!

## OTOITZA

*Gure helburu zaitugun Aita Jainkoa! Zuk betidanik duzu gure bihotzean baztertxo bat, eta handik ezin zaitu inork bota. Hortxe zaude itxoiten, gu noiz irazartuko, seintxo lotatik noiz irazartuko zain dagoen amaren antzera. Bai, Aita, nonahi egiten dugu Zurekin topo, beti zoaz Zu gure aurretik. Zuk gurekin topo egiteko daukazun gogo horretatik emaguzu pixka bat. Zuk badakizu maite zaituguna, Zuk gugan isuri duzun Espirituaren bidez. Maite gaituzulako maite zaitugu.*

## BERTSOAK

1

Santua ez da santu jaiotzen,  
hori nekez eta lorrez,  
Jainkoak berak salbatzen gaitu  
maitasun errukiorrez.  
Pedro ere makala,  
ez zuen uste hala...  
ta jaiotakorik nor ez?  
Ahalegin denak eginda ere  
Jaunaren aurrean zorrez.

2

Gure San Pedro Jesus Jaunari  
gorputz ta arimaz emona,  
ezertxogatik ere ez zuen  
ukatuko Maixu ona.

“Gogoa dago bizkor,  
haragia da jauskor”  
Jesusek esan ziona.

Bere asmo on zintzo ta guzti  
San Pedro ere gizona.

3

Jesus lurrean otoitzean ta  
gure Pedro dago lotan,  
sare ederra jarriko zaio,  
jausi baietz oraingotan:  
“Ez al haz horren lagun?  
Hizketan duk ezagun,  
neuk ikusi haut askotan”.  
Eta lotatik esnatutzeko  
jotzen du oilarrak kotan.

4

Halako baten agertzen zaie  
Jesus beren batzarrean,  
eta Pedrori bere izenez  
deitu zion bakarrean:  
“Horreek baino gehiago  
al nauzu maiteago?”.  
Pedrok triste samarrean:  
“Zuk badakizu, nik maite zaitut  
neure bihotz kaxkarrean”.

30

## JESUS ETA MISIO-LAGUNAK

### ALDI HARTAN

Agerian denez, Jainkoa beti da *beste bat*. Era askotako Jainkoa ezagutzen dugu; bat ere ez da osokoa. Eta hala izan behar, bestela ez litzateke Jainko izango. Gizakia bere ahalmenak lagundurik, beti joan daiteke gero eta helduago, gizakiago egiten. Benetako Jainkoarengan sinesteak lagundu egiten dio heldutasunaren bidean. *Huntz-bostoa* horman gora bezala, halaxe hazten doa gizona fedez Jesus Jainko Gizonari oratuta. Hain zuzen ere, hauxe da munduan zehar zabaldu behar dugun Berri ona.

Eta hauxe da Jesusek mundura ekarri zuen egitekoa: Jainkoa Jainkoago eta gizona gizonago agertzen duen erreinua iragartzea. Gizonak elkarren artean bildu eta denok Jainko Aitarekiko batasunera eramaten gaituena Jesus da. Jesus da Aitak bidalia, eta kristaua Jesusek bidalia, Hurak hasitako bideak aurrera eramateko. Ikasleek topo egin zuten Jesusekin misiogintza zoragarri horretan. Maixuarengan zegoen ahalmenak beraiengan ere indarrean sentitzen zuten. Ikus:

“Jesus herri eta auzo guztietan barrena ibili zen, sinagogetan irakasten. Jainkoaren erregetzaren berriona hotsegiten zuen eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, errukitu egin zitzairen Jesus, nekatuak eta lur jota baitzeuden, artzain gabeko ardiak bezala. Orduan, bere ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uztajabeari bidal ditzala langileak bere uztara».”

(Mateo 9, 35-38)

“Zuek onartzen zaituztenak Neu onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du. Profeta bat profeta delako onartzen duenak profetari zor zaion saria jasoko du; eta gizon zuzen bat zuzena delako onartzen duenak gizon zuzenari zor zaion saria jasoko du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, ontziska bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko.”

(Mateo 10, 40-42)

## GAUR ETA HEMEN

Jainkoaren bideak ezagutu eta ibiltzea da guri dagokiguna, beste konturik eskatu gabe. Harritzekoa Jainkoa gure beharriazanean ikustea: “*Soroaria ugari, langileak gutxi*”. Beraien laguntzaren premian dagoen Jesusekin topo egiten dutenek zein pozik ematen dien baietz biribila! Eta hor dabilta espirtu txarrak botatzen, gaixoak sendatzen, bihotzak gozatzen, gurutzedunei laguntzen eta behartsuei Berri ona iragartzen.

Herri, auzo, familia, ospitalea... Jesusen antzera eta bere izenean misiogintzan ekiteko esparruak. Ederragorik! Gaur ere asko dira Jesusekin topo egiten dutenak *misiogintzan*; zenbatek ematen dizkioten eskerrak Jaunari, halako gizon edo emakume errukiz betea beraiek bisitatzen doanean! Baina beti “*Jesusen izenean*”. Orduan, gure bitartez, beste batzuek ere Jesusekin topo egiten dute. Hitzez eta egitez “*ontzitxo bete ur fresko*” asko banatzen dabiltzanak dira benetako testiguak.

## OTOITZA

Zure antzeko egin gaituzun Aita Jainkoa! Zuk gu handi eginda ikusi nahi gaituzu, zure Seme Jesusekin batera munduko alorretan lanean. Zuk banatu dizkiguzu, Espirituaren bitartez, hainbeste dohai besteen onerako. Zure lankide egin gaituzu, zure Semearen misio-lagunak. Eskerrik asko, Aita! Bai miragarria eta maitagarria zarela!

## BERTSOAK

1

Aita Jainkoak biali zaitu  
erruki handiz gugana,  
zure ardura: nola beteko  
Aitak emandako lana.  
Hori izan zen zure bizitzan  
ametsa eta afana,  
zure jan eta edana.  
Aitaren nahia: bere Erreinura  
bihurtzea mundu dana;  
horren egarriz bizi eta hil  
zinan, o Jesus laztana!

2

Bazterrik-bazter hor hasi zinan,  
Jesus misiolaria,  
munduan martxan ezarri nahirik  
Aitatxoren guraria:  
Begi aurrean gori ta guri  
helduta soloaria,  
alperrik galtzen garia!  
“Ene lagunok, egin Aitari  
uste osoz eskaria:  
«Aita Jainkoa, bial eiguzu  
langile on ugaria.»”

3

Etxean bertan edo kalean  
badaukagu non zer egin,  
bakoitzak bere dohaiak ditu,  
haien arabera ekin.  
Batzutan poza hartzen dugu ta  
gehienetan neke ta min,  
txandan datoz elkarrekin.  
Ez daigun ahaztu ez Zuk ta ez guk  
erein ahala bildu ezin!  
Gurea beti ereitzea da,  
hor egin daigun ahalegin!

# 31

## JESUS ETA BERE JARRAITZAILEAK

### ALDI HARTAN

Gure bizitzako bidean *bidegurutze* asko dago, eta txitean-pitean egin behar izaten dugu aukera bat: bata utzi, bestea hartzeko. Zintzoak, gehien baten, ez du errazena hartzen, zuzenena baino. Eta zein da zuzenena? Gizaki heldua eta fededun zintzoa beti saiatzen da zuzenera jotzen. Aukerak egiterakoan jokutzen dugu bakoitzak geure nortasuna eta etorkizuna. Batek zenbat eta aukera zuzen gehiago egin, orduan eta gizaki eta kristau jatorrago; besteak, zenbat eta aukera oker gehiago egin, orduan eta narrazago.

Aukeraketak zuzen egiteko, guk kristauok ez daukagu liburuetara jo beharrik; Jesus dugu maixu eta gidari nagusi bakarra guztiontzat. Hura jartzen zaigu aurrean eta esaten digu: "Jarraitu Niri". Gaur guri egiten digu gonbitea:

"Jesus eta ikasleak bidean zihoazela, batek esan zion Jesusi: «Noranahi jarraituko dizut». Jesusek esan zion: «Azeriek badituzte zuloak eta aireko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri».

Beste bati esan zion: «Jarraitu Niri». Baina hark erantzun: «Jauna, uztazu lehenbizi aitaren hiletak egitera joaten». Eta Jesusek: «Utzi hilei beren hildakoen hiletak egiten; zu zoaz Jainkoaren erregetza hotsegitera».

Beste batek, berriz, esan zion: «Jarraituko dizut, Jauna, baina uztazu aurrena etxekoei agur egiten». Baina Jesusek erantzun: «Goldeari heldu eta atzera begiratzen duena ez da gai Jainkoaren erreinurako»."

(Lukas 9, 57-62)

## **GAUR ETA HEMEN**

Jesusekin topo egin eta Berari jarraitzeak, Aitarekin topo egitera garamatza, Espirituaren eraginez. Ez gaitu ikusi nahi biderdian geldi; ezta nahikotuta, orain artekoa ere nahiko dela eta. Ez du onartzen erdipurdiko jokabiderik; oso-osokoak nahi gaitu. Horregatik da gure *Salbatzaile*; hau da, *askatzaile*: umekeriazko katramiletatik askatzen gaitu, Aitaren eta hurkoaren aurrean beti zabalik egotera eraginez.

Bene-benetan Jesusekin topo egiteak ez gaitu lehengo egoeran uzten, beti hobera bultzatzen gaitu. Izan ere, Jesusekin topo egiten duten gizakiek, gizaldiak joan ondoren ere, aldaretara jaso eta ondrazten ditugu. Gure txanda da gaur eta hemen: Jesusekin topaketa berri bat behar dugu; beti dugu zeozertatik askatu beharra, aurrera egiteko. Bakoitzak ikusi behar Jaunaren aurrean.

## **OTOITZA**

Zure antzeko egin gaituzun Aita Jainkoa! Bihotza samurtzen digu Isaiasen bidez esaten diguzunak: "Nire esku barruan zauzkat grabatua". Zure eskuei begiratzen diezun bakoitzean, han ikusten nauzu. Zer poz eta adore ematen didan honek ordu ilunetan, aukera neketsu bat egiterakoan! Beti zure esku barruan naukazula jakinik, noren edo zeren beldur izan naiteke? Jesusen bidez zure bizi berrira sortu gaituzu; emaiguzu zure Espiritua, Jesusi jarraituz, zure antzeko seme-alaba izan gaitezen.

## **BERTSOAK**

1

Herririk herri dei ta dei baten  
hor dabil Nazaretarra,  
eta sortzen du gure aurrean  
azkar erantzun-beharra.

2

Eman baietza edo ezetza,  
ez du behartzen sekula;  
baina kontuak ongi atera,  
ez da ahuntzaren eztula.

3

Behin gizon batek pozez diotso:  
"Jarraituko dizut, Maixu",  
"Ez dut etxerik, ez dut dirurik,  
ematen dizut abixu".

4

Beste bateri dei egin zion;  
"Itxoin, Maixu, aita hil zait",  
"Dena utzita, gaur ez bazatoz,  
ez zara gauza Niretzat".

5

"Ni ere Maixu, Zurekin nator,  
—gazte batek bero-bero—  
itxoin pixka bat, prest izango naiz  
denak agurtuta gero."

6

Bateo santuz gu kristau denok  
gara bokaziodunak,  
baina sortzen du bokazioa  
bakoitzaren erantzunak.

7

Eskerrik asko, Jesus Maixua,  
dei egin didazulako,  
hartu baietza nire aldetik  
egiz eta betirako.

32

## JESUS ETA MATEO

### *ALDI HARTAN*

Gizakiak ametsak luze, baina pausoak labur. Ahaleginak ahalegin, ezin du bere buruaren itzalaren gainetik salto egin. Horregatik edo, onaren eta gaitzaren neurriak bere eskura ekarri nahi ditu; eskuratu, eta gero beste guztiei ezarri. Baina zenbat buru, hainbat aburu. Eta hortik hamaika katramila sortzen da. Bakoitzak bere egia, egia osoaren zatitxoa; elkarrizketaz landu eta osatu beharreko zatitxoa.

Jarrera berdintsua erabiltzen dugu Jainkoari buruzko arazoetan ere: alde edo molde, baina Hura ere gure eskumendera hezi nahia. Eta jakina, Jainkoa dela eta ez dela, zenbat haserre eta borroka gizaldietan! Jesus etorri zenean, *Aita* den Jainkoa erakutsi zigun; gizakion zorion betea lortu nahita, bere Semea emateraino maite gaituena. Bere aldian ziren erlijio-ohitura, lege eta muga asko gainditu zituen eta denak gizonaren zerbitzurako ipini.



“Jesusek, handik atera eta bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseria, eta esan zion: «Jarraitu Niri». Mateok zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Mateoren etxean zegoen Jesus mahaian; bazen beste zergalari eta pekatari asko ere Jesusekin eta honen ikasleekin batera mahaian. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalari eta pekatariekin?».

Jesusek entzun eta esan zien: «Ez dute osasundunek behar sendagilea, gaixoek baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: *Nahiago dut errukia sakrifizioak baino*. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, pekatarietara baizik».”

(Mateo 9, 9-13)

## GAUR ETA HEMEN

Harritzekoa! Denen begibistan eta legearen arabera pekatari zen bat bere *lagunarteko* aukeratu: “Jarraitu Niri”. Eta bere etxean mahaikide jarri, era *guztietariko pekatarien* erdian. Hori ikusita, *garbizaleak*, Jainkoaren zerbitzari eta lege-zaintzaile amorratuak, barrenetik irakiten. Beraiek antzinako gizaldietatik ondo hezita zeukaten Jainkoa, Jesusek askatu eta galduta sentitzen zirenekin bat egiten du, beraien mahaikide jarriz. Pekatariok *bondatuta* ikusi nahiago, *onduta* baino.

Mateok ere ez zuen sekula santan horrelako Jainkorik ezagutu; eta beharbada, horrelakotzat erakusten zutelako, *jainkogabetzat* azaltzen zen. Deia jasotzean, ez zion bere buruari begiratzen, dei egin dion Jesus onari baizik. Dena utzi eta jarraitu egin zion. Gehienetan Elizarekin edo eliz-lege batekin *topez* egiten dugu, eta hortxe hondatzen dira asko eta asko. Gaur eta hemen *Jesusekin topo* egitea beharrezko egiten zaigu, ebanjelioa eskuan hartuta, kristau-taldetxoetan partekide sartu eta egiazko Jainkoaren bila hasi itxaropenez. Zenbatek entzuten duten gaur egun ere: “Jarraitu Niri”. Hortik sortzen dira kristau alaiak, adoretuak, bizi berriaren testigantza emateko gai direnak.

## OTOITZA

Seme-alaba denon zoriona nahi duzun Jainkoa  
Aita ona! Jesusek gurutzean besoak zabalduz  
zure "Aita-bihotzaren" samurtasunez bete duzu  
mundua gizaldi guztietarako. Ukitu gaitzala  
zure bihotzeko brintza batek; piztu dezala  
gugan Jesusen antzeko izateko gogo bizia.  
Argitu gure begiak, zabaldu gure bihotzak,  
luzatu gure eskuak: zure "aitatasunaren testigu"  
egin gaitzazu.

## BERTSOAK

1

Bazen herrian gizon handiki  
Mateo zeritzaiona,  
giro haretan pekataritzat  
ezagutzen zen gizona.  
"Zatoz, Niri jarraitu,  
Jainkoak maite zaitu"  
Jesusek esan ziona.  
Dena utzita, jarraitu zion;  
hortik bere zoriona.

2

Eta Mateok bere etxean  
prestatuaz afaria,  
Jesus erdian zela, bildu zen  
mahaian jende ugaria.  
Zergalari ta mozkor,  
lapur eta egoskor,  
bazen han pekataria!  
Tripak erretzen, nola galduko  
fariseu zelataria.

3

"Jainko Semea dela esanda,  
hau da hau ikuskizuna!  
Gu baztertuta, horrekin dabil  
hau gertaera lizuna!  
Pekatarien mahaian  
festa-giro alaian...  
Horrek galdu du zentzuna!  
Mesias nola izan daiteke  
pekatarien laguna?"

4

"Osasuntsuak ez dute izaten  
osagileen beharrik  
osagilea bai behar dute  
gaixo, herren ta elbarrik."  
"Opari denak baino  
errukia nahiago"  
bada esaera zaharrik.  
Ez naiz etorri zintzoei deika,  
pekatariei bakarrik.

# 33

## JESUS ETA AZKEN AFARIKO MAHAIKIDEAK

### ALDI HARTAN

Giza bizitzan betiko gaitzak irabazten digu: hitzik ederrenak ere, erabiliaren erabiliz, hustu egiten direla, eta esperientziarik gozoe-  
nak ere usteldu, gauzeztandu. *Esaterako*: bakea, demokrazia, maitasuna, askatasuna, dohaintasuna, Eliza, Eukaristia eta abar. Geure grina eta jokera txarrez kutsutu eta hondatzen ditugu.

Ondorio garratzak datoz hortik: ezin dugula sinetsi maitasunean, askatasunean, dohaintasunean, demokrazian... Ez duzu inoiz honelakorik entzun: *"Zerbait irabaziko du"*, *"Zeozeren atzetik ibiliko da"*, *"Zeozeren trukean egingo du"*. Inoren onik gabe, norberaren alderdia ondu nahi, eta inoren bizkarretik. Sinesmen-bizitzan ere beste horrenbeste. Zein gutxi diren Jainkoaren maitasuna benetan sinesten dutenak! Horren arabera izan ohi da, maitasunaren eta dohaintasunaren bide garbian sartu eta jokatzea ere. *Eukaristia* misterioa aztergai dugu, gure jokaerak aztertzeko.

"Ordua etorri zenean, Jesus mahaian jarri zen Apostoluekin. Eta esan zien: «Banuen gogoia sufritu aurretik Pazko-afari hau zuekin egiteko!». [...]

Gero, ogia hartu zuen eta, eskerronezko otoitza egin ondoren, zatitu eta ikasleei eman zien, esanez: «Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri». Berdin egin zuen koparekin afal ondoan, esanez: «Kopa hau itun berria da, zuentzat isurtzen den nire odolaz Jainkoak ezarria». [...]

Ikasleak eztabaidan hasi ziren beren artean, beraietan zein ote zen handiena. Jesusek esan zien: «Herrietako erregeek mendean hartzen dituzte herriok, eta agintedunek "Ongile" izena nahi izaten dute berentzat. Zuek ez jokatu horrela. Zuen artean nagusia izan bedi gazteenaren pareko, eta agintaria zerbitzariaren pareko. Zein ote da handiago, mahaian dagoena ala zerbitzatzen ari dena? Ez ote mahaian dagoena? Bada, Ni zerbitzari bezala nago zuen artean»."

(Lukas 22, 14-15.19-20.24-27)

## GAUR ETA HEMEN

*Eukaristia*, hau bai dela Jesusekin topo egiteko leku eta gune berezia! Elizaren eta kristau-bizitza osoaren *eguzkia*. Osorik eta betiko gurekin eta guretzat. Maitasun-bizitzaren garbi-leku eta indar-iturri. Misteriorik ederrena izanik ere, alperrik galtzeko arrisku handia du. *Meza entzutera* ohitzea, legetzat hartu eta betetzea da. Kristau-bizitzan tamalgarriena.

*"Afariak on egin!"* Afari-mahaian Jesusekin topo egiteak horrela behar luke izan. On ala kalte egin digun nabaritzeko, afari-ondorengo bizitza da leku egokia: elkar barkatzea eta elkar zerbitzea dakar berez. Horrelakorik ez balekar, Eukaristian egin ote dugu topaketarik Jesusekin? Hark gurekin bat egiteko, janari izateraino txikitzen den bezala, gu ere *txiki* egin behar elkarren zerbitzuan. Eukaristiako mahaian Jesusekin topo egiteak, bizitzako mahaian anaia-arrebekin topo egitera garamatza.

## OTOITZA

*Jesus zure Semea bidaliz bidera irten diguzun Aita errukitsua! Gu zure bila genbiltzalakoan, begiak argitu, eta Zu ikusi zaitugu gure bila. Gehitu, arren, gure sinesmena, Jesusengan agertu diguzun maitasuna gero eta gehiago sinetsi ahal dezagun. Jesusen Espiritu berberak sendotu gaitzala, zure Erreinuaren aldeko testigu adoretsuak izaten.*

## BERTSOAK

1

Aitarengana joan behar ta  
gurutzean hil aurretik,  
zer testamentu eskaini zigun  
Jaunak bere bihotzetik.  
Aldendu nahi ta ezin aldendu  
bere lagunen artetik,  
hau miraria asma zuena  
maite ginduen partetik.

2

Ogi-ardoak eskuan hartu  
eta beti ohi zuanez,  
apostoluei banatu zien  
maitasun handiz esanez:  
"Har ezazue jan eta edan  
ta Ni gomutan izanez;  
elkarrekin bat izango gara  
Afari hau jan-edanez".

3

Jaunaren mahaian zer izango eta  
 eztabaida bat gogorra:  
 beren artean nor handiena,  
 hango haserre borborra!  
 Hau ikusita, zeinbat mindu zen  
 Jesus bihotz sentikorra,  
 eta abisua eman zien  
 denontzat esanda, horra:

4

“Ea mutilok, esaidazue:  
 kontu hori zer izan da?  
 Zuon artean nor handiena,  
 a zer nolako demanda!  
 Zuen artean handienak du  
 beti zerbitzeko txanda,  
 nork baino nork on gehiago egin  
 denen aurretik joanda.”

5

“Hemen nauzue zuen artean  
 beti denon zerbitzari,  
 nire bizia pekatu-ordain  
 eskainiz nire Aitari.  
 Zuek Maixutzat hartzen nauzue,  
 jarrai nire bideari;  
 esan, bestela, zertarako den  
 gaurko otoitz ta afari?”

34

## JESUS ETA APOSTOLUAK JETSEMANIN

### ALDI HARTAN

Gizon *bandiaren ezaugarriak*, gehien baten: armak, aginpidea, borrokalari-indarra, bihotz gogorra eta abar antzeko asko. Negarra, errukia, solidaritza eta antzekoak, *emakume-kontuak* omen dira. *Gizarajokeriatzat* jotzen dira gaurko gizartean. Hortik aurrera joanda, honako hau dator: zapaltzailea gizonago dela salbatzailea baino; ostikada gehiago, eskua ematea baino; bengantzea, barkatzea baino.

Inor handirik izan bada munduan, —eta handi izateko aukera denak huragan zeuzkana!— Jesus Gure Jauna izan zen. Baina sarri samurtzen zen, sarri jokutzen zuen errukiz, barkakorra zen. Jetsemanin negarra, izerdi larria, ikara beldurra agertzen ditu. Horrelako Jesusekin begiz begi, bihotzez bihotz topo egitea ez da erraza. Begira:

“Jesus bere ikasleekin Getsemani zeritzan landa batera iritsi zen, eta esan zien: «Zaudete hemen, ni hara otoitz egitera noan bitartean». Pedro eta Zebedeoren bi semeak eraman zituen Berekin. Tristura eta larria sentitzen hasi zen, eta esan zien: «Hiltzeko zorian nago tristuraz. Gelditu hemen eta zaudete erne Nirekin batera». Eta aurreraxeago joanik, ahozpez erori zen eta otoitz egin zuen, esanez: «Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu Niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi Zuk nahi bezala, ez Nik nahi bezala».

Ikasleengana joan eta lotan aurkitu zituen. Pedrori esan zion: «Beraz, ordubete ere ezin izan zarete Nirekin erne egon? Zaudete erne eta egizue otoitz, tentaldian ez erortzeko: gogoz gartsu izan arren, ahula baita gizakia».

Bigarren aldiz aldendu eta otoitz egin zuen, esanez: «Ene Aita, edari samin hau derrigorrez edan behar badut, egin bedi zure nahia». Eta berriro itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzituzten. Haiiek utzirik, berriz ere aldendu eta hirugarren aldiz otoitz egin zuen, lehengo hitzak berriro esanez.

Ondoren, ikasleengana joan eta esan zien: «Egin lo eta hartu atsedena! Hara, gainean da ordua, Gizonaren Semea pekatarien eskuetara emana izateko. Jaiki, goazen, hemen da salduko nauena».”

(Mateo 26, 36-46)

## GAUR ETA HEMEN

Horra Jesusen handitasuna: Jainko Seme izanik, gure makaltasunez jantzi zela; lagunak saldu eta ukatu arren, Hurak leial jarraitu zuen; Aitak bakarrik eta isilik utzi arren, Hurak Aitarekin zabal iraun zuen; Aitarekiko leialtasunean eta gureganako maitasunean azkenera iritsi arte jokatu zuen.

Jetsemaniko Jesusekin topo egiteko, benetan itzarrik egon behar da eta otoitzari errime ekin. Benetako lagunak orduan agertzen dira, benetako Jesusekin orduan egiten da topo: makal, errukitsu, barkakor, laguntzaile, neke-minetan zapuztua... Zorionekoa Jetsemaniko Jesusekin bere bizitzan topo egin duena!

## OTOITZA

Errukiz eta onguraz beteriko Aita! Gu pekata-riengatik zure Seme bakarrari barkatu ez ziona! Isilean baina maitasunean gure ondoan zaitu-guna, guk nahi dugun baino gehiago ematen diguzuna. Espirituaren eraginez, gu ere gogo-berotu gaitzazu, Jesusen antzera, gu ere leialak izan gaitezen emandako hitzean eta hartutako bidean. Orain badakigu nekeminetan ere ez gaituzula bakarrik uzten; isilean gurekin batera sufritzen zaudela, indar eta adore ematen. Aita, egin bedi gukan ere zure nahia!

## BERTSOAK

1

Nork ez daki zer jazo  
zen behin Jetsemanin?  
Hara joan zen Jesus  
nekez baina arin.  
Gogoia larri zeukan  
ta bihotzean min,  
Aitaren nahia zer den  
gura luke jakin.  
Otoitz-lekura doa  
Apostoluekin.

2

Jesusek hemen hasten  
du borroka latza,  
nahigabez lurra jota  
ahozpeztuta datza.  
Edan nahi ta ezin  
kaliza garratza;  
ahal bada, ken deiola  
Aitari dirautsa;  
larriz odol ta guzti,  
ze izerdi patsa!

3

Ezin neurtu Jesusen  
nahigabe larria,  
baina biziagoa  
daukan egarria:  
"Aita, ongi dakizu  
Zuk nire barria,  
zure nahia da nire  
bizi-oinarria;  
bete dadila nigan,  
o Aita maitagarria!".

## 35

## JESUS ETA JERUSALENGO EMAKUMEAK

### ALDI HARTAN

Badirudi gizonari sarri bere bizitzak gainez egiten diola; areago mila bider gaur egun. *Olatu* baten ondoren, beste olatu bat handiagoa gure inguruko itsasoan, eta norbera ez nora ez hara. Eta gehienetan olatuen arabera, ez norberak *nabi* eta *behar* duen erara. Eta astirik eta gogorik bai, olatuak nondik sortu diren eta norantza daramaten aztertzeko, eta behar ditugun erabakiak eta indarrak hartzeko?

Bai bertako eta bai urruneko *gertaera-olatuak* gogor astintzen gaituzte buru-bihotzetan, badirudi denetan garela partaide. Horren eraginez, alde batetik kezkatuta bizi gara, eta bestetik ezer ezinean. Beste batzuek hartzen dituzte, gure orde, erabakiak; beraiek dituzte indar eta ahalbide guztiak. Erruki, gora-behera artean galdezka, salatari oihuka jartzen dena! Eta olatuok astinduko ez dituen *baize* egokirik ez bada sortzen, laster gara usteldu.

“Herriko jendetalde handia zihoan Jesusen ondoren, baita emakume asko ere bularjoka eta Harengatik aieneka. Itzuli zen Jesus haiengana eta esan zien: «Jerusalengo emakumeok, ez egin negarrik Niregatik; egizue negar zeuengatik eta zeuen seme-alabengatik. Hara, badatoz honako hau esango den egunak: “Zorionekoak agorrak, haurrik sortu ez duten sabelak eta ditirik eman ez duten bularrak”. Orduan, honela esango diete mendiei: “Eror zaitetze gure gainera”, eta muinoei: “Ezkuta gaitzazue”. Izan ere, egur hezeari hau egiten badiote, zer ez ote iharrari?».”

(Lukas 23, 27-31)



## GAUR ETA HEMEN

Jesus Gure Jauna, Jainko gizon egina eta Espiritu Santuz eragina, salatari zorrotza agertu zen orduko gizartean: bai herri-bizitzan eta bai erlijioaren alorrean; azal-mazalak kendu eta barru-barruko gizatasun garbi eta zuzenaren alde jokatu zuen. Bazekien Hark nondik nora sortuta zetozen *olatuok*. Ez zuen onartzen, besterik gabe, okerkeriagatik *biletak jo* eta *geldi egotea*. Gizonaren onerako den Aitaren Erreinua dauka begien aurrean.

Bere egoera Kalbarioan gora lastimagarria da. Hala ere, ez ditu onartzen emakumeen aienak eta zotinak: *"Egur bezeari hau egiten badie, zer ez ote die egingo igarrari? Egin negar zuengatik eta zuen seme-alabengatik"*. Hor daukagu elkartu eta jokatu beharra: familia, ohiturak, fede-bizitza, herri-arazoak eta lantegi-arazoak... Gaur guretzat da Jesusen deia.

## OTOITZA

*Guztion salbamera bilatzen duzun Aita onal Guk baino hobeto dakizu gure berri: gezurak, harrokeriak, gorrotoak, kontsumokeriak indar handia dauka gure artean. Baina zure Espiritua indartsuagoa da: bidaliezaguzu, sendotu gure makaltasuna. Elkartu eta Hurak bultza gaitzala Jesusen bideetatik, gure neurritxoan, ingurumaria zuzenduz.*

## BERTSOAK

1

Kalbario bidean  
nekez eta minez,  
gurutzepean Jesus  
ibili ezinez.

Besoetan umeak  
goxo eraginez,  
bide-ertzean amak  
hileta zotinez,  
bere alde gehiago  
zer egin jakin ez.

2

“Jerusalengo alabok,  
ez egin negarrik,  
ez arduratu behintzat  
Nigatik bakarrik.  
Ez dut egin munduan  
ezer gauza txarrik,  
ez nuen mereziko  
holako beharrik!  
Kontuz munduarekin;  
ibili itzarrik.”

3

“Baina, bai, egin negar  
eta arduratu,  
zuen seme-alabok  
ez bitez hondatu.  
Ni, on eginda gero,  
banau kondenatu,  
zeuntzat zer izango  
den hortik juzgatu;  
baduzue, bai, zertaz  
arduraz jokatu.”

36

## JESUS ETA SIMON ZIRENETARRA

### ALDI HARTAN

Ez da inor *sufritzea* zer den ez dakienik; ez dugu inork esan beharrik, nahiko dugu gure bizitzako erakutsia. Gurutze-landarea gurekin batera sortu, erne eta hazten da gure bizitzako ortuan, eta *norbera hazi-abala*, bera ere hazi egiten da. Gure izerdiz eta malkoz ez diogu uzten lehortzen. Giza izatearen atal handi bat da. Hortxe, gurutze-buztarrian ekandu eta hezi beharrekoak gara. Kontra jarriz, handiagotu besterik ez da egiten.

Jesus Jainko Semea gizon egin zenean, ezin *gurutzegabeko gizasemea* izan, ez zen *gutarra* izango. A zer nolako sufrimendu-esperientzia jasan zuen! Eta nola jasan! *Kristau heldua* horixe da: bizitzako gurutze-bidean Jesusekin topo egin duena. Kristau-gurutzea Jesusek bedeinkatutakoa da, Hurak bezala hartu eta eramaten dena. *Zireneko Simonek* ustekabean egin zuen topo Jesusekin.

"Jesus gurutziltatzera zeramatela, sorotik etxera zihoan bat, Simon Zirenekoa, hartu zuten eta gurutzea leporatu zioten, Jesusen ondotik eraman zezan. Herriko jendetalde handia zihoan Jesusen ondoren, baita emakume asko ere bularjoka eta Harengatik aieneka. Itzuli zen Jesus haiengana eta esan zien: «Jerusalengo emakumeok, ez egin negarrik Niregatik; egizue negar zeuengatik eta zeuen seme-alabengatik»."

(Lukas 23, 26-28)

## GAUR ETA HEMEN

*Sufritzea*, besterik gabe, ez da nahiko Jesusen jarraitzaile izateko. Hurak bezala gurutzea besarkatu egin behar da, eta Espiritu-indarrez eta apaltasunez eraman. Simonek ez zekien nor zenik ere Jesus hori, ez zuen izan Hurarekin inoiz ere harremanik. Gogo txarrez hartu zuen Jesusen gurutzea. Baina gurutzedunaren jokaera eta portakizunak ikusita, gogo onez lagundu zion azkenera iritsi arte. Hura da *ezezagun* zaion Jainko Semeari gurutzea eramaten lagundu zion gizona. *Titulu* ederra, ezta? Gaur *kristau martirien* artean agertzen zaigu santutegian.

*Ezezagun* bati gurutzea eramaten laguntzea izan zen, Simon Jesusekin topo egitera eraman zuena. Maitasunez onartu eta besarkatzen den gurutzeak ontzen du gizona, ez bestelakoak. *Kontuak atera*: Jesus Bera geratu zaigu gure artean *ezezagun* eginda, gurutzedunen ondoan. *Horrelako batekin egiten dena Berarekin egiten dugula*, Berak esan zigun. Badugu, orduan, aukerarik asko, eta urrun joan gabe, Gurutzedun Jesusekin topo egiteko. Aukera ederra, ezta?

## OTOITZA

Pozetan eta negarretan seme-alabon ondoan zaitugun Aita zintzoa! Zure Semea lurreko gaixo eta behartsuekin bat eginda azaldu eta geratu zaigu. Orain gure txanda da, Aita, zure seme-alaba gurutzedunen Kalbario-bideko laguntzaile izateko. Bete gaitzazu zure errukiz eta maitasunez, zure izenean, eta ahal dugun guztian, beraien laguntzaile izan gaitezen. Zuk gure bihotz, esku eta sorbaldak behar dituzu, Aita maitale azaltzeko beraien ondoan. Hartu, bada, Jauna, gu garen guztia, behar den tokian eta ahal dugun guztian laguntzeko.

## BERTSOAK

1

Gurutze astun baten azpian  
Kalbarioko bidean,  
Jainko Semea gizon eginda  
hor eraman ezinean.  
Gorputza makal, odol hustuta  
jausi-jeikika batean,  
hor doa Ama negar-malkotan  
begi-bihotzak betean;  
ez al da inor errukituko  
hainbeste lagun artean?

2

Hor dator Simon Zirenetarra  
solo-lanetik etxera,  
ustekabeen behartu dute  
Jesusi laguntzera.  
Ez daki nor den, ez zergatik  
bota duten gurutzera;  
berak behingoan antz eman zion  
gizon on baten antzera,  
bere bizkarra prest jarri zuen  
Jesusenakin batera.

3

Jesus aurretik, Simon atzetik  
gurutze bien gainean,  
gurutze batek elkartzen ditu  
ordukoz ezjakinean.  
Gurutzepean biak isilik  
elkarlaguntza finean.  
Gure Simon hau ezagutzen da  
fededunen dotrinean:  
lagundu zion gizona dela  
Jainkoari ezinean.

# 37

## JESUS ETA AMA KALBARIOAN

### ALDI HARTAN

Mendiak ez du mendia behar, baina gizonak bai gizona. Laguntza emateko ala eskatzeko behar da apaltasun gehiago? Jainkoak inoren laguntzarik gabe egin zituen gizona eta mundua; orain gizonaren laguntza behar, bai gizona bera eta bizi den mundua salbatzeko. Jainko *abalguztiduna* ala *gurutzeduna* handiago? Maitagarriago? Handiak asko hartu du, asko dauka; bihotz handikoa bada, besteekin egingo du erdibana. Asko edukitzeak ala asko laguntzeak egiten gaitu handi?

Jainkoaren Semea, munduan agertzera koan, txiki, makal, dena beharrean agertu zitzaigun. Gero —eta gaur ere bai!— gu behar gaitu bere *salbamen-bideak* aurrera eramateko. Hori bai, *baietz* eman eta betetzen dakitenen bitartez. Orain arteko historiari begira, —*salbamen-kondaira* baita— zenbat gizon-emakume azaltzen zitzaizkigun Aitaren gogo hori gauzatzen han-hemen. Zer esanik ere ez: *Maria* dela denen artean nagusi.

“Jesusen gurutzearen ondoan zeuden Haren Ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea, eta Magdalako Maria. Jesusek, bere Ama eta honen ondoan maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion Amari: «Emakume, horra hor zure semea».

Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zure ama».

Eta ordudanik ikasleak bere etxean hartu zuen.”

(Joan 19, 25-27)

**GAUR ETA HEMEN**

*Kalbario* asko dago gaurko munduan ere: errukarri askoren bizitzan jarraitzen du Jesu-kristok hil-zorian. Orduan Maria, bere Ama izan zuen lagun, hurarekin batera sufritu, bakardadean lagundu eta hil ondoren bere altzo beroan hartzeko. Gaur ere Mariaren amatasunez beteriko asko behar ditu Jesusek, seme-alaba errukarri askoren negarrak gozatu eta gurutze astunak eramaten laguntzeko. Maria da Jesusen nekaldian parte hartzera dei egiten digun Ama. Joanek ez zuen ardura txikia hartu. Hori da Mariaren seme leiala izatea.

Kalbarioko Jesusekin topo egitean, nahitaez, bere Ama Mariarekin ere topo egin behar. Maria izan da Jesusen gurutzeko oparian lehenen parte hartu duena, bere samintasunak Jesusekin bat eginda, Aitari oparizat eskaini zizkiona. "*Horra hor, zure Ama*", Mariarekin topo egiteak Jesusengana darama. Kalbarioko Jesusekin eta munduan betiko kalbarioetako gurutzedunekin. *Deboziozko aiene eta oieneka* ezin gara gelditu Kalbarioan; beste asko daude inguruan aieneka; horiek zaintzera eta laguntzera bidaltzen gaituzte Jesus eta Mariak.

**OTOITZA**

*Kalbarioko opari ederraren bitartez salbatzen gaituzun Aita bedeinkatua! Askokostata zeureganatu gaituzu; ziur gaude ez gaituzula hain erraz galtzen utziko. Zure Seme Jesus eta zure alaba Maria bai esanekoak! Behin emandako "baietzak" noraino eraman dituen! Beraien baietzari esker sortu duzu gure "Familia" berria. Eta gu ere senitarte berriko seme-alaba gara. Eskerrik asko, Aita! Ama-Semeak biak izango ditugu beti begi-aurrean, Zureganako leialtasunean irauteko, eta gure bitarteko zintzo zure aurrean.*

**BERTSOAK**

1

Kalbarioan ikusten dugu  
egundoko pelikula,  
negargarri ta tristeagorik  
ez da ikusi sekula.  
Gaiztakerian lortu dugunok  
primerako matrikula,  
ontasunean nola atera  
Mariak esan deigula.

2

Jesusek dio: "Ama, egarri!  
Ez al daukazu urik?"  
Amak ur-ordez malko garratzak,  
han dena dago sikurik.  
Inoiz munduan izan ote du  
amak holako traturik?  
Pixkatxo baten egon gaitezen  
berarekin elkarturik.

3

Ama bakarrik utzi beharra,  
hau Jesusen esturea!  
"Horra gaur arte nire Ama hau  
gaurtik aurrera zurea."  
Horra Jesusek agertu digun  
neurriz gain ongurea;  
Ama-semeok izan daigula  
bai elkarren ardurea.

4

Amak altzoan dauka Semea,  
ia dirudi ametsa;  
gorputz osoa zauri gorritan,  
listu, izerdi, lupetza...  
On eginaren esker gaiztoa,  
oi munduaren traketsa!  
Baina Amari ez zaio damu  
lehen emandako baietza.

38

## JESUS ETA LAPUR ONA

## ALDI HARTAN

Gizakia beti dabil *bila* zer edo ha. Barruko egarri ase-ezinak darabil gizona bate-tik bestera. Bila dabilena eskuratu orduko, sentipen desberdinak jotzen dute: "*Hau al da dena?*", "*Ez dago besterik, gelditu nadin bertan*", "*Hor nonbaiten egon behar du ni aseko nuena*"... Eta berriro ere bila eta bila, erlea eta tximeleta bezala lorez lore.

Guk kristauok bilatzen dugun hori *Jainkoa* bera da, azken batean. "*Zuretzat egin gintuzun, Jauna, eta gure bihotza artega dago Zugan atsedean hartu arte.*" Baina ezin gu Jainko bila zuzenean hasi, lehendik Hura gudan ez badago eragiten. Bera dabil gure bila, gu bere bila baino lehenagotik. Gaitzena, bilaketaren bilaketaz aspertuta, bideko *sasijainkotxoren* baten katigu gelditzea! Bilaketa miragarria hauxe, non eta zerk asetuko gaituen jakiteke, beti *haruntzago* bultzatzen gaituena! Benetako ondasunarekin topo egitean, bestelako *lapurretak* hutsesan gelditzen dira. Jesusen ondoko *lapur ona* testigu.

“Zintzilik zeuden gaizkileetako bat Jesusi irainka ari zitaion, esanez: «Ez al haiz, bada, hi Mesias? Salba ezak heure burua eta salbatu gu ere!».

Baina besteak errieta egin zion hori zioenari: «Ez al duk Jainkoaren beldurrik, zigorra jasaten hagoela ere? Gurea legezkoa duk, geure egintzengatik merezia baitugu; baina honek ez dik okerrik egin».

Gero, gaineratu zuen: «Jesus, oroit zaitez nitaz errege izatera iritsiko zarenean».

Jesusek erantzun zion: «Benetan diotsut: Gaur Nirekin izango zara paradisu».

(Lukas 23, 39-43)

## GAUR ETA HEMEN

Lapur ona? Lapur izateaz damutu eta onbideratu dena bai. Lehen erdizkako eta bide okerreko ondasunen bilaketak hondamendia ekarri die; orain, ustekabeen, ondasunik ederrenarekin topo egin du: *Jesus Salbatzailearekin*. Betiko eta bete-beteko topaketa! Non eta Gurutzean! Norekin eta Jesus Berarekin! Eta irabazi? Betiko zorion betea. Horregatik bai dela *lapur ona*. Ez al zenuke nahi horrelako lapurretaren bat egitea?

Jauna beti dabil gure bila, gu noiz iratzartuko zain: ospakizun bat, gaixoaldian, lagun zintzo bat, ezbeharren bat... denetan dago Jesus gure zain, denak dira bide eta aukera Jesusekin topo egiteko. Bakoitzak dugu gure ordua, aukera. Ez, bada, alperrik galtzen utzi. Gurutzean, sufrimenduan Jesusekin topo egiteak zer *ondorio* dakarren: gurutzea onartzea, lagunari laguntzea; azken batean, “*Gaur Nirekin egongo zara paradisu*”.



## OTOITZA

Gizaki guztion zoriona bilatzen duzun Aita ona! Benetan ulertu ezinēkoa da guri diguzun maitasuna! Antza denez, gu gabe ezin zara zoriontsu izan. Bizitzako "ezkutu" guztietan zaude zain, gu noiz Zutaz konturatuko. Eta beti besarkatzeko prest, besoak eta atea zabalik, batez ere "bihotza". Argi iezaguzu, horrelako "gurutzeren" batean Zurekin topo egin dezagun Jesusen bitartez. Lapur gaiztoak irabazten dakizun Jesus "Lapur Ona", zureganatu gaitzazu, zureak baikara.

## BERTSOAK

1

Kalbarioan hiru gurutze  
ta gizon bat bakoitzean,  
lapur lagunak biraoka ta  
Jesus, berriz, otoitzean.  
Hau ikusita, eskubikoa  
ukituta bihotzean,  
zeru ederra lapurtu zuen  
Jesusen heriotzean.

2

"Oroitu nitaz, Jainko Semea,  
zerura zoazenean",  
Jesus onari begira dio  
lapurrak sinesmenean.  
"Nirekin ziur izango zara  
betiko zorionean",  
leiho ta zulo denak baino hobe  
atera jo zuzenean.

3

"Oi lapur lagun, zer diharduk hor,  
hago mesedez isilik,  
hamaika kalte egin diagu  
eta banaka bat hilik.  
Merezitako zigorra duk hau,  
urkamendian zintzilik."  
Eta berari han gertatua  
aitortu zion umilik.

4

Lapurretarik onena hauxe:  
betiko paradisua,  
bertan sartzeko atezain Jesus,  
bihotz on errukitsua.  
Zeru-atoko giltza eskuan,  
jaso ongi abisua:  
lapur ta gaizto guztiontzako  
aurkitu dugu maixua.

# 39

## JESUS ETA MAGDALAKO MARIA

### ALDI HARTAN

Behin *haizea* eta *eguzkia* norgehiagoka hasi omen ziren: *Nork kenduaraziko lehenago gizonari txapela burutik*. Haizeak putz eta... huts! Jo gogorrago eta txapela barrurago. Eguzkiak ukitu, berotu eta burua eta ingurua izerditan. Kanpora txapela! Ikusten? Gizakiaren bihotzean ere maitasun-eguzkiak indar gehiago du, beldur-haizeak baino, gizakia onera bultzatzeko. Gizakia maitasunez askatzen eta aldatzen da.

Kristau-bizitzan, hala ere, toki gehiago eman zaio sarri beldurrari, maitasunari baino. Ez, gero, Jesusen Ebanjelioak eraginda! Ez horixe! Guk gure harremanetan, *egurra* gehiago erabiltzen dugulako edo, Jainkoa ere halaxe delakoan. *Magdalako Mari* testigu. Lehenago lotsak eta beldurrak galdua, hondatu egin zen. Geroago, Jesusekin topo egitean, bere errukiak eta maitasunak aldatu zuten.

“Jesusen gurutzearen ondoan zeuden Haren Ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea, eta Magdalako Maria.”

(Joan 19, 25)

“Maria hilobi ondoan gelditu zen, kanpoan negarrez. [...]

«Emakume, zergatik ari zara negarrez?»

Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten». [...]

Jesusek esan zion: «Emakume, zergatik ari zara negarrez? Noren bila zabilta?».

Hark, baratzazaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baldin baduzu, esadazu non ipini duzun, eta neuk jasoko dut».

Jesusek esan zion: «Maria!».

Honek, hurbilduz, esan zion hebraieraz: «Rabbuni! (hau da, Maisu).”

(Joan 20, 11.13.15-16)

**GAUR ETA HEMEN**

Marik herririk herri zebilen Jesus errukitsua eta onartzailea ezagutu zuen. Bere ontasunak irabazi zuen Mari. Asko zor zion. Hil ondoren ere, huraxe doa lehenengo hilobira. Jainko *Gizonaren Seme* eginarekin topo egin zuenean, guztiz aldatu zen; orain Jainko Seme berpiztuarekin topo egitean, nork neurtu esperientzia zoragarri horren betetasuna? Eta haren ondorengo bizitza? Hura izan zen Jesus berpiztuaren lehen testigu, apostoluen apostolu.

Horra zer den Jesusekin topo egitea: bere argiz eta bizi berriz beterik sentitzea, bizikera osoa aldatuz. Horrelakoa *baikorra da, itxaropentsua, nekaezina, alaia, kutsakorra*. Gaur eta hemen ahal ote da Jesus horrekin topo egin? *Baietz* diote askok, eta beraien bizitzan ere antzematen zaie. Badira lagunartak, otoitz-taldeak, mugimenduak, horretarako giroa sortu eta Jesusekin topo egiteko aukera ederra eskaintzen dutenak.

**OTOITZA**

*Gugandik hurbil-hurbilean zaitugun Aita bihozbera! Jesus bidali diguzu, bere bitartez, Zuk gurekin topo egin nahirik. Hori da diguzun maitasun handia! Aita, joka ezazu beti zure errukiaren arabera, ez gure pekatuen edo merituen neurrira. Erakutsiezaguzu zure erruki handia; argitu gure begiak, zure maitasunez bete gure bihotzak. Zerorrek egin gaitzazu zure testigu.*

**BERTSOAK**

1

Gaur Magdalako Maria dugu  
pekatari ezaguna,  
guk "Madalena" bezela hemen  
ezagunago duguna.  
Ze suertea Jesus ikusi  
ta entzun zuen eguna!  
Jesus izan zen bakarrik bera  
askatu zuen Laguna.

2

Bila ta bila zebilen beti  
non hartuko atsegina,  
edanago ta egarriago  
barneko egarri-mina.  
Txastatu zuen Jesus sek zion  
maitasun garbi ta fina,  
lehen zerbait zena, orain norbait da:  
emakume erregina.

3

Gogo-bihotzez aldatzen denak  
 aldatzen ditu bideak,  
 Mariak ere aldatu ditu  
 lehengo pekatu-kideak.  
 Izen ta guzti ezagun ditu  
 Jesusen adiskideak,  
 beren artean berdinak dira,  
 denak dira senideak.

4

Maite du Jesus, nahiz txalotua,  
 nahiz zapaldua gurutzez,  
 bere ondoan hortxe daukagu  
 saminduta umezurtzez.  
 Bere barnean bizirik dago  
 nahiz hilda egon gorputzez,  
 zenbateraino ote zegoen  
 bete-beterik Jesusez!

5

“Piztu da Jesus” entzun orduko  
 Mariaren zoramena!  
 Maitasuna den lekuan erraz  
 loratzen da sinesmena.  
 Ikasleengana joan ta esan  
 zien aingeruarena;  
 lehen pekatari, gaur apostolu,  
 horixe da Madalena.

40

## JESUS ETA APOSTOLUAK ELKARBIZITZAN

### ALDI HARTAN

Izadia beti izan da eskola egoki aberatsa gizakiarentat. Esaterako, a zer erakutsia ematen diguten *erleak* beraien joan-etorrien ordenaz eta elkarlanerako jokeraz! Banan-banan txikiak dira, baina batera indartsuak, bai eztigintzan, bai eztenmintzan. Giza esperientzian agertzen denez, gizabanakoak laster jotzen du bazterra; elkarlanean dago indarra.

Hau kontraesana! Elkarbizitzan eta lanean egon etorkizuna, eta gizakiontzat berezko joera: “*nik neronek neronentzat*”. Erlijio-arloan ere berdintsu gertatzen zaigu: “*Zuk egin zurea, eta besteei utzi bakean*”, “*Zuk salbatu zure arima, eta ez sartu inoren arazoetan*”... “*Ni konpontzen naiz nire kontzientziaz eta Jainkoarekin*”. Hortik sortzen dira kristau askoren *xelebrekeriak*.

“Geroxeago, berriro agertu zitzaien Jesus bere ikasleei Tiberiades laku-ertzean. Honela gertatu zen agerpena: Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Tomas —Bizkia zeritzana—, Natanael —Galileako Kanakoa—, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Hortan, Simon Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Besteek erantzun zioten: «Zurekin goaz gu ere». Irten eta untziratu egin ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu. Eguna argitu zuenean, laku-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilok, baduzue jatekorik?». Haiak erantzun: «Ez». Jesusek esan zien: «Bota sarea txaluparen eskuinera eta aurkituko duzue». Halan egin zuten. Eta hainbeste arrain harrapatu zuten, ez ziren sarea ateratzeko gauza. Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela entzun bezain laster, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta salto egin zuen uretara. Gainerako ikasleak txalupaz joan ziren, sarea arrainekin tiraka zekartela, lehorretik hurbil baitziren, ehunen bat metrora. Lehorreratzean, su-txingarrak ikusi zituzten, gainean arrain bat zela, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetariko batzuk». Igo zen untzira Simon Pedro eta lehorrera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz bete. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea apurtu. Jesusek esan zien: «Etorri gosaltzera». Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, ongi baitzekiten

Jauna zena. Orduan, Jesus, hurbildurik, ogia hartu eta eman egin zien, baita arraina ere. Hirugarren aldia zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, bere ikasleei agertzen zitzaiena.”

(Joan 21, 1-14)

### GAUR ETA HEMEN

Jesusekin izandako esperientziak, gero ere, elkartean bizitzera bultzatzen zituen. Jesusekin bat egiteak, beraiek ere batera bizitera eramane zituen. Jesus *elkarbizitza-zalea* izan zen berpiztuta gero ere. Elkarrekin otoitz eta lanean zeundela azaltzen zitzaien gehien baten Jesus. *Elkarbizitza* eta *elkarlana* dira, Jesusen esanez, bere *Presentzia* gauzatzeko gunerik egokiena.

Jesus ez da joan inora, gudan dago; bizikizun hauxe bizitzen dute apostoluek: “*Su-txingarra piztuta —arrain erreak sutan—*”, “*ekarri arrain harrapatu berri batzuk*”, “*etorri gosaltzera*”... Ogi-arrainak zerbitu zizkien. Hona Jesus gurekin bizitza barruan: *otoitzean bezala, lanean, sukaldean, kalean, gaixo-etxean, bidean*... Zer deritzazu: Jesusekin topo egin ahal izatea noiznahi, nonahi? Batez ere, elkarbizitzan eta elkarlanean gabiltzanean. Hau bai bizitza gozoa eta kutsagarria!

## **OTOITZA**

*Jesusengan gugana hurreratu zaren Aita ona!  
Gugan, gurekin eta gureztat izateko bidali  
zenuen Jesus, eta ez gaitu "umezurtz" utzi.  
Eskerrak Berari, gurekin eta gu elkarrekin elkar-  
bizitza estuan bizi ginateke. Eraman gaitzazu,  
Aita, Espirituaren laguntzaz, Jesusen Presentzia  
gozatzer. Orduan kutsatuko dugu bizi-pozez  
eta baikortasunez gure ingurua. Bizikeraz izan  
nahi dugu Jesusen Presentziaren lekuko.*

## **BERTSOAK**

1

Jesus berpiztuta gero  
elkarrekin egunero,  
bai otoitzean, bai arrantzuan,  
buru zela Pedro.  
Elkartean bero-bero,  
denak elkarren bezero;  
hainbeste aldiz ikusi zuten  
Jesus harrezkero.

2

Halako egun batean,  
egunsentia argitzean,  
arrain alerik gabe gau osoz,  
pena bihotzean.  
Lagun bat itsas ertzean,  
pixka bat hurreratzean,  
deadar baten aritu zaie  
aixkide antzean:

3

"Mutilok, ba al da arrainik?"  
"Ezta bat bera ziztrinik."  
"Bota sareak eskuialdera  
jira bat eginik."  
Lehen hutsik ta pot eginik,  
orain eramanez ezinik...  
Kezkatan jarri ziren guztiak  
nor zen ez jakinik.

4

"Jauna dela", gure Juan  
konturatu da orduan;  
entzunda, Pedrok zapart egin du  
zegoen moduan.  
Berrito bere onduan,  
horrelakorik zer da munduan!  
Jesusek Berak elkartzen ditu  
jateko orduan.

# 41

## JESUS ETA EMAUSTARRAK

### ALDI HARTAN

Usteak, erdiak ustelak. Beti ere, orbel gehiago hankazpian, sagar-garauak adarretan baino. Gure bizi-esperientzia gozo-garratzez osaturik dago, biak nahastean behar dute. Ez dago gozorik, garratz pitin gaberik, ez dago garratzik gozo ttanttarik gabe. Gizaki helduaren *ezaugarri* omen da honako hau: Bizitzako gozo-garratzekin bere burua sendatu duena: ez gozoz mozkortu, ez garratzez erremindu. Beti eragiten digu gehiago garratzak, gozoak baino.

Hauxe da gogorrena: *bizi-zentzuna, arrazoibidea* galtzea. Neke-arazoen kontua ez da dena; norik eta nola hartzen eta bizitzen duen, asko esan nahi du. Harriak lepora jasotzeko besoetako indarra bezala, gurutzeak jasotzeko ere gogo-indarra behar. Batean zein bestean sendo-makalean dago dena. Ikus Emausko bidean doazenei:

“Egun hartan bertan, ikasleetako bi Emaus izeneko herriska batera zihoazen, Jerusalem-dik hamaika kilometrora. Gertakari guztietaz mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus bera ondoratu zitzairen eta beraiekin joan zen. Baina ikasleek begiak itsu zituzten eta ez zuten eza-gutu. Jesusek esan zien: «Zeri buruz zoazte bidean elkarrekin hizketan?». Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta beraietako batek, Kleofas zeritzanak, honela erantzun zion: «Zeu izango zara egun hauetan Jerusalem-en gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!». «Zer gertatu da, bada?» —esan zien hark—. Haiek erantzun zioten: «Jesus Nazaretarrarena». [...]

Orduan, Jesusek esan zien: «Bai buru gutxi-koak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez ote zuen Mesiasak hori guztia sufritu behar bere aintzara iristeko?».

Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek Berari buruz zioten guztia azaldu zien. [...]

Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitetz gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Ondoren, elkarrekin mahaian jarri ziren, eta Jesusek, ogia harturik, bedeinkazioa esan, zatitu eta eman egin zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu egin zuten.”

(Lukas 24, 13-20.25-27.29-31)

**GAUR ETA HEMEN**

"Guk uste genuen..." "Bai zentzungabekoak zaretela!" Hor dago gakoa: bizi-zentzunak huts egin. Lehenagoko uste eta amets gozoak gehiago egin, oraingo *errealitate gordinak* baino. Baina zentzuna argitu ahala, begi-bihotzak gozatu, bidea laburtu, bizi-poza gehitu... Eta porrotik astunena zirudiena, betebeharreko eginkizunik ederrena bezala ikustea.

Sekretoa ez da bizitzako gurutzea aldatzea, norbera barruko ilunpetik argira aldatzea baino. Egoera bakoitza aztertu behar da, eta ez unean uneko porrotaren azpian gelditu. Horretarako onena: *Jesus Berpiztuarekin topo egitea*. Hori da fede-argiaren *zentral* bakarra. Egoera berdinen aurrean zein jarrera desberdinak hartzen diren! *Zentzundunak* ala *zentzungabekoak* izatea da kontua. Eta non eta nola aurkitu bizi-zentzuna?

**OTOITZA**

Gure bide-lagun izatera zure Semea bidali diguzun Aita ona! Argitu iezazkiguzu gure bihotz-begiak, beti gure ondoan dugun Jesus ezagutzeko. Berari entzunaz, Berari jarraituz, Zu ezagutu nahi zaitugu. Emaiguzu zure Hitz santuaren egarria, zure gogoia agertu diezagun eta gure bizitzako zokondoak argitu diezazkigun. Gure kristau-elkartearen berotasunean iraun dezagun, munduko bideak amaitzean, zure Erreinuko Mahaira iritsi arte.

**BERTSOAK**

1

Burumakur ta isilik  
gaur Emausko bidean,  
biak bakardadean;  
ikusiak ikusita  
dena dago aidean.  
Ezezagun bat sartu da  
bien atzekaldean,  
eta blaust bat-batean:  
"Ze kontu dakarkizue  
hemen zuon artean?"



2

“Nongo kanpotar zaitugu  
 zer den ez dakizuna  
 gaurko gertakizuna:  
 Nazareteko Jesusen  
 azken triste iluna?  
 Bera Mesias zela ta...  
 Berak esan ziguna.  
 Guk eman erantzuna;  
 gurutzean hil dute eta  
 hau da etorkizuna!”

3

“Gaua da ta geldi zaitez,  
 har gurekin ostatu”;  
 eskatu ta eskatu,  
 beurekin gelditu zen ta  
 Afaria ospatu.  
 Bizi zela ohi zuenez,  
 ogia bedeinkatu  
 ta eskuz zatikatu...  
 Orduan ezagutu ta  
 nahi zuten besarkatu.

42

## JESUS ETA TOMAS

### ALDI HARTAN

Gizona beti sentitu da munduaren *jabe*, eta era berdinean, gaintiko indarren *mirabe*. Ezin moldatu bere bizitzako gora-beherak bere gogora. Ezin bere neurrian konforme bizi. Horregatik gehiagotan entzuten ditugu *hileta-kanpaiak*, *Pazkoetako txilin-hotsak* baino. “*Dena oker, dena gezur, dena lapur...*” Irrati-telebistak dira hileta-kanpairik nagusienak. Gauza onik ere bada, ba, bazterretan!

Gauza denak dute beraien alderdi ona eta txarra. Harrigarria haxe: ontzi berdina, bazuentzat erdi betea eta besteentzat erdi hustua. Mahaiko ontziarena ez da kontua, norberaren barruko ontziaren baizik. Badira itxaropenez eta gogo argiz jokatzen dutenak, baina gehiago hileta-kanpaiko kateari tiraka ari direnak: “*Nik hori... ikusi eta sinestu*”. Hori Tomasek egin zuen, baina ez zuen ondo egin, Jesusen eritziz.

“Tomas, Hamabietako bat, Bizkia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Elkartu zirenean, beste ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltzeen seinalea ikusten ez badut, eta nire atzamarra iltze-zuloetan eta nire eskua haren saihets-zuloan sartzen ez badut, ez dut inola ere sinetsiko».

Zortzi egunen buruan, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere bertan zen. Ateak itxirik zeuden arren, sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: «Bakea zuei». Gero, esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra eta aztertu nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihets-zuloan. Eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!». Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».”

(Joan 20, 24-29)

## GAUR ETA HEMEN

*Testiguak:* ikusi eta bizi izandakoa iragaritzen dutenak, bai hitzez eta bai jokabidez. Batez ere, kristau artean aritzen garenean. Tomasen kasuan, Jesus Berpiztua ikusi zutenak ziren Jesusen testigu; baina Tomasen erantzuna: “*Nik ikusi, entzun, ukitu, eskuak saibetsean sartu behar ditut, eta gero sinetsi*”. Jesusen erantzuna zorrotza izan zen: “**Zorionekoak ikusi gabe, sinesten dutenak!**”. Gu nolakoak gara: Tomasen ala Jesusen eritzikoak? Bai gero!

Gaur egun ere, Jesus “*ikusi*” dutenak badira gure artean: beraien esperientziak agertzen dizkigute, beraien bizikera berriak erakusten du. Eta *testiguen bitartez* izan ezik, guk ez daukagu Jesusengan sinesterik. “*Zorionean sartu nintzen balako mugimenduan! Hantxe ezagutu nuen Jesus.*” Beste batek: “*Zorioneko eguna, balako lagun zintzo bat burreratu eta kristau-bizitza alaita bizitzeko bidea erakutsi zidana*”, “*Zorionekoa ni, balako gurasoen etxean jaiotzen nintzelako!*”. Entzun duzu horrelakorik? Eta zu inorentzat bazara testigu? Nola?

## OTOITZA

Aita Jainko maitea! Zuk bakarrik dakizu nor den Jesus, eta Zuk Espiritu Santuaren bitartez erakusten diozunak. Gugatik bidali baduzu, guk Jesus hori ezagutzea nahi duzu. Bidal ezazu Espiritu Santua, gure bihotzeko begiak argitu diezazkigun, eta gure bide-lagun den Jesus ondoan ezagutu dezagun. Aita zintzoa! Bidali gure familietara, parrokiatar, toki guztietara fede-argitan Jesus ikusi eta ezagutu duten "testiguak", beraien laguntzaz, zure Herriak zure maitasunean iraun dezan.

## BERTSOAK

1

"Jesus omen da berpiztu,  
ikusi eta sinistu."  
Fede-bidean orduan ta gaur  
bada hainbeste arrisku;  
dudak argitu eta sinesten  
Tomasek lagundu beisku.

2

"Baietz, Jesus piztu dala,  
Berekin egon dirala."  
Baina Tomasek dena ukatu  
ikasleek esan-ahala:  
"Neuk neure begiz ikusi eta  
eskuz uki dezadala".

3

Handik zortzi egunera,  
ikasle denak batera:  
ate-leihoak itxita egon  
eta Jesus blast aurrera...  
Ai gure Tomas hau ikusita  
dardarka ta buruz behera!

4

"Erdu, Tomas, ta ikutu,  
ikusi ta ezagutu."  
"Ene Jaun eta ene Jainkoa!"  
Tomas ahozpez eta mutu.  
Bere lagunei sinestu ezaz  
bai mila bider damutu!

5

"Ez izan hain burugogor,  
eta bai gizon sineskor.  
Ikusi eta ukitu behar,  
ta zer meritu dago hor?  
Hutsean Nigan sinestedunak  
zorioneko ta jator!"

6

Sinestu nahi ta ezina,  
alperrik da ahalegina!  
Dohaia da Zeuk maitasun hutsez  
nahi duzunari egina;  
Zu nor zaitudan Zeuk esaidazu,  
ni ez bai naiz zure dina.

## 43

## JESUS ETA BIDALIAK

## ALDI HARTAN

Gizakiak beti izan du *goiko* zerbaiten edo norbaiten sineskera. Hori berarengan daraman berezko sena da. Jaunak gizakiari bere sus-traietan ezarritako joera? Erljio denek dituzte egia-izpiren batzuk, denetan dira gizon-emakume jatorrak. Gehienetan beldurrez sentitzen da gizakia goiko horren mendean; ahaleginak egiten ditu *opariz* edo *eskariz* bera biguntzeko, norberaren alde jartzeko; batez ere, *kontrolatu* ezineko indarren aurrean.

Eta guk kristauok, zer? *Jueza* den Jainkoarengandik aldatu al gara Jesusen eta gure *Aita* den Jainkoarengana? Maitasunak ala beldurrak ahal du gehiago gugan? Sarritan kezka gauden: *Maite ote gaitu Jainkoak? Ostiral Santuz* ala *Pazko Larunbatez* biltzen gara kristau gehiago elizkizunetan? Gurutzean hil den Jesusek ala hilen artetik piztu den Kristok eragiten digu gehiago?

“Jesus Hamabiei agertu zitzairen eta honela esan zien: «Zoazte mundu guztian zehar eta hotsegin Berriona izaki guztiei. Sinesten eta bataiatzen den oro, salbatua izango da; sinesten ez duena, berriz, kondenatua. Sinestundek seinale hauek izango dituzte berekin: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berriz mintzatuko dira, sugeak eskutian hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanik ere, ez die gaitzik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

Horrela hitzegin ondoren, Jesus Jauna zerura jaso izan zen eta Jainkoaren eskuinean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berriona hotsegitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez mezua baietsiz.”

(Markos 16, 15-20)

## GAUR ETA HEMEN

Jesus Aitak, *bidalia* sentitzen da, Haren nahia bete behar du denen gainetik. Eta Jesusek Apostoluak bidaltzen ditu, hasiberri uzten duen Aitaren Erreinua *aldi* eta *alde* guztietan iragartzera: *elkarmaitasunezko bizi berria*. Egiteko ezinhobea eman dio Elizari! (Eman digu guri!)

Jesus Bera ere hemen geratu zaigu: **“Ez zaituztet umezurtz utziko. Ni beti zuokin izango nauzue munduaren azken era arte”**. Bere **ARNASA** dugu lagun eta bultzatzaile eginbeharretan zintzo iraun dezagun. Gizaldietan zenbat pekatu, eta zenbat santu eta martiri Elizan! Gaur gure *txanda* da. Ba al dugu *Jesusen Arnasarik*? Hau da: Egin ote dugu Jesusekin topo? *Jesusek bidalitakoak sentitzen al gara*, bakoitzari hartu ditugun dohaiez eta bokazioz? Bizian Gora horretarako da: *nagusien artean “bokaziodunak” sortzeko*. Zer deritzazu?

## OTOITZA

*Gu denokin kontatzen duzun Aita! Zuk gure eskuetan utzi duzun alorra zaindu nahi genuke, zure Erreinuko hazia ereinez gure inguruan. Gehi ezazu gudan Zuk “bidaliak garenaren kontzientzia”. Zure Espirituak lagun diezagun, Berak bedeinkatu eta senda dezala gure eragin apala. Zeuk, Jesusen bitartez, bedeinkatu eta ugaritu guk ereiten dugun hazia.*

## BERTSOAK

1

Aitarengandik etorri eta  
Aitarengana joatean,  
Jesus elkartu zen lagunekin  
halako mendi batean.  
Batetik pozik, bestetik triste,  
malkoz begiak betean,  
zer egin argi agertzen die  
berriz etorri artean.

2

“Ni banoa ta zuok zarete  
munduan nire lekuko,  
mundua mundu zuen bitartez  
naute Ni ezagutuko.  
Beti izango naiz Ni zuekin  
ta zuek ez egin uko,  
sekula santan Aitarenean  
ez zaituztet, ez, ahaztuko.”

3

Hau izango da munduan nire  
 presentziaren seinale:  
 neure antzera beti agertuz  
 behartsu ta gaixozale.  
 Pekatarien lagun zintzo ta  
 arerioen maitale,  
 hola bakarrik jarraituko dut  
 munduaren Salbatzaile.

4

Zeruko Aitak bidali eta  
 etorri nintzen mundura,  
 gaur Neuk bidaltzen zaituztet berdin  
 nire ordezko modura.  
 Gure izenez barkatu eta  
 bota bateoko ura,  
 hau sinesmenez eginez, ziur  
 sartzen dela bat zerura.

5

Jaunak emanda Elizak badu  
 betebeharrak agindua,  
 sarri askotan zigortua da  
 ta bestetan saritua.  
 Jesus Bera da buru ta indar,  
 ez da gure meritua,  
 beti gurekin dabil lanean  
 Jesusen Espiritua.

44

## JESUS ETA PAULO APOSTOLUA

### ALDI HARTAN

Giza bizitza *ezustekoz* beterik dago, bai bere barruan eta bai bere inguruan. Horrelakoetan, batzuk *balanbeharrez* gertatzen direla diote; beste batzuk, *Jainkoak nahita*. Jainkoak nahita zein ez nahita, baina bizitzako *olatu-kolpeak* ontzi asko astintzen du eta barrukoak iratzartu ere bai. Norbera ibili ohi da *sare* eta *sasi* artean gatibu: beharrezkoenak diren arazoak alde batera utzita. Eragin gogorra behar da senera bihurtzeko. Kaltegarri zelakoan, a ze mesedea!

*Zaldi* edo *asto* gainetik erortzean —*kontuan jaustea da kontua!*— galderarik sakonenak sortzen dira barrenean: **“Nor zaitut Zu?”**, **“Zer egitea nahi duzu?”**. Lehen hain seguru, orain dena dantzan. Lurrikaretan arrakalatzten dira lur gogorra eta harriak; eta lur lehorrean ibaiak sortzen dira. Nork esango zion Saulo sutsuari Damaskorako bidean horrelakorik gertatuko zaionik?

“Damaskorantz zihoala, bertatik hurbil, bapatean zerutiko argi batek distiraz inguratu zuen. Lurrera erori zen eta mintzo hau entzun zuen: «Saulo, Saulo, zergatik pertsegitzen nauzu?». «Nor zaitut, Jauna?» —galdetu zuen Saulok—. «Jesus naiz, Zuk pertsegitzen duzuna. Orain, jaiki eta sartu hirian; han esango dizute zer egin behar duzun».

Haren bide-lagunak ikaraz mutu gelditu ziren, hotsa entzuten baitzuten, baina inor ikusten ez. Saulo lurretik altxatu zen eta, begiak zabalik zituen arren, ez zuen deus ere ikusten, Eskutik hartuta eramane zuten Damaskora, eta hiru egun eman zituen han itsu, ezer jan eta edan gabe. [...]

Joan zen Ananias eta, etxean sarturik, eskuak ezarri zizkion Saulori, esanez: «Anaia Saulo, Jaunak, bidean zentozela agertu zitzaizun Jesusek, bidali nau, berriro ikus dezazun eta Espiritu Santuaz bete zaitezene». Bapatean, begietatik ezkata bezalako batzuk erori zitzaizkion eta ikusten hasi zen berriro; berehala, bataiatu egin zen. Gero, jan eta indarrak berriro zitzaizkion.”

(Eginak 9, 3-9.17-18)

“Baina Jainkoak, jaio baino lehen aukeratu eta bere onginahiaz dei egin zidanak, gogoko izan zuen bere Semea niri agertzea, Beronen Berriona jentilei adieraz niezaien.”

(Galaziarrei 1, 15)

## GAUR ETA HEMEN

Saulo Lege Santuaren zale eta zaintzaile sutsua zen; Jesusekin topo egin zuenean, barru-barrutik zeharo aldatu zen: lehen bera zen santua —**fariseua**—; dena zekien maixua, Legearen defendatzaile amorratua. Orain bere burua *pekatari* ikusten du, dena zor dio Jesusi. Lehen bera eta beretarrak bakarrik santu, orain ez du ikusten gizonik salbamen-korrontetik kanpo. *Fariseua kristau* bihurtu da. Zer alde dago batetik bestera?

Guk zertatik ote dugu gehiago: *Kristautasunetik* ala *fariseukeriatik*? “Nik dena ondo egin dut, legea betetzen dut” ala “Nik Jesusekin topo egin dut, eta nire maixu eta nagusi Jesukristo da?”. Antzeko bizikizunak badira gure artean ere: otoitz-taldeetan, kristau-mugimenduetan, elkarte txikietan... Horra kristauok elkarri opa geniezaiokeen saririk ederrena: Jesusekin topo egitea. Guk nola azal diezaiokegu lagun bati gudan gertatu dena?

### **OTOITZA**

*Gu salbatzearren egin ahalak egin dituzun Aita Jainkoa! Gure erruz galduak ginenok berriro Kristorengan zugaratu gaituzu. Kitatu ezinekoa da Zurekin dugun maitasun-zorra: egin ahal guztiak egin ondoren ere, "beti zorretan". Emaiguzu Jesusekin topo egiteko grazia.*

### **BERTSOAK**

1

Damaskorako bidean,  
Kristo galtzeko idean.  
Saulo hor doa amorru biziz  
lauhankan zaldi gainean;  
baina Jesusek eskuratu du  
errukiz ustekabeen.

2

Saulo galdezka kezkatu:  
"Ene Jauna, nor zara Zu?"  
"Ni Jesus naiz ta erasopean  
esan, zergatik naukazu?  
Akuiluaren aurka ostiko  
egitea gogor zaizu."

3

Nola Aitak erakutsi,  
hala dut Jesus ikusi.  
Ni bere aurka ibili arren,  
Bera izan da nagusi;  
gaurtik aurrera, denen gainetik,  
jarraitzen diot Jesusi.

4

"O Paulo, Jesusen partez  
hemen natorkizu artez."  
Ananiasek argitu zuen  
bere eskuen ezartez;  
Jesusekin bat egin da Paulo  
bateoaren bitartez.

5

Lehen bildurrezko otsoa,  
orain da bildots mantsoa.  
Jesus ta Paulok egin dutena  
bai topaketa gozoa!  
Handik aurrera Jesusena da  
gorputz t'arima osoa.

6

"Dohain ninduzun maitatu  
eta errukiz bilatu.  
Nire amaren sabeletik Zeuk  
bai ninduzun aukeratu;  
nik neurez ez dut besterik ezer:  
gaiztakeria ta pekatu."



## 45

## JESUS ETA LOIOLAKO IÑAZIO

## ALDI HARTAN

Erlijio gehienetan Jainkoa beti urrun agertzen zaigu: dena dakiena eta dena ahal duena; inor ezertarako ere behar ez duena. Horregatik edo, beldurgarria eta kontu-hartzaile zorrotza. Zorionez, kristau-fedeko Jainkoa, Jesusengan gure haragiz jantzita azaltzen zaigu, denetan gure antzeko eginda, gizona-gatik bizia jokutzen duena. Eta ez zaigu aldendu gure ondotik, nahizta gu Berarengandik aldendu. Gure barrenean dago betiko.

Gure Herriko bizitza Jainko eta santu-irudiz, etxez eta pertsonaz beterik daukagu. *Euskal Herria Jainko Herria*, esateko moduan. Gizaldietan zehar sinesmen-fruitu ederrik eman du Jainkoaren aintzarako eta gizonen onerako. Euskal Herria munduan ezaguna da; *misiolari* eta *santuak* izan dira, ezagutzera eman dutenen arteko onenetarikoak. Beraien artean ezagunena *LOIOLAKO IÑAZIO*. Baina ez *gerra-mutil* trebea izan zelako, baizik eta *santua* izan zelako.

“Neu naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Fruiturik ematen ez duen aihena ebaki egiten du Aitak, eta fruitua ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, adierazi dizuedan mezuaren bidez. Zaudete Niri itsatsiak, Ni zuei bezala. Aihenak, mahatsondoari itsatsia ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, ezta zuek ere, Niri itsatsiak ez bazaudete.”

(Joan 15, 1-4)

“Ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita berauen predikuaen bidez Niregan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu guztiak bat izan daitezela. Aita, Zu Nirekin eta Ni Zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin. Horrela, munduak sinetsiko du Zuk bidali nauzula. Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezen, Gu biok bat garen bezala: Ni hauekin bat eta Zu Nirekin bat. Horrela, guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du Zuk bidali nauzula eta Ni neu maitatu nauzun bezala maitatu dituzula berauek ere.”

(Joan 17, 20-23)

## GAUR ETA HEMEN

Hauxe da kontua: Jesukristorekin topo egitea, Loiolako Iñaziok bezala. Gutxien uste zuenean, bizitzako porrotik latzena etorri zaiola uste zuenean, Jesus Berarekin topo egin! Handik aurrera Iñazio Jesusentzat da osorik. Handikeriak utzi eta pobretasun-bidea hartzen du; Jesus ezagutu nahirik, bakardade eta koba-zuloak bilatzen ditu; Jesus ezagutzera eman nahirik, *Josu Lagundia* sortzen du. A zer nolako aldaketa!

Horrenbeste ahal du giza landareak, Kristoren mendu berria ezartzen zaionean. *Mahatsondoan* txertatzen denean, kimatu beharreko adar iharrak kimatzen direnean. Iñaziorengan gertatu zena gudan ere gerta daiteke; guztiok gara, hura bezala, Jesus-Mahatsondoko aihe-nak. Gure artean ere hemen dabil Jesus deika eta bila. Noiz ote da gure ordua?

## OTOITZA

Jesukristorengan denok seme-alabatzat hartzen gaituzun Aita! Eskerrik beroenak Zuri, gure artean izan diren eta diren fede handiko hain-beste kristauengatik! Eskerrak Zuri, gugandik gaur ere fruitu gehiago eta hobeak itxaroten baitituzu! Eskerrak Zuri, Aita, gure ondoan ipini dizkiguzun pertsona zintzoengatik! Laguniezaguzu beraien ondorengo jatorrak izan gaitezen; gu ere beste batzuentzat Zurekin bat egiteko "zubi" izan gaitezen.

## BERTSOAK

1

Iñazio Loiolan  
jaio ta hazia,  
handiki artekoa  
zuen arrazia.

Baina gehiago izan zen  
Jaunaren grazia,  
hortik dauka koroia  
gaur irabazia.

2

Itiazio bazeukan  
nahi beste aukera,  
goruntza igoteko  
mila eskailera.

Eskailera erdian  
dena goitik behera:  
beste baten agertu  
zaio Jesus Bera.

3

Iruñeko borrokan  
jasan du porrota,  
ibili ezinean  
lurrean dago-ta.  
Gorputzez zauriturik  
ta bihotzez jota,  
ordu hau mila bider  
nola ez gorrota?

4

Horra gure mutila  
bakarrik Loiolan,  
errenditu ezinik  
txoria kaiolan.  
Baina Jaunak ez dauka  
ahaztuta inolana,  
irakasle ona da  
gaixoen eskolan.

46

## JESUS ETA URLIA

### ALDI HARTAN

Munduko historian, antza denez, handi-  
-mandiak daramate aintza eta ospe guztia.  
Jainkoaren munduan ere horrela delakoan. Ez  
horixe! Inondik inora ere ez! Guztiz beste-  
rantza: handi-mandiak goietatik jaitsi eta  
Belengo askatxoan, gaixoen artean, Kalba-  
rioko Gurutze ondoan Jesusekin topo egin  
behar. Bera hor dago eta hortxe egin behar  
topo Berarekin. Ez joan ez dagoen tokira.  
Beti ere txiki behartsuek aukera hobea dute  
topaketa honetarako.

Jesus berpiztua gizaki guztien ondoan  
dago; piztu zenetik ez da urundu guregan-  
dik; beti da gaurkoa eta bertakoa toki guztie-  
tan. Hori da Jainko izatera bihurtzea, baina  
gugatik jaitsi zena ezin gugandik alden-  
du, gu Aitarekin bat egin arte. Horrela bada,  
gaur ere ahal da Jesusekin topo egin? Bai  
horixe! Eta zenbatek egiten duten! Beti  
bihotz-hondoko isiltasunean eta bakardadean  
gertatzen da. Gehien baten noiz, nola eta  
zenbat neurtzea ez da erraz, behar ere ez.

"Hona zer dioen Amen-ek, testigu leial eta egiazkoak, Jainkoak egindakoen sorburuak. [...]

Hara, atean nauzu deika; norbaitek nire aho-tsa entzuten badu eta atea ireki, harenean sartuko naiz, eta elkarrekin afalduko dugu. Garailea Neurekin eseraraziko dut neure tronuan, Neu ere garaile izan eta neure Aita-rekin Beronen tronuan eseri naizen bezala."

(Apokalipsia 3, 14.20-21)

## GAUR ETA HEMEN

Adiskide, gaur zure eta nire ordua da, gaur da gure aukera eta jokaldia; ez dezagun *txanda-pasa* egin. Ez duzu behar ez *titulurik*, ez *dirurik*, ez *adin* berezirik. Jesusekin topo egin nahia da nahiko eta beharrezko, Hura beti dago prest eta egarri biziz. Eta hori ez norberaren merituz, Jesusen Espirituz baizik. Gaur ere badira diotenak: "*Ez nuen uste Jainkoak suerte hau hil aurretik emango zidanik...*", "*Hau zer den ezin dizut esan, etorri eta zuk ikusi*", "*Ez nuke hau emango munduko ondasun guztien truke ere!*".

Apostoluen denborako Jesus, Pauloren, Iñazoren eta aldi guztietakoen aldiko Jesus, gaur gure aldiko da. Berbera da, ez zaharrago eta ez gazteago, ez bigunago eta ez gogor-rago, ez gertuago eta ez urrunago. Espiritu Santuak berdintzen ditu desberdintasun guztiak. Begira ingurura, galdetu ea nola egin daitekeen gaur Jesusekin topo; sar zaitez Jesusen bila dabiltzanen taldean eta aurkituko duzu. Orduan ez duzu izango inork esan beharrik. Laster zuk biziko duzu Jesusekin topo egitearen gozotasuna. Ziur egon: Ha izango da izatekoa!

### OTOITZA

Gizaldi guztiak eta munduko bazter guztiak  
errukizko uriolez asetzen dituzun Aita Handia!  
Eraman gaitzazu Jesusekin topo egiteko bidetik.  
Zugana iritsi aurretik Jesusengan ezagutu eta  
maitatu nahi zaitugu bihotz betean. Orduan  
bakarrik deituko dizugu garen guztiarekin:  
**ABBA! AITATXO!**

### BERTSOAK

1

Gaur arte esan duguna  
hitz eta bertso-jarduna:  
beste batzuen alde izan da,  
jakizu, laguna.  
Sarri da tituluduna,  
izen handi ezaguna;  
gaur geure txanda dugu ta, eman  
daigun erantzuna.

2

Gu denok gaituzu kristau,  
horrek "santu" esan nahi dau;  
bateoaren grazi indarrak  
behin betiko dirau.  
Ez da nahiko meza, barau,  
askoz ederrago da hau:  
Kristok Berekin bat egiteko  
ni aukeratu nau.

3

Yone, Aitor zein Teresa,  
berdin pobre nahiz markesa;  
"urlia" orde, bere izena  
bakoitzak jar beza.  
Ongi da barau ta meza,  
ahal den guztian erreza;  
Jesusen graziaz santu ez bada,  
dena da bapeza.

4

Nonahi etxe baztarrean  
bizimodu kaxkarrean,  
aitita-amamak Jesusen lagun  
fede-indarrean.  
Sarri otoitz-marmarrean,  
bihotzak su ta garrean,  
zein maite diren berak dakite,  
biak bakarrean.

5

Hau ez dago talentuan,  
ez geure pulamentuan;  
dena elkarren pozetan egin  
eta kontentuan.  
Batzutan sakramentuan,  
bestetan eskarmentuan;  
zer, noiz ta nola, gordetzen dute  
biak sekretuan.

## AURKIBIDEA

Maitemina .....	5
Topaketa .....	7
Topaketa-biderako argibide batzuk .....	13
1. Jesus eta Maria .....	16
2. Jesus eta Jose .....	21
3. Jesus eta Elisabet .....	26
4. Jesus eta artzainak .....	31
5. Jesus, Simeon eta Ana .....	36
6. Jesus eta bere gurasoak .....	41
7. Jesus eta Errege Santuak .....	46
8. Jesus eta Joan Bataiatzailea .....	51
9. Jesus eta lehenengo ikasleak .....	56
10. Jesus eta Kanango ezkonberriak .....	61
11. Jesus eta ikasle arrantzaleak .....	66
12. Jesus eta apostoluak Tabor mendian .....	71
13. Jesus eta bere senideak .....	76
14. Jesus, Marta eta Maria .....	81
15. Jesus eta Naingo alarguna .....	86
16. Jesus eta Nikodemo .....	91
17. Jesus eta hamar legenardunak .....	96
18. Jesus eta perlesiaduna .....	101
19. Jesus eta odol-jarioduna .....	106
20. Jesus eta ikasleak aurrez aurre .....	111
21. Jesus eta haurrak .....	116
22. Jesus eta Kafarnaungo kapitaina .....	121
23. Jesus eta Zakeo .....	126
24. Jesus eta Zebedeotarrak .....	131
25. Jesus eta andre pekataria .....	136
26. Jesus eta Bartimeo itsua .....	141
27. Jesus eta Betzatako elbarria .....	146
28. Jesus eta emakume samariarra .....	151
29. Jesus eta Pedro .....	156
30. Jesus eta misio-lagunak .....	161

31. Jesus eta bere jarraitzaileak .....	166
32. Jesus eta Mateo .....	171
33. Jesus eta azken afariko mahaikideak .....	176
34. Jesus eta apostoluak Jitsemanin .....	181
35. Jesus eta Jerusalemgo emakumeak .....	186
36. Jesus eta Simon Zirenetarra .....	191
37. Jesus eta Ama kalbarioan .....	196
38. Jesus eta lapur ona .....	201
39. Jesus eta Magdalako Maria .....	206
40. Jesus eta apostoluak elkarbizitzan .....	211
41. Jesus eta emautarrak .....	216
42. Jesus eta Tomas .....	221
43. Jesus eta bidaliak .....	226
44. Jesus eta Paulo apostolua .....	231
45. Jesus eta Loiolako Iñazio .....	236
46. Jesus eta urlia .....	241